ASTELEHENEKOA

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-09-24
ASTELEHENA
378. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

## Euskarak irabazi zuen zapatuan

500 lagunek egin zuten takarraran | 29



Lasterkariak ikurrinarekin. | J.A.

Alustizak eta 'Ttiki'-k jantzi dute txapela hirugarrenez Oñatin | 11



Kooltur Asteburuak ikusleak xaxatu ditu eguenetarako | 28



Tarsicio eta Peñaren Mitsubishia izan da azkarrena Aramaion | 22




## Nahi izanez gero lortu daitekeelako

Joko Olinpikoetan egindako lanagatik, Maider Unda borrokalari oletarrak egin du lehen txotxa aurtengo Txirritola Egunean | 12

Borroka librean ez ezik sagardoa ateratzen ere trebea dela erakutsi zuen atzo Undak, herritarrez betetako plazan. Udalak lore-otarra eta koadroa eman zizkion opari. | JOSETXO ARANTZABAL

## Eskualdeko enplegu plana burutzeko lehen foroa egingo dute eguenean

Mankomunitateak antolatu du foroa, Lanbidek abiarazitako egitasmo baten barruan, eta askotariko eragileek parte hartuko dute. Eguenean bertan, bestalde, Aldundiko ordezkariak Arrasatera etorriko dira, 2013ko aurrekontua lantzen ari direla-eta, herritarrek esateko dutena entzutera. | 5

## 'Hamahiruak Herrira' eskatu zuten zapatuan Arrasaten

Hausnarketarako deia egin zuen Herrira taldeak | 4



F. Balda eta J.Uribetxeberria. | J.A.

## Egubakoitzean jarriko dute martxan e-rezeta Oñatin; eta urtea bukatu aurretik, EAE osoan

| 4

Iraileko sariak

Eta zuretako badira?

► Zoaz 21. orrialdera.

DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 8 | HERRIAK 10 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

# Zortzi baserritako produktuak 'on-line' salgai, 'Baserrisarea'-n

- Landa eremuaren gaineko webgunea sortu dute
- 'Baserrisarea.com' da eta denda birtuala dauka
- Auzoen gaineko informazioa dakar, besteak beste




Dagoeneko ibili dira erabiltzaileak kux-kuxeatzen *Baserrisarea.com* webgunean. | GOIENA

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Ia 6.000 debagoiendar landa eremuan bizi dira, Debagoieneko 76 baserri-auzoetan. Auzo biziak dira, Debagoieneko ekonomian zeresana dutenak, produzitu egiten dutenak eta Debagoieneko bizitzan ahots ozenagoa izan gura dutenak. Asmo horrekin sortu dute *Baserrisarea.com* webgunea. Joan den astean aurkeztu zuten eta dagoeneko badabil jendea han sartzen, arduradunek diotenez.

*Baserrisarea.com* landa ingurunearen erakusleiho izateko jaio da, egileen esanetan. Debagoieneko Landa Garapenerako Deba Garaia agentziaren eta eskualdeko baserritarren arteko lana da, eta bere atal garrantzitsuenetariko bat *on-line* denda da. Izan ere, bultzatzaileen esanetan, baserritarren nekazaritzako jarduerak berreskuratzea eta sendotzea da *Baserrisarea.com*-en helburua. Horrela bada, baserriko ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko zubia izan nahi du.

**Irailean, garraioa doan**

*Baserrisarea.com*-ek zuzenean saretik erosteko aukera ematen du. Debagoieneko zortzi ekoizle batzen ditu, oraingoz: hiruk gazta saltzen dute; bik, txakolina; eta banak, kiwiak, kontserbak eta okela. Baina *Baserrisarea.com*-ek bailarako 21 ekoizleren gaineko informazioa ematen du: ze baserrikoak diren, baserria non dagoen, zelan kontaktatu, zer eta non saltzen duten...

Proiektuari sostengu logistikoa eskualdeko ekoizleek sortutako Leintz Gatzagako Jakion enpresak eskaintzen dio, eta Leintz Gatzagan dagoen biltegi baten zentralizatzen dituzte on-line salgai dauden produktuak. Eskaera egin eta gero, bidali behar dena prestatzen da eta etxera bidaltzen diote erosleari. Astero banatuko dute, eta eguazteneko 12:00ak baino lehen ordainduta daudenak, Debagoienean eguenean eta gainerakoetan egubakoitzean banatuko dira, eta 12:00ak eta gero ordaintzen duenari hurrengo asteko eguenean edo egubakoitzean banatuko diote, dagokion moduan.

Gainera, irailean, eskaintza berezia dute: hilabete bukaerara egiten diren eskaeren garraioa doan egingo dute.

*Baserrisarea.com*-eko produktuak denoi daude zabalik, baina batez ere debagoiendarrei. Honela esan zuen *Baserrisarea.com*-eko dinamizatzaile Itziar Urizarbarrenak Goiena telebistako *Magazinea* saioan: "Guk nahi duguna da bertako produktua bultzatzea eta bertan kontsumitzea; beraz, gure publizitatea bereziki hemen egingo dugu, Debagoienean".

**76 auzo**

Hori, Interneteko salmenta puntua, da webgunearen atal berritzaileena; baina beste bi atal nagusi ere baditu.

Horietako bat da landa eremuen gaineko informazio atala.

**ESANAK**

> **"Auzoetako ostatuak, auzolanak... denetarik dago"**
> INAZIO AZKARRAGAURIZAR

> **"Auzoek duten arrail digitala oraindik nahiko handia da"**
> AGURTZANE DIAZ DE URIBIDE




ZURINE VELEZ DE MENDIZABAL

**ELKARLANEAN** Debagoieneko baserritarrek eta erakundeek elkarlanean egindako proiektua da Baserrisarea.com. Bergaran aurkeztu zuten, eta bertako eta Arrasateko alkateak esku hartu zuten, besteak beste.

**DATUA**

**21**

EKOIZLE

21 ekoizleren fitxak daude: nor diren, ze ekoizten duten, non saltzen duten...

Gipuzkoa BERRIA

*Herritarrekin* egitasmoaren barne, eskualdeen egoeraz eta Diputazioaren asmoez jarduteko bilera irekiak. Foru Aldundiaren ordezkaritza batek hartuko du parte, Martin Garitano diputatu nagusia buru.

Arratsaldeko 19:00etan egin dugu hitzordua.

**IRAILAK 27 ARRASATE - Kulturate**

Bi gai/talde:

GARAPEN EKONOMIKOA ETA FISKALITATEA

GIZARTE POLITIKA

Aukeratu zuretzat interesgarriena den gai/taldea eta zatoz etorkizunerako nahi duzun Gipuzkoa berria eraiki ahal izateko lehen aurrerapausoak ematera.




Hori antolatzeko, landa eremu bakoitzak bere fitxa dauka, eta hor aditzera ematen dira bertako monumentuak, ermitak, basabideak, jaiak… Leintz Gatzaga ez da bi auzotan banatu, herritarrek ez zutelako hala gura. Beraz, 76 auzo eta beste horrenbeste fitxa egin dute. Debagoieneko landa eremua ezagutzeko gonbidapen erakargarria dago hortxe.

Auzotarrek ekintzak egiten badituzte, bertan aditzera eman ditzakete. Batzuk dagoeneko badaude sarean: adibidez, Bedoñan, hilaren 29an ipuin kontaketa dago. Itziar Urizarbarrenaren esanetan, "helburua da auzotarrek bertan parte har dezatela eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabil ditzatela".

Hirugarren atal nagusia zerbitzuen atala da. Horren bidez, *on-line* egin daitezke egin beharreko tramite burokratikoak. Urizarbarrenak azaltzen duenez, "ez da bikoizketarik egin; izapideak edo tramiteak zerrendatu ditugu eta katalogo antzeko bat egin dugu, eta izapide bakoitzaren webgunera bideratzen dugu erabiltzailea".

**ITZIAR URIZARBARRENA** | DINAMIZATZAILEA

## "Baserrisarea.com' auzoen arteko elkarlan tresna izan dadin nahi dugu"


MIREN ARREGI

*Baserrisarea.com* -eko dinamizatzailea da Itziar Urizarbarrena.

**Nola sortu zen *Baserrisarea.com*?**
DinamizaTIC, Comarca en Red eta SPRI-ko dirulaguntzei esker sortu da. DinamizaTIC-en helburua da teknologia berriak landa eremuetara eramatea. Programa hori orain bi urte jarri zen martxan gure bailaran. Lehenengo diagnosia egin zen, eta hortik ateratako ondorioetatik ekintza plana sortu zen. *Baserrisarea.com* plan horretako ekintza bat da.

**Zeintzuk izan ziren ondorioak?**
Landa eremuan eta kalean ez zela teknologia berdin erabiltzen; arrail digitala delakoa zegoela, hain zuzen ere. Horri konpontzen joateko, ikastaroak antolatu izan ditugu. Auzo batzuetan konexio arazoak daude oraindik.

**Badirudi baserriko produktuei gero eta garrantzi handiagoa ematen diegu.**
Bai, eta hori islatu nahi izan dugu webgunean: azoka eta kontsumo taldeen gaineko informazioa ere ematen dugu, jendeak jakin dezan bertako produktuak non erosi.

**Beste ekintzarik egingo duzue?**
Auzoz auzo zabaldu nahi dugu webgunea. Izan ere, elkarlan erreminta bat ere badauka, non landa eremuek sarea eratu dezaketen eta ekintzak batera aurrera eroan. Nahi duguna da landa eremuari gerturatu ekintzak zelan zintzilikatu, webgunea elkarlanerako zelan erabili...



GOIENA

**SALMENTA** Fruta, haragia, kontserbak, gazta eta txakolina daude oraingoz 'on-line' erosgai. Nahi duten baserritarrek jar ditzakete salgai euren produktuak *Baserrisarea.com*-en.



GOIENA

**EZAGUTU** Landa bizitza atalean, Debagoieneko baserri auzoak –76– ezagutzeko aukera dago. Denetariko informazioa batzen du, bitxikeriak ere bai; adibidez, landa eremuko pertsonaia famatuak.



GOIENA

**DEBAGOIENA** Debagoiena bailararen inguruko informazio praktikoa eta turistikoa ere batzen du *Baserrisarea.com*-ek: natura, ondare historikoa eta gehiago.

Orain Arrasaten
Benetan pisua galdu nahi duzu?

Esan baietz betiko
Rosa Sarabia doktoreak
kontsulta berria ireki du:
PronoKal® metodoa
Zientzia eta zorroztasuna pisua galtzeko
– Kontrol mediku zorrotza
– Pisu galtze handia – Gose gabezia
Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.
CMU centro médico UDALAITZ
Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.
Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna
OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA – EZPAINAK – MESOTERAPIA
BARIZEAK – HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK – SUDURRA – SABELALDEA
Medikuntza estetikoa eta kirurgia plastikoa
PSE: 37/04

# 'Hamahiruak Herrira' aldarrikatu dute Amaia Antzokiko agerraldian

Herrira taldeak zapatuan egindako agerraldi nagusian hausnarketarako deia egin zuen, Uribetxeberriaren egoera berriro gerta ez dadin

**MAIDER ARREGI** | ARRASATE

Iosu Uribetxeberriaren egoerak preso politikoen inguruko eztabaida bizkortu du. Hala, zapatuan, Herrira taldeak agerraldi solemnea egin zuen Arrasaten, gaixo dauden presoen eskubideen aldeko iniziatibak aurkezteko.

Uribetxeberriak bizitako egoera azaltzen zuen ikus-entzunezkoak eman zion hasiera ekitaldiari. "Herritarren ordua da, kalera irten eta giza eskubideak aldarrikatzeko garaia da", nabarmendu zuen Fran Balda Herrirako kide eta bozeramaileak. Gizatasuna eta justizia ere aldarrikatu zuen Herrirak, giza eskubideen unibertsaltasunarekin batera.



Fran Balda, Jabier Uribetxeberria besarkatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

**Berriro gerta ez dadin**

Eszenatokira, gaixotasun larriak dituzten hamahiru preso politikoen senideak eta Jabi Uribetxeberria, Iosuren anaia, igo ziren *#13akHerrira* aldarrikatuz. Iosuren hutsunea irudikatzen zuen aulkia kendu eta txalo zaparrada artean hartu zuten Amaia antzokikoek Jabier Uribetxeberria. "Txalo hauek Euskal Herriarendako izan behar dira. Mila esker Euskal Herria", zioen guztiz hunkituta Jabier Uribetxeberriak.

**Hausnarketarako deia**

Uribetxeberriaren egoerak inori ez diola onurarik ekarri azpimarratu zuten. "Ezin da berriro errepikatu. Inoiz gehiago ez dadin gerta, eskubideak bermatu behar dira eta konponbidea bilatu, denok sufritzeari uzteko", azaldu zuen Nagore Gartzia Herrirako ordezkariak. Hala, aurrera egiteko urratsak eman nahi dituzten herritarrei tokia egiteko sasoia dela aldarrikatu zuen. "Bakea eta soluzioa behar du herri honek eta Gobernuek ezin dute oztopatu; gizarte honek bakea merezi du", gaineratu zuen. Kartzela politika jasan ezina dela eta presoak politika egiteko erabiltzen dituztela salatu zuen Herrirak.

**ESANAK**

**"Horrelakorik inoiz gehiago gerta ez dadin, giza eskubideak bermatu behar dira, derrigor"**

NAGORE GARTZIA | HERRIRA

---

**FRAN BALDA**
HERRIRAKO KIDEA

## "Presoak politikarako erabiliz, dago gatazka eta sufrimendua"



MAIDER ARREGI

**Hausnarketa garaia da?**
Iosuren egoera irakaspena izan da. Denon artean lan egin behar dugu berriro horrelakorik gerta ez dadin; horretarako hausnarketa behar da eta zubiak eraiki. Gizarte honek akordio handi bat behar du egoera hauek sortu ez daitezen. Egun dagoen kartzela politika desaktibatu eta soluzioa bilatu nahi dugu.

**Presoak politika egiteko erabiltzen dira?**
Konfrontazio zurrunbilotik irtetea nahi dugu. Presoak interes partidista eta politikorako erabiliz gero, sufrimendua eta gatazka dago soilik. Preso politikoak ez daitezen bahitu gisa erabili, lehen urratsean, preso egon arren dituzten oinarrizko eskubideak bermatzea lortu behar da. Europatik ere Espainiari begira daude. Estrasburgok ebatzi du 66 preso politikori bizi arteko kartzela zigorra ezarri zaiela eta ez dela legezkoa.

**Hurrengo urratsean, zer?**
Egoera bat sortu behar da non preso eta iheslaririk ez den egongo Euskal Herrian. Lanean jarraitu beharko dugu, konponbidearen atea zabaldu behar da denon onurarako.

---

# Egubakoitzean jarriko da Oñatin e-rezeta martxan

**M.A.** | OÑATI

Errezeta elektronikoa abian izango da Oñatin hilaren 27an. Osasun Zentroa, lau farmazia eta norbanako osasun txartela duten 11.300 biztanle ditu Oñatik.

Hala, Osakidetzatik jakitera eman dute, 2012a bukatu aurretik, Euskal Autonomia Erkidego osoko herrietan abian jarri nahi dutela e-rezeta sistema elektronikoa.

**Segurtasuna bermatzeko**

E-rezeta sistemak gaur egungo paperezkoa ordezkatuko du. Oñatin hasiko dira, baina udazkenean zehar, pixkanaka herri guztietara zabalduko dute. Sistema honen helburua da herritarrei segurtasuna bermatzea, besteak beste.

**Funtzionamendua**

Herritar bakoitzak txartel pertsonal bat izango du eta, txartel horrekin, farmazietan behar duen sendagaia hartu ahal izango du. Izan ere, bakoitzaren medikuak behar duen sendagaia zein den zehaztuko dio, mezu elektroniko baten bidez, eta txartelean erregistratuta geratuko da.

Modu horretan, herritarrak ez dira anbulategira errezeta hartzera joan beharko. Hau da, zuzenean farmaziara joan ahal izango dira eta txartelarekin behar duten sendagaia erosteko aukera izango dute.





PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALAK

URRIA - EKAINA

**ASTELEHENETAN / Hasiera: urriak 8**

*1. maila: 17.00 - 18.30*

*2. maila: 18.30 - 20.00*

*Dantza-txokoa: 20.00 - 21.30*

**IZENA EMATEA**
AED: 943 77 12 28 / *aed@aedelkartea.com*
GAZTE BULEGOA: 943 25 20 65
*gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net*

Antolatzailea: Portaloi Kultur Elkartea
Laguntzaileak: aed arrasate euskaldun dezagun; gaztebulegoa.com





MAIDER ARREGI

# Manifestazio zaratatsua grebaren alde

Arrasateko Greba Batzordeak –LAB, STEE-EILAS eta ESK sindikatuek eta beste zenbait eragilek osatutako batzordeak, tartean Ezker Abertzalea edo Arrasateko gaztetxea– deitutako manifestazio zaratatsuak arrakasta izan du. Txilibitu, adar zein danbor hotsez, arrasatearrek herriko kaleak astindu dituzte irailaren 26ko greba orokorrerako herritarrak kontzientziatzeko helburuz. "Giroa berotu" eta "herritarrak aktibatzeko" helburua izan duela azaldu dute.



Hitzaldiak emango dituztenetariko batzuk .

## Eusko Alderdi Jeltzaleak antolatuta berbaldiak, mahai inguruak eta beste, Debagoienean

ZURIÑE V.D.M. | DEBAGOIENA

Urriaren 21eko hauteskundeen atarian, hasi dira kanpainaurreko ekitaldiak toki guztietan. Debagoienean ere zenbait hitzordu antolatu dituzte datozen egunetara begira. Aste honetan, EAJk antolatuta, hitzaldi, mahai-inguru eta beste egingo dira ibarrean.

**Hitzordu anitzak**

Askotariko pertsonak etorriko dira Debagoienera jendaurrean berba egitera, politiko eta ez politikoak, gainera. Izan ere, zenbait soziologok ere hartuko dute hitza.

Bergarako kasuan Zabalotegin izango da hitzordua, bihar irailak 25, 19:30ean. Alfredo Retortillo, Iñaki Martinez de Luna eta Jon Urresti soziologoak eseriko dira mahaiaren bueltan. Martitzenean bertan, eta Eskoriatzan, Markel Olano eta Miren Azkaratek herritarren galderei erantzungo diete, Batzokian, 19:00etan.

Irailaren 27an berriz, Josu Erkorekak berbaldia eskainiko du Batzokian, 19:00etan eta ondoren, pintxo-poteoa egingo dute, Batzokian bertan.

Urriaren 1ean berriz, Oñatiko Kultura Etxean 19:00etan, Rikardo Gatzagaetxebarria legebiltzarkideak berbaldia egingo du egungo egoera ekonomikoaren gainean.

# Ekonomia gaiak izango dira nagusi eguenean Arrasaten

### Mankomunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak deituta eskualdeari zuzendutako hitzordu bana

ZURIÑE V.D.M. | DEBAGOIENA

Irailaren 27an, eguen honetan, Mankomunitateak Arrasaten duen egoitzan eskualdeko enplegu plana burutzeko asmoz, lehenengo foroa egingo dute, 10:00etan hasita.

Koldo Azkoitia Mankomunitateko Garapen Agentziako Zerbitzu buruak GOIENAri adierazi dionez, Lanbidek abierazitako egitasmo baten barruan, Mankomunitateak eskualdeko enplegu plana burutzeko asmoz antolatu du foroa. Aurre lan bat egin dute fororako oinarrizko materiala egon zedin: alde batetik eskualdeko diagnosi ekonomiko bat burutu dute; bestetik, Saiolani enpresen konpetentzia arloan ikerketa bat esleitu zioten. Bigarren hau amaitu gabe dutenez gero, eguenean diagnosi ekonomikoaren gainean egingo dute berba deialdira bertaratzen diren eragileek.

Hain zuzen ere, askotariko eragileek hartuko dute parte hitzorduan, aniztasuna bilatu gura izan baitute: Mondragon Unibertsitatea, Uned, Debagoieneko Mendinekazaritza, LAB, ELA, Adegi... Proposamenei irekita daudela adierazi du Azkoitiak eta foroak etorkizunean ere bizirik iraun dezan bilatzen dutela gaineratu du.

**'Herritarrekin' Arrasaten**

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Herritarrekin* ekimena Arrasaten egingo da irailaren 27an Kultur Ateko areto nagusian. Hain zuzen ere, iaz egin zen *Kontuak Garbi* zikloari jarraipena eman gura izan diote.

Eskualdeko hitzordua izango denez gero, debagoiendar guztiei dago zuzenduta deialdia. Hala, Gipuzkoako Foru Aldundia 2013-ko aurrekontua lantzen ari direla eta, Arrasatera joango den Aldundiko ordezkaritza batek herritarrekin bildu gura du, hauek esateko dutena entzuteko asmoz. Bi hitzordu garrantzitsu, beraz, eguenean.

## Bihar amaitzen da Uned-Bergararen goi mailako titulazioetan izen- ematea

ZURIÑE V.D.M. | DEBAGOIENA

Uned-Bergarak eskaintzen dituen hogeita bost goi mailako titulazio baino gehiagotan eman daiteke izena. Azken eguna bihar martitzena, hilak 25 izango da.

"Malgutasunak eta urrutira ikasteko metodologiak ahalbidetzen dute ikasleek ikasketak aurrera eramatea". Hala adierazi dute Uned-Bergaratik. Modu horretan, zenbait ikasgai ikasgelatan bertan emango dituzte, eta besteak aldiz, prestakuntza telematiko bidezkoak izango dira.

Azken hamarkadan zehar ikasleen kopuruak gora egin duela adierazi dute: "Goi hezkuntzako Europar Eremura egokitutako titulazioak moldatu izanak matrikulazioen gorakada nabarmena sustatu du, eta urtero unibertsitate ikasketak egiten ia 2000 ikasle izatea bermatu du". Graduondokoez gainera, unibertsitatera sartzeko ikastaroak ematen dituzte; Hizkuntzen Urrutiko Unibertsitate Zentroaren bidez hizkuntzak ikasteko aukera; Idazle Eskola; Osteopatian Trebakuntza... Informazio gehiago, 943 769033 edota info@bergara.uned.es.





Industria ministroa eta beste agintari batzuk, Kunshango lantegiak inauguratzen. | MONDRAGON KORPORAZIOA

# Kunshango parkeak beste bultzada bat jaso du, bi lantegi berrirekin

- Fagor Ederlan Autoparts eta Cikautxo kooperatibak inauguratu dituzte
- Txinan, bost urtean % 25 saltzera ailegatu gura du Mondragonek

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Jose Manuel Soria Espainiako Industria ministroak Fagor Ederlan eta Cikautxoko lantegiak inauguratu zituen eguaztenean Kunshango (Txina) Mondragon enpresa parkean, Shangaitik hurbil. Inaugurazio ekitaldian, Industria ministroaz gain, Bernabe Undak, Eusko Jaurlaritzako Industria, Turismo eta Merkataritza sailburuak; Li Jun-ek, Kunshan Alderdi Komunistako Idazkari Nagusiak; eta Txema Gisasolak, Mondragon korporazioko Kontseilu Errektoreko lehendakariak ere parte hartu zuten.

Mondragon Korporazioaren Kunshango parkea 2007ko azaroaren 14an inauguratu zen, eta Txinan ezarri nahi duten euskal enpresendako parkea da, Mondragonek Industria Sailarekin duen hitzarmenaren bitartez. Krisiaren eraginez, pixkana-pixkana dabil handitzen, eta oraingo bi inaugurazioekin, beste bultzada bat eman diote industria parke horri. Gainera, bi enpresek automobilgintzarako egiten dute lan, nagusiki, eta Txina da gaur egun automobilgintza sektore indartsuena duten herrialdeetako bat.

### Inbertsio handienetakoa

Txema Gisasolak Korporazioak nazioartekotzeko duen estrategiaren garrantzia azpimarratu zuen, eta gaineratu zuen multilokalizazioa dela egoitza nagusietako lanpostuak ondoen defendatzeko estrategiarik egokiena. Era berean, Gisasolak esan zuen Txina herrialde gakoa izango dela Mondragon Korporazioaren garapenean: "Aurreikusita daukagu datozen bost urteetan gure jarduera nabarmen areagotzea zonalde honetan, bai erosketei dagokienez (% 10etik % 25era igarota) bai salmentei dagokienez (% 12tik % 25era)".

Soria ministroak Mondragon Korporazioak industria gisa duen ahalmena azpimarratu zuen, esanaz taldea Espainiako industriaren erreferente bihurtu dela Txinan, berrikuntza eta estrategia globala oinarri izanda.

### 40 milioiko inbertsioa

Proiektu biak abiarazteko kooperatibek batera egindako inbertsioa 40 milioi ingurukoa da, industria arloan Espainiako enpresa batek Txinan planta bat ezartzeko orain arte egin duen handienetakoa. Fagor Ederlanek xasis osagaiak egingo ditu Txinako automobilgintza industriarako, eta proiektu horretarako 30 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa behar izan du. Cikautxok piezak eta multzoak fabrikatuko ditu polimerozko materialez, eta 7 milioi euro pasatxo inbertitu du horretarako.

### Lau urtean, 100 langile

Fagor Ederlan Autoparts-ek (Kunshan) 2012ko lehen hiruhilekoan ekin zion bere jarduerari. Aluminiozko segurtasun piezak egiten ditu, presio baxuko teknologiarekin. Gaur egun, 40 pertsonak egiten du bertan lan eta aurtengo fakturazioa 14 milioi euro ingurukoa izango dela aurreikusten dute. Lau urteko jarduearen ondoren, bertako langile kopurua 100 lagun baino gehiagokoa izango dela uste dute.

Aluminiozko portamangeten galdaketa eta mekanizazioa da Fagor Ederlan Autoparts-en lanaren oinarria. Lantegiak milioi bat pieza egiteko gaitasuna du, baina, onartutako hazkunde planaren arabera, hiru urteko epean, gaitasun hori bikoiztu eta, merkatuak hala eskatuz gero, hirukoiztu ahal izango du. Txinako lantegia duela 10 urtetatik Arrasateko enpresa nagusian lanean ari den taldeko beste lantegi baten erreplika antzekoa da, baina merkatuko puntapuntako automatizazio prozesuak eta teknologia erabiltzen ditu.

### Automobilak eta etxetresnak

Kunshango Cikautxo China lantegiak 2011ko azken hiruhilekoan ekin zion kautxuzko piezen fabrikazioari eta, gaur egun, garapeneko proiektu esanguratsuak ditu Txinako merkatuan automobilgintzako merkaturako (GM, Ford eta Faurecia) eta etxetresna elektrikoen merkaturako (BSH). Oraingoz, Cikautxok egin dituen negozio bietako bat baino ez dago ezarrita planta berrian: estankotasuna-bibrazio aurkakoa.

2012rako salmenten aurreikuspena 7,5 milioi eurokoa da, eta lantaldea, aldiz, 65 lagunekoa. Gainera, 2014. urtean, Ford eta GM etxeen plataformak ekoizpen prozesuan sartzen direnean, negozio zifra hori hirukoiztea espero du.

## Datozen asteotan izango dira babeseko etxeen lurzorua erostearen gaineko bilerak

L.K. | ARRASATE

Zabalik dago, azaro bukaerara arte, Eusko Jaurlaritzarenak diren babes ofizialeko etxebizitzen lurzorua erosteko epea. Gipuzkoako 6.821 etxebizitzari eragiten die salmenta eskaintza horrek; Debagoienean, 400i.

Arrasateko Deba Garaia higiezinen agentziako Jesus Markaide izendatu du Etxebizitza Sailak Debagoieneko interesatuei informazioa eman eta eskaerak doan tramitatzeko. Bada, datozen asteotan batzar informatiboak egingo ditu Markaidek Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin. Noiz izango diren jakiteko, deitu 943 77 13 02 telefonora edo *debagaraia@comprarcasa.com* helbidera bidali mezua.

Orain arteko bi salmenta deialdietan, urteko 39.000 euroko irabaziak edo gutxiago zituztenek eros zezaketen etxebizitzaren lurzorua; orain, 50.000 eurotan dago muga.

## Batura Mobilek ekitaldi handietarako pantaila interaktiboa sortu du, eta arrakastaz erabili da

Batura Mobilek ekitaldietan erabiltzeko moduko pareta interaktibo edo *community wall* izeneko tresna sortu du. Pantaila handi bat da, non erabiltzaileek poltsikoko telefonoz bidaltzen dituzten argazkiak, SMSak, Twitterreko txioak eta mezu elektronikoak segituan agertzen diren. Horrekin, ekitaldiaren eta bertan parte hartzen dabiltzanen arteko lotura estuagoa sortzen da. Pareta interaktibo hori arrakastaz erabili dute VI. Branding jardunaldian, Araba Euskarazen edo Bilboko Aste Nagusian.

## Fagor Etxetresnek 41 milioi gordin irabazi dituzte aurten

Iazko urtarriletik ekainera artekoak baino %18,3 handiagoak dira kooperatibaren irabazi gordinak

L.K. | ARRASATE

Fagor Etxetresnen irabazi gordinak %18,3 handiagoak izan dira urteko lehen erdian iazko aldi berean baino. Hain zuzen, urtarriletik ekainera arte 41 milioi euro gordin irabazi ditu, eta 2011ko lehen erdian 34,6 irabazi zituen.

Hala ere, Mondragon Korporazioko etxetresnen kooperatibak iazko lehen seihilekoan baino %9,9 gutxiago saldu du, %8 gutxiago lerro zurian, eta horrek, kooperatibaren esanetan, bi arrazoi ditu: bata, "Europako merkatuaren aurkako testuingurua", eta bestea, Fagorrek urte hasieran ezarri zuen politika, errentagarritasunaren aurretik bolumena lehenestekoa, hain zuzen ere.

Emaitza horien berri abuztuaren 31n eman zuten Fagor Etxetresnek.

### Espainian, merkatu handiagoa

Zenbait alderditan hobera egin dute Fagor Etxetresnek, izan ere, Espainian merkatu-kuota handitu egin du, eta % 17,7koa da orain; Frantzian, % 14koa da, eta Polonian, % 7,9koa. Horrela, Fagor Etxetresnak "sendotu" egin dira sektoreko Europako 5. ekoizle gisa, esan dute arduradunek.

**DATUA**

**%9,9**

GUTXIAGO

Iazko lehen erdian baino %9,9 gutxiago saldu du; lerro zurian, %8 gutxiago.

Fagor Etxetresnen muina den Lerro Zuriari dagozkion datuen inguruan, 15,9 milioi euroko esplotazio-emaitzak izan ditu kooperatibak, iazko lehen seihilekoan baino %49 gehiago. Hala, Fagor Etxetresnen emaitza kontsolidatuak 4,1 milioi handiagoak izan dira.

### Aliantza berria, ia gertu

Fagor Etxetresnek "emaitza onak" direla esan dute, eta horiek kooperatibak egin duen "barne berregituraketa prozesu esanguratsuari" esker lortu direla esan du –galerak zekartzaten jarduerak bertan behera utzi eta erabaki prozesuak sinplifikatu, besteak beste- eta baita esplotazio-gastuak eta giza-baliabide gastuak txikitu izanari. Besteak beste, "zeharkako langile" askoz gutxiago dituela, soldatak txikitu dituela eta "gastuak txikitzeko hainbat neurri" hartu dituela gogorarazi dute Fagor Etxetresnek.

Etorkizunera begira, Fagor Etxetresnek "oso aurreratuta" daukate lerro zuriko "lehen mailako" ekoizle batekin aliantza.

**Marisa Fernandez de Arroiabe** | Ikastaroko irakaslea

# "Egin behar den bidaiaren araberako autoa aukeratzea garrantzitsua da"

- Europako Mugikortasun jasangarriaren astea ospatu dute hainbat herritan
- Gidatze eraginkorraren bitartez %20raino aurrez daiteke autoaren energia kontsumoan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Arrasateko Mugikortasun Astearen barruan *Gidatze eraginkorra/ Gidatze ekonomikoa* ikastaroa egitekoak ziren aste bukaeran. Baina, nahikoa jendek izena eman ez zuenez bertan behera utzi zuten. Ikastaroaren garrantzia azaltzeko, ikastaroko irakasle Marisa Fernandez de Arroiaberengana jo dugu. Ondo gidatzearen garrantzia azaldu digu.

**Euskal Herri osoan ematen dituzue horrelako ikastaroak Eusko Jaurlaritzak bultzatuta. Ikasten denak balio du gutxiago kontsumitu eta gutxiago kutsatzeko?**

Bai, energia kontsumoan uste nuena baino garrantzi handiagoa dauka autoa gidatzeko moduak. Euskal herri mailan kontsumitzen den energia guztiaren %34 garraio munduan kontsumitzen da; eta kopuru horren %93 da errepidetik egiten den garraioa. Era batera edo bestera gidatu, alde handia dago; hala, lor daiteke kontsumoa %20raino jaistea. Bakar-bakarrik ohiturak aldatuz lor daiteke hori. Kontuan hartu behar da bai gidatzeko modua eta baita ere kontuan hartu behar da ze bidaia mota egin behar den. Bidaia horren araberako autoa aukeratzea garrantzitsua da.

**Autobidean edo herri barruan gidatzearen artean alde handia dagoela esan daiteke?**

Autobidean ibiltzen den batek eman behar dio garrantzia autoaren aerodinamikari pisuari baino gehiago. Baina norbaitek herri batetik bestera ibili behar badu, haize handirik ez dabilen toki batean, ba hark erabili beharko du aerodinamikoa ez izan arren pisu txikiagoa duen autoa. Hori da alde nabarmenena.

**Debagoienean, adibidez, zirkulazio handia herritik herrira izaten da.**

Herri batetik bestera eta autobidera irten barik egiten diren zatietan komeni da pisu txikiko autoak izatea, eta ez du garrantzirik izaten aerodinamikak. Bestalde, autobidera asko irtenez gero, adibidez, Araba aldera, aerodinamikak zerikusi handia dauka. Izan ere, kasu horietan erresistentzia haizea izaten da.

**Autoaren arabera kontsumoa murritz dezakegu, hortaz?**

Hori da. Gidariaren poltsikorako murrizketa izan daiteke ia %20koa. Guk ikastaroa egiten dugunean, lehenengo teoria ematen dugu eta gero praktika. Saio praktikoak egiten ditugunean, nork bere erara gidatzen du lehenengo, eta gero, ikastaroan eman diren arau teorikoaren arabera. Arau horiek guztiak ezartzen badira aurrez daiteke %15 eta %18 bitartean. Adibidez, lehenengo 10 kilometroko ibilbide bat egiten da, eta hor gastatu baldin badira 5,5 litro inguru, bigarren itzulia egiten denean 4,5era jaits daiteke kontsumoa.

**Posible da gidatzeko era hain denbora laburrean aldatzea? Izan ere, gidatzeko era, askotan, oso mekanikoa izaten da.**

Bai, guk ikastaroa ematen dugu, eta gero, ikasitakoa praktikan jarri behar du auto gidariak. Ohiturak hartzea izaten da kontua. Hortik aurrera, hori aurreztuko du, %15 inguru. Ikastaroarekin bakarrik. Beste kontu batzuk hartuta, %20raino ere irits daiteke.

**Herritarren artean badago gaiarekiko interesik?**

Jendeak ez du uste horrenbeste aurrez daitekeenik. Lehenengo itzulian era normalean gidatzen dute; eta bigarren itzulian, ikusten dutenean beste modu batera gidatuta zenbat aurrez daitekeen, orduan konturatzen dira garrantziaz. Arau horiek zorrotz beteta, gidatzeko eran %20 aurrez daiteke.

**Balaztatzeko moduak eragina dauka autoaren energia aurrezteko orduan?**

Bai, balaztatzeko moduak eragin dezake, baina horrek baino garrantzi handiagoa daukate beste kontu batzuek: martxa luzeak eramatea komeni da, azkar aldatu behar dira martxak eta batzuetan martxak salto ere egin daitezke; adibidez, hirugarrenetik bosgarrenera pasatu. Hori da kontuan hartu behar dena.

**Erregai kopurua aurrezteaz aparte, autoaren bizi iraupena ere luzatzen da arau horiekin?**

Bai, hori ere eragin dezake kasu batzuetan. Baina gehien kontuan hartzen dena aurrezten den energia kopurua da: bai gidariak bere poltsikorako aurrezten duena, baina baita orokorrean zer dakarren gidari bakoitzak %20 aurreztea ere. Energia gutxiago kontsumitzen da Euskal Herrian orokorrean, eta kontaminazio efektua ere askoz ere txikiagoa da. Alde horretatik, Jaurlaritzak apustu gogorra egiten du gidatze eraginkorraren alde, orokorrean erregai asko aurreratzen delako.




Marisa Fernandez de Arroiabe eskoriatzarra Solozabal autoeskolako autoarekin. | ARANTZAZU EZKIBEL

> **"Herri barruko bidaietan pisu gutxiko autoa erabili behar da"**

> **"Martxa luzeak eramatea komeni da eta martxak azkar aldatzea"**

## ZABALIK

**JULEN ARRIOLABENGOA**
http://goiena.net/iritzia/



# Itsukeria

Hondarribiko Udalak igaro berri diren jaiei buruzko balantzea kaleratu du *Jai parte-hartzaileen balantze positiboa egiten du udalak* izenburupeko prentsa ohar baten bidez. Aski azterketa zehatza egiten du bertan jaietan izandako ospakizunez, jendearen joan-etorriez eta abarrez. Baina, harrigarriki, ez du hitz bat bera ere esaten irailaren 8ko arratsaldeko Alardean Jaizkibel konpainia Kale Nagusian gora zihoala gertatutakoaz. Udal Gobernuak ezikusiarena egiten du berriz ere muturren aurrean duen arazo larri eta latz baten aurrean.

Hedabideek mundu osoan zehar zabaldu dute istilu horien berri, jende anitzek ikusi ditu irudiak: emakumez, gizonez eta haurrez osatutako talde bat, euren jai kutunena ospatzeko asmoz kalea zeharkatzen ari delarik, espaloietatik, plastiko beltz baten atzean ezkutaturik dauden beste emakume eta gizon batzuen oihuak eta irainak entzun behar dituzte, baita mehatxuak ere. Bidea oztopatzen diete bortitzkeriaz, bultzadak emanez… eta ertzainak ere oldartzen zaizkie, berez eurak defenditzeko badaude ere.

> **"Zail gertatzen da azalpenik ez duena azaltzea, ulertu ezin dena ulertaraztea"**

Hondarribitik kanpo galdetzen zaigunean zail gertatzen da azalpenik ez duena azaltzea, ulertu ezin dena ulertaraztea. Izan ere, bizikidetza arazo larria du Hondarribiak. Errealitate gordin horren aurrean begiak estaltzeak ez dio bat ere onik egiten herriari, are gehiago, Udal Gobernuaren jarrera horrekin jokabide matxistei hauspoa ematen zaiela esango nuke. Irainari eta intolerantzia erakusten duen adierazpen orori, baita kareta edo plastiko atzean ezkutatzen denari, aurre egin behar dio gizarteak, instituzio demokratikoak aurrean direla.

Lan handia dugu hondarribiarrok tolerantzia eta errespetuzko baloreak zabaltzen, batez ere gure gazteen artean. Eta lan hori Udal Gobernuak bideratu behar luke, eskoletan, auzo elkarteetan eta abarretan kontzientziatze kanpaina bati ekinez.

## USTEAK USTE

**INAZIO ARREGI** | iarregi@goiena.com

# Catalunyako tsunamia

Catalunyak agertutako independentzia egarriari konstituzioarekin erantzun behar omen diote Espainiatik. Edota Europatik kanporatzeko zigor biblikoarekin, Adan eta Eba independentziaren sagarra jan eta paradisutik kanporatuak izan ziren bezala, Eurotik kanpo basamortua baino ez balego bezala. Lehenengo debekatuaz, eta hori nahikoa ez bada Europatik egotziaz. Ederki asko bizi dira batzuk eurotik kanpo!

Europan estatu mordo baten sorrera ikusi dugu azken urteotan. Eskoziara ere zabaldu da eztabaida. Hemen tabu da. Nahiago dute arazo larri batekin bizi izaten jarraitu beste 500 urtean, gauzak era baketsuan konpondu baino. Horrela gabiltza gero!

## KALE INKESTA

# Martxan da gripearen aurka txertatzeko kanpaina. Txertoa hartzearen aldekoa zara? Igarri duzu eragina?



**ENKARNI AMOROS**
ARRASATE

"Nik ez dut ohiturarik; baina senarra diabetikoa da eta, medikuak esanda, beti hartzen du gripearen aurkako txertoa".



**PILAR MENDIARATZ**
ARRASATE

"Badaezpada urtero hartzen dut txertoa. Izan ere, gripea harrapatzen badut ahulagoa izaten da. Igartzen dut efektua".



**LUCIANO TENA**
ARRASATE

"Txertoa hartzen dut. Hala ere, batzuetan sekulako marranta harrapatu dut; bestetan ahulagoa da, ordea".



**JOSE LUIS EZKURRA**
ARRASATE

"Hartu berri dut aurtengo txertoa. Medikuak gomendatuta, adinagatik hartzen dut. Orain arte ez dut ezer harrapatu".

## HANDIK ETA HEMENDIK

# Transgenikoak eta lerratutako ikerlanak

**Unai Brea**
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Gilles-Éric Séralini biologoak zuzendutako ikerketa baten ondorioa da Monsanto konpainiaren arto transgenikoz elikatutako arratoiek hilkortasun-tasa eta tumoreak garatzeko probabilitate handia zeukatela. Egundokoa izango da, datozen egunetan, ikerketaren balioa (eta Séraliniren beraren gaitasuna) gutxiesteko kanpaina. Biologo frantsesarentzat ez da gauza berria izango; urte batzuk dira transgenikoen arriskuez ohartarazten dabilela, eta jipoiak jasaten ohituta egongo da honezkero.

Dagoeneko ikerketaren aurreko lehen erreakzioak irakurri ahal izan ditugu, besteak beste *El País* egunkari espainiarrak argitaratutako artikulu baten bitartez. Batzuek lerratuta egotea leporatzen diote Séraliniri. […]

Zentzuzkoagoa iruditzen zait Mari Carmen Jaizme-Vega biologo kanariarrak elkarrizketa honetan esan zuena: ikerketa oro dago lerratuta, hipotesi batetik abiarazten den heinean, eta hipotesi horren izaera ikerketaren egileak aurrez duen pentsamoldearen araberakoa izango da. Horregatik, Jaizme-Vegak ez du aurreiritzirik ez transgenikoen aldeko ez aurkako emaitzak dituzten esperimentuez. Kontrakoa frogatu bitartean, ez dago arrazoirik ez batzuk ez besteak txarto eginda daudela pentsatzeko. Baina hasierako hipotesiak emaitza baldintzatuko du. Transgenikoen kalteak frogatzeko asmoa baduzu, seguruenik hala egingo duzu… eta alderantziz ere bai. Arazoa da lehen multzoko ikerketa lanak askoz gutxiago direla, eta giroak (eta diruaren fluxuak, esan gabe doa) ez duela beren-beregi ikerketa-lerro hori jorratzera animatzen. Ez dago, edo nik behintzat ez daukat gogoan, transgenikoen arriskuez ohartarazi eta gero bere ospea zikinduta ikusi ez duen zientzialaririk. Marie-Monique Robinen *Le monde selon Monsanto* liburuan adibide ugari aurkituko dituzu, Séralinirenaz gain.

Árpád Pusztai biokimikariaren kasua bitxiagoa da: transgenikoak seguruak direla frogatzeko esperimentua abiatu eta hara non emaitzek kontrakoa erakutsi zioten. Duela ez hainbeste idatzi nuen artikulu honetan, Pusztairi buruzko bideo bat jarri nuen (*Le monde selon Monsanto* dokumentaletik hartua hain zuzen). Bertan, Hungarian jaiotako zientzialariak kontatzen du nola zapuztu zen bere karrera Monsantok jotako doinuaren arabera ez dantzatzeagatik (*El País*-entzat, hala ere, Séraliniren azkeneko hau izan da labore transgenikoen arrisku erreal bat agerian utzi duen lehenengoa).

Berriz ere Jaizme-Vegaren hitzak gogora ekarriz, ikerlan bakoitzaren emaitza oso lotuta dago ikerlan horren baldintzekin. Esperimentu baten arabera honako edo harako produktu transgenikoa segurua bada, seguruenik hala izango da esperimentu horren baldintzak betetzen diren kasu guztietarako. Baina arriskua agerian utzi duten ikerlan nahikoa daukagu honezkero mahai gainean; zuhurtzia printzipioari men eginez, itxura osoz Frantziak hartuko duen jarrerak dirudi zentzuzkoena.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko ediozio arduraduna** Goiatz Arana
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04
**ISSN:** 2173-707X
**Tirada:** 5.000 ale
**Difusioa:** 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



YERA SANCHEZ

UDAKO ARGAZKIEN VIII. GOIENA LEHIAKETA

# Aukeratu zure argazki gustokoena eta irabazi

otar eder bat munduko kafe ezberdinekin

Eman botoa: *goiena.net/blogak/argazkiak* irailaren 18tik 26ra

Jarraitu gaitzazu: udakoargazkiak udakoargazkiak



**Saria**

Eman zure botoa eta irabazi otar eder bat munduko kafe ezberdinekin Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

kb photoestudio www.kbphotoestudio.com
Canon
ARRASATE BIDAIAK
GURE AMETSA JATETXEA
aisia HOTELES
karibu munduko zaporeak karibumundukosaporeak.com

HERRIAK

ARAMAIO

# Urrezko Zeledoiaren ereserkia konposatu du Sabin Salaberrik

## Gasteizko Musika Bandak eta Samaniego Abesbatzak interpretatu dute Principalen

OIHANA ELORTZA | ARAMAIO

Konpositorea da Sabin Salaberri aramaioarra. Gaztetatik dago musikari lotuta eta sarri izan da albiste musika egiteagatik zein sariak jasotzeagatik. Beste obra bat egin duelako da orain albiste Sabin Salaberri. Gasteizko Urrezko Zeledoiaren ereserkia egiteagatik, hain zuzen ere.

Hilabete honetan estreinatu zuten ereserki hori, hilaren 14an, Gasteizko Principal Antzokian. Salaberrik berak zuzendu zuen Gasteizko Udal Musika Bandak eta Samaniego Abesbatzak interpretatutako obra.

**50. urteurrenean**

Urrezko Zeledoia saria duela mende erdi sortu zuten, Gasteizen aldeko jardunean gehien nabarmendutako pertsona edo erakundeari modu sinbolikoan eskerrak emateko. "Asmoa zegoen sari horri ereserki bat egiteko eta aurtengo urteurrena proiektu hori gauzatzeko aitzaki ona zela iruditu zitzaigun. Petsatu eta egin", dio Sabin Salaberrik.

Ideia beraz, lehendik zetorren eta 50. urteurrenaren harira, gauzatzen hasi ziren. "Lehendabiziko pausua izan da letra idaztea. Cayo Vera-Murgia idazleak egin du. Berak idatzitakoa hartu, eta musika jartzen hasi nintzen ni." azaldu du Salaberrik.



Sabin Salabarri konpositorea. | GOIENA

**Dagokionari moldatuta**

Aurkezpena eginda dago, baina obra bera bukatu gabe, osatu gabe, dagoela dio konpositore aramaioarrak. "Gasteizko Udal Musika Bandarendako eta abesbatzarendako moduko obra eginda dago, bai, baina guztiak elkartuta lagun asko dira eta zaila da lagun guzti horiek elkartu eta noiz edo noiz han edo hemen berriro obra bera interpretatzea. Horregatik, talde txikiagoek ere interpreatzeko moduko bertsioak, moldaketak, egiten ari naiz. Adibidez, orain txistu bandak jo ahal izateko moduko pieza egiten ari naiz, pozik".

Eta egia da pozik dagoela. Obra berriaren inguruan berba egiteko telefonoz deitu genionean, orain arte egindako lanari *play* eman eta modu horretan erakutsi zigun esku artean duen proiektu horren aurrerapena. "Txistulariek eta abesbatzak elkarrekin interpretatzeko moduko bertsioa ere egin dut".

**Gasteizko jaietan ere bai**

Urrezko Zeledoiari egindako ereserkia Salaberrik konposatutako azken obra da, baina uda honetan bertan beste lan bat estreinatu Uzuen herritarren aurrean, Gasteizko jaietan, hain zuzen. "Abesti herrikoi bat egin nuen jaietarako, herritarrek gozatzeko, kalean entzuteko".

### Urrezko Zeledoiaren ereserkiaren letra

**Eresekia euskaraz egotea ere gura du Salaberrik, eta bere lagun Jose Mª Velez de Mendizabalek egin du letraren itzulpena.**

*Gure aiton-amonak hiria sortzen aritu ziren.*
*Eurek ere elkargorako bidea markatu zuten.*
*Haien oinordeko eta altxor zaintzaile gara egunero.*
*Hona hemen gu, Urrezko Zeledoiak gaituzunez gero.*

*Pentsa dezagun elkarrekin, utzi biribilketa!*
*Lur azpian bilatu behar ditugu erroak, poeta.*
*Pasiozko gaia dugu, soseguz erabiltzekoa.*
*Jai-zurrunbiloaren ostean, non daukagu gogoa?*

*Zaratan galtzea baino banaka pentsatzea hobe.*
*Urrezko Zeledoiak, nolako erantzuleak ote?*

Jose Mª Velez de Mendizabal

**Urrezko Zeledoi da Salaberri**

Gasteize hiriaren alde jarduten dutenei ematen diete Urrezko Zeledoia eta Sabin Salaberrik ere jaso du. 2005. urtea jaso zuen. Orain estreinatu duten ereserkirako letra egin duenak ere, Cayo Vera-Murgia, badu sari hori. Obra aurkeztu zuten ekitaldian, joan den urteko edizioaren ospakizunean, Gasteizko hiritarrak izan dira sarituak. Horretarako arrazoien artea, besteak beste, inor gai izan bada Gasteiz aurreratu eta aurrerakoi bat egiteko, bertako hiritarrak izan direla esan zuten ekitaldi horretan, Jose Mª Velez de Mendizabalek bere blogean kontatzen duen moduan. "Horregatik, Sabinek gogoatzen zuenez, orain 243.000 lagunek daukate eskubide zuzena berak sortutakoa interpretatzeko", jaso du Velez de Mendizabalek.

Sabin Salaberrik, baina, sari eta apaimen berezi asko jaso ditu gaur arte. "Urrezko Zeledoi saria bera, ez da Nobel saria, baina ilusioa egin zidan eman zidatenean, eskertzekoa baita norbaitek pentsatzea zuk egindako lana balekoa dela". Jasotako sarien eta aipamenen artean daude, adibidez: 1999 urtean Aramaiok seme kuttun izendatzea, Eusko Ikaskuntzako eta Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kide izatea, San Fernandoko Arte Ederren akademiako kide edo Arabako Abesbatzeko zuzendari zenean emandako Landazuri saria. Berak baina, bat gogoratzen du berezi-ki: Euko Ikaskuntzak emandako Manuel Lekuona saria.

### Seme-alaba kuttunak

**SABIN SALABERRI**
Ibarran jaioa. Gaztetatik dago musikari lotuta. Batetik, konposatu egiten du eta lotura handia du abesbatzekin; bestetik, musika irakaslea ere bada.

**JOSE Mª VELEZ DE MENDIZABAL**
Euskal Idazleen Elkarteko sortzaile eta Euskaltzain Urgazle, besteak beste. Kulturari eta euskarari lotuta beti.

**JESUS Mª ELEJALDE**
Salturralde baserrian jaioa. Lehen urteak Aramaion egin zituen apaiz eta gero Amerikara joan zen. Bueltan, erretore aritu zen.

**PATXI URIBARREN**
Uribarren baserrian jaio den karmeldarra. 'Aramaioko toponimia' tesia egin zuen. Sariak jaso ditu bere lanengatik.

**MARIANO ERRASTI**
Azkoaga auzoko Induspe baserrian jaioa. Bizitzako urterik gehienak herritik urrun egin ditu. Misiolaria, frantziskotarra eta poeta.

**MAIDER UNDA**
Oletako Atxeta baserrikoa. 13 aldiz Espainiako txapelduna borroka librean, eta brontzea Londresko Joko Olinpiarretan.



Alustiza, Miura eta Jauregi podiumean. | JOSETXO ARANTZABAL

OÑATI

# Alustizak eta 'Ttiki'-k jantzi dute txapela hirugarrenez Oñatin

Jesus Mari Plazaola arrasatearrak ezin izan du falta zitzaion garaipena eskuratu 'Gure' txakurraz

MAIDER ARREGI | OÑATI

Aresoko Antonio Alustizak –Nafarroako txapeldunak– *Ttiki*-ren laguntzarekin egin du aurtengoan ere lanik txukunena epaileen ustez, 320,5 punturekin. Hala, hirugarrenez jantzi du txapela Oñatiko Nazioarteko Artzain Txakur txapelketan. Bigarrenak, aldiz, Behenafarroako Juan Miura eta *Izar*, (316,5). Gutxigatik hirugarrenak eta, ikusle askorendako irabazleak, Jose Mari Jauregi eta *Leze*, (316). *Leze*-rendako izan zen, hain justu, Euskal txakur arraza onenaren saria.

**Bigarren ariketan, borobil**

Antonio Alustiza, Juan Miura, Jose Mari Jauregi eta Gilles Etchegoyen pasa ziren bigarren fasera. Ia akatsik gabeko ariketa egin zuten. Lau txakurrek kalitatez, azkar, txukun eta inolako zalantza gabe lan egin zuten. Etchegoyenen *Biba*-k, izan ezik, beste hirurek sartu zituzten ardiak eskortan. Artalde bana izan zuten txakurrekin lan egiteko.

**ANTONIO ALUSTIZA**
TXAPELDUNA

## "Meritua dauka euskal arrazako txakurrak irabazteak"


JOSETXO ARANTZABAL

**Espero zenuen?**
Egia esan ez, maila altua egoteaz gain, ardiak euren tokirako tendentzia zuten. Meritua dauka euskal arrazako txakurrak hemen irabazteak.

**Errekorra hautsiko duzu?**
*Ttiki*–rekin ez dut uste; 9 urte dauzka, batzutan ez du entzuten eta nekatu egiten da. *Bizkor*–ek bost txapel jantzi zituen; ez da posible izango *Ttiki*–rekin errekorra haustea.

**Erreleboa noizko?**
*Bat* prestatzen ari naiz; datorren urtean aukera badago ekarriko dut. *Ttiki*–ren alaba da, hiru urtekoa; hasiak gaude lanean dagoeneko. *Ttiki*–k hiru txapel Oñatikoan, zazpi Nafarroakoan eta bat Euskal Herrikoan atera ditu; palmares ona du erretiroa hartzeko.



**AIMAR**
OÑATI

"Pottokek ez didate beldurrik ematen eta gustura ibili naiz gainean. Ardiak ikustera ere urtero etortzen naiz".



**BEÑAT, EKAIN ETA JULEN**
OÑATI

"Pottokak San Martinera ekartzea ideia oso ona da. Hiru pottoka beltz jarri dituzte eta txandaka ibiltzen dira umeekin. Gure txanda oraindik ez da iritsi baina zain gaude ilaran. Pottokek ez digute bat ere beldurrik ematen, oso mantsoak eta politak dira".



**MARTIN ETA MARI ANGELES**
NAFARROA

"Batzutan etorri izan gara txapelketa ikustera. Nafarroatik gatoz eta gure faboritoa, noski, Alustiza nafarra da. Iaz ere berak irabazi zuen eta aurten bide oso onean doa. Maila oso ona dago, hoberenak etortzen dira–eta Oñatiko Txapelketara".

OÑATI

# Haurren danborradak San Migel jaietarako motorrak berotu ditu asteburuan

M.A. | OÑATI

30. urteurrena indartsu ospatu du Oñatiko haurren danborradak. 150 gaztetxo inguruk kolorez eta alaitasunez jantzi dituzte herriko kaleak. Baina ez da hori urteurrenak ekarri duen nobedade bakarra, ohiko ibilbidea hasi aurretik, zaharren egoitzara joan ziren-eta bisita egitera. Bertan egoiliarrak festa giroan sartu zituzten. 17:00etan joan ziren gaztetxoak bisitan eta ordubete geroago, 18:00etan, danborradari ekin zioten, Santa Marinatik abiatuta.

**Aire librean egindako lanak**

25 margolarik hartu dute parte X. Aire Libreko Margo lehiaketan. 16 urtetik beherakoen artean, Magdi Altolagirreren lana saritu zuten; helduen mailan, Fernando Ureta arabarra. Margo denak ikusgai izango dira kultura etxean.


Egoiliarrek pozik jaso zuten danbor jotzaileen bisita. | ANABEL DOMINGUEZ


Beroari aurre eginez, neskak gogotsu aritu ziren danborra jotzen. | A.D.


Margolariek herritar ugariren arreta piztu dute. | JOSETXO ARANTZABAL

IRUDI SPORT
Zure Kirol Zentrua
Urritik aurrera
Aste bukaeretan ere ZABALIK!
ordutegi berria!
Astelehenetik ostiralera: 07:30 – 22:00
Zapatuetan: 10:00 – 13:00 / 16:00 – 20:00
Domeketan: 10:00 – 14:00
Uarkape 2, behea - ARRASATE - Tel.: 943 77 20 87
www.irudisport.com

ARAMAIO

# Euskarak eta sagardoak bat egin zuten Txirritola Egunean

Maider Unda borrokalari oletarrak egin zuen lehen txotxa, Udalaren omenaldia jaso eta gero

**GOIATZ ARANA** | ARAMAIO

Giro aparta izan zuten Aramaion atzo, Txirritola Egunez; trikitilarien lehen doinuekin eta sagar zuku usainarekin motorrak berotuta, ospakizunean buru belarri sartu ziren herritarrak.

Olinpiar Jokoetan egindako lanagatik Udalak Maider Unda omendu behar zuela aprobetxatuz, Oletakoa izan zen lehen txotxa egiteko ohorea izan zuena ere: "Goxoa dago", esan zuen tragoxka egin eta gero. Herriko alkatearen eta Uribarren-Iturrieta zinegotziaren eskutik, lorez betetako otarra eta koadroa jaso zituen aurretik: *Ze opari, ze oparo, ia ezin da gorago! Londres txundituz zeharo. Aramaioko herria Maider zutaz oso harro dago, egindakoak balio baitu urreak baino gehiago!* zioen bertan, eta bi dantzarik aurreskua dantzatu zioten. Nahi izanez gero lortzea posible dela erakutsi duela esan zien herritarrei eta eurak ere animatzeko.

**Arrakastatsua**

Aramaioarrek sagardoa eta egun bertako sagar zukua dastatzeko aukera izan zuten, eta talo eta pintxoetatik ere gustura aritu ziren, agortu ziren arte. Txirritola elkartetik balorazio oso ona egin dute, jende asko eta jai-giro polita izan zutela azpimarratuz.



Sagardo tragoa primeran sartzen zen eguerdi sargorian. | JOSETXO ARANTZABAL



Talogileak buru-belarri, eskaerari aurre egin ezinik ia. | J.A.

**MAIDER UNDA**
BORROKALARIA

## "Euskarak ez dit inoiz faenarik egin; askotan lagundu baizik"



G.A.

Txirritola Egunean Udalaren omenaldia jasota, posible duen heinean, euskara eguneroko hizkuntza izan dadin ahalegintzen dela kontatu zigun Undak.

**Nola hartu duzu omenaldia?**

Oso ondo. Halakoetara ohituta nagoela dirudien arren, gustura hartzen da hurbilen duzun jendearengandik datorrenean gehienbat.

**Txirritola Egunean egin izanak balio erantsia ematen dio?**

Bai, batez ere, euskalduna naizelako, euskara gustatzen zaidalako eta saiatzen naizelako garrantzia ematen.

**Brontzeak "faena" egin zizun; eta euskarak?**

{Barreak} Alderantziz; euskarak asko lagundu dit.

**Sagardozalea zara?**

Ez oso, baina uda partean gustura edaten dut.

ESKORIATZA

# Garagardo feria urtero eginda ere txarto ez, herritarrak gertu daude!

**G.A.** | ESKORIATZA

Eskoriatzan egiten den lehen garagardo feria izan da asteburu honetakoa, baina nola joan den ikusirik oso litekeena da azkena ez izatea. Antolakuntzatik balorazio positiboa egin dute: "Jende asko ibili da eta denetarikoa, gainera: gazte, heldu eta nagusi; euskaldun eta ez euskaldun;... eta bereziki azpimarratzekoa da herriko elkarteetako kideek nahiz norbanakoek egindako lana, borondatezko lana".

Eguenetik domekara, egunero, joan da aitzakiarik gabe: bariku gaueko kontzertuekin giro ona egon zen, adibidez, eta zapatu gaua ere mugimendu handikoa izan zen, sukaldariak topera ibiltzerainokoa. Ah, garagardo arrakastatsuena: Paulaner gariduna.



Momentu askotan topera egon da plazan ipinitako karparen barruko aldea. | JOSETXO ARANTZABAL



**JON IBABE**
ESKORIATZA

"Ari gara aprobetxatzen: ia egunero etorri gara eta gaur bertan afalduko dugu seguruenik. Ondo iruditzen zait batutako dirua zaharren egoitzarentzako izatea; zuloa estaltzen laguntzen badu, ondo deritzot".



**DAVID GARCIA**
ESKORIATZA

"Aurreko egunetan barraren kanpoko aldean ibili naiz eta gaur –zapatua– lanean nabil. Nahiko ondo ari gara moldatzen, baina une batzutan larri samar ibili gara! Jendeak Paulaner gariduna eskatzen du gehien".



**MARIA CLARA, LUISA ETA ANGELICA AXPE**
ARETXABALETA

"Ahizpak gara hirurak, aretxabaletarrak izatez, baina gutako bat Eskoriatzan bizi dela aprobetxatuz animatu egin gara. Garagardoa edateko ohiturarik ez dugu, baina horretan ere ari gara, apur bat bada ere; erraz sartzen gara anbientean! Ukondoa eta saltxitxak jan ditugu eta, beraz, etxera joandakoan afaria prestatzen lanik ez dugu izango gaur. Oso goxoa zegoen dena eta giroa oso jatorra".



**IRAITZ PRIETO ETA MAITE BERMEJO**
ESKORIATZA

"Eguenean hasita, ia nahikoa egin dugu dagoeneko!" zioten argazkiko neskek. Barikuan bertan afaldu zutela kontatu ziguten, baina ez zitzaiela hainbeste gustatu eta zapatuan ez zirela bertan geratuko. Eurek espero baino jende gehiago zebilela azaldu ziguten eta datorren urtean errepikatzeko prest leudekeela.

ELGETA

# Errekorrik ez Intxortako igoeran baina giro aparta azoka inguruan

## Patata tortilla lehiaketak arrakasta izan zuen eta 21 taldek hartu zuten parte

MIRARI ALTUBE | ELGETA

Baserritarren azoka zela, Intxortako igoera zela, aparteko jai giroa sortu zen zapatu goizean plaza inguruan. Garaiko produkturik onenak ekarri zituzten baserritarrek eta 12 postu jarri; umeek, ostera, bost txorimalo egin zituzten.

Eguerdian jokatu zuten Intxortako igoera lau korrikalarik, eta Iñaki Egizabal izan zen irabazlea (17 minutu eta 42 segundu). Hiru segundugatik ez zuen lortu gainditzea Jose Mari Arotzenak 1989an ezarritako errekorra. Bigarrena izan zen Txema Cot (22 minutu); hirugarrena, Iñaki Beristain (23,38 minutu); eta laugarrena, azken horren aita, Jesus Mari Beristain (25,33 minutu). Azkena bai, baina animoso sartu zen besoak zabal-zabal eginda.

### Ahior taldeak tortilla onena

Arratsaldean patata tortilla lehiaketa jokatu zuten eta 21 talde elkartu ziren. Nahikoa lan izan zuten epaimahaiko kideek; hiru sari banatu zituzten: Ahior taldeak jaso zuen sari nagusia; Bobaloo taldeak originalenarena; eta Millonarixuak, galtzailearena.



Epaimahaiko kideak lehiaketako tortillak probatzen. | LARRAITZ ZEBERIO



Elgeta inguruan jasotako sendabelarrak erakusten azokan. | M.A.



Lau lasterkariak irteteko gertu: T. Cot; I. eta J.M. Beristain; eta I. Egizabal. | M.A.

ARRASATE

# Arrakasta handia izan du beste behin birzikleta azokak bizikleten erdiak salduta

## Atzo Eskoriatzara egindako bizikleta biran jende mordoa elkartu zen

M.A. | ARRASATE

Atzo, domeka, eman zioten bukaera Mugikortasun Asteari Arrasatetik Eskoriatzako plazaraino egindako bizikleta birarekin. Txiki, gazte eta heldu, herritar mordoa elkartu zen Seber Altube plazan eta begiraleak lagun hartuta egin zuten ibilbide guztia.

Zapatuan, ostera, aurreko urteetan harrera bikaina izan duen birzikleta azoka egin zuten, beste behin ere arrakasta handiarekin. Bizikletek sortu zuten ikusmina eta azoka zabaldu zenerako jende mordoxka zegoen elkartuta; zozketak ere egin behar izan zituzten, zazpi hain zuzen, batek baino gehiagok erosi gura zuelako berbera. Azokan jarritako bizikleten erdiak baino gehiago saldu zituzten, gehienek prezio bikaina zuten-eta. Patinak eta patineteak, ostera, gutxiago izan ziren.

### Bizikleta eta auto elektrikoak

Azoka egin bitartean, segway ibilgailuak, eta bizikleta eta auto elektrikoak probatzeko aukera izan zuten herritarrek Biteri plazan. Eta halako aukera ondo aprobetxatzen jakin zuten batzuek behin eta berriz ibilita.



Txirrindulari txiki, gazte eta helduak ibilbidea hasten. | JOSETXO ARANTZABAL



Birzikleta azokan salgai jarritako bizikletei begira herritarrak. | J.A.




• **EUSKALDUNTZEA**
(5 / 10 ordu astean, erreleboak)
• B1 maila edo 1. perfila; erabiltzaile autonomoa.
• B2 maila edo 2. perfila; erabiltzaile gaitua.

• **MINTZA-TALDEAK** (5 ordu astean)
• Astean 2 egun ahoz hobetzeko eta soltatzeko.

• **AUTOIKASKUNTZA** (190 ordu)
• Programazio pertsonala etxerako + tutoretzak + mintza-saioak.

• **C1 MAILA / 3. MAILA / EGA**
(5 ordu astean)
• Astean 2 egun azterketa ofizialak prestatzeko.

• **C2 MAILA / 4. MAILA-PERFILA**
(6 ordu astean)
• Astean 2 egun + etxerako lanak + proiektua + tutoretzak. (180 ordu).

*Bekak Arrasateko Udalaren laguntzaz!*

DEBAGOIENEKO AEK EUSKALTEGIA
ARRASATE
aek
Garibai 14, Arrasate 943 77 03 69 • arrasate@aek.org

**MATRIKULA zabalik**
2012-09-28ra arte
Goizez, 11:00etatik 13:00etara.
Arratsaldez, 18:00etatik 20:00etara

# Maritxu Kajoi: krisiak jota eta nobedade barik aurten, baina ohi bezain dotore

## Jatetxeetan igarri da krisia: ohi baino leku gehiago dago libre; egitarauan, nobedaderik ez

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Ate joka dugu Maritxu Kajoi. Gero eta gutxiago falta da arrasatearren ama birjinik kuttunenaren egunerako, urteko egunik dotoreenerako. Komisiñoa eta herriko hainbat talde lanean dabiltza buru-belarri; Txosna batzordeak, adibidez, txandak betetzeko dei egin die gazte arrasatearrei. Izena eman daiteke Iluntz eta Irati tabernetan.

Komisiñoak aurreratu digu aurten ez dela nobedaderik egongo. Iaz Never Surrender taldeak egindako *MKJ Kantue* izan zen berritasun nagusia eta aurten kantua berreskuratu eta zabaltzeko asmoa dute.

**Jatetxeak, prezioari begira**

Krisiak eztanda egin zuenetik laugarren Maritxu Kajoi izango da aurtengoa. Eta lasai asko esan dezakegu 2012ko edizioan bereziki igarriko direla krisiaren ondorioak.

Jatetxeak dira termometro ona; askotan esan digute azken urteetan asko jaitsi dela eskaria. Atzean geratu da azken orduan mahaia lortzea ezinezkoa bihurtu zen garaia: "Azken lau urteetan bereziki asko jaitsi da eskaria, oso baxu dabil", adierazi digute Sara merenderuan. Horregatik *Merkaldi.com* ekimenarekin bat egin dute: "Duela gutxi enteratu ginen deskontuak egiten dituen webgune bat zegoela eta ekimenarekin bat egitea erabaki genuen". Hala, 43 euroko menuari %35eko beherapena egin eta 28 eurotan emango dute bazkaltzen. Afaria ere prezio berean eta gainera, autobus zerbitzua jarriko dute Garibain, 21:00etatik 01:00etara. Beste hainbat jatetxek ere urteroko menuaren prezioa jaitsi dute Maritxu Kajoi egunerako.

**Estetikan ere beherapenak**

Jantzietan ere eragina izango du krisiak. Amaia Albes diseinatzaileak diosku zenbait dei jaso dituela jantzi berria erostea ekiditeko: "Hainbat lagun etorri zaizkit esanez iaz dirutza gastatu zutela jantzian eta aurten ez dutela berria erosi nahi. Soinekoaren arabera, aldaketa txiki batzuk eginda berria dela dirudi". Norberaren aurrekontura moldatzen da Albes, argi duelako: "Dotoretasunak ez du preziorik".



Jon Zubiaga *Osoron* Bartoloren paperean, iazko mirarian. | JOSETXO ARANTZABAL

### LEKUA DUTEN JATETXEAK

**Txondorra erretegia**
Bazkaria: 40 lagunendako
Afaria: 40 lagunendako
Bi menu, 36 € eta 50 €

**Santa Ana hotela**
Bazkaria: Dena beteta
Afaria: 70 lagunendako
Bi menu, 30 € eta 40 €

**Aldape jatetxea**
Bazkaria: Dena beteta
Afaria: 10 lagunendako
Menua: 38 €, baina aldatu eta prezioa jaisteko aukera

**Errastiko jatetxea**
Bazkaria: 15 lagunendako
Afaria: 60 lagunendako
Menua: 30 €

**Hilarion jatetxea**
Bazkaria: Dena beteta
Afaria: Bost lagunendako
35€, afariko menua

**Larrinetxe jatetxea**
Bazkaria: 35-40 lagunendako
Afaria: 50 lagunendako
Menua: 33€ (Kartatik aukera daiteke)

**Kanpazar jatetxea**
Bazkaria: Dena beteta
Afaria: 20 lagunendako
Menua: 40 €

**Kataide jatetxea**
Bazkaria: Lekua soberan
Afaria: Lekua soberan
Menua: 25€

**Gaindegi jatetxea**
Bazkaria: Dena beteta
Afaria: 30 lagunendako
Menua: 30€

**Sara merenderua**
Bazkaria: Lekua soberan
Afaria: Lekua soberan
Menua: 28 € (Merkaldi.com)

**Ugaran jatetxea**
Bazkaria: 20 lagunendako
Afaria: Konfirmatzeke
Menua: 60 €

**Arteaga jatetxea**
Bazkaria: 50 lagunendako
Afaria: 70 lagunendako
Menua: 36-40 € artean

**Garaia jatetxea**
Bazkaria: Lekua soberan (erreserbarik ezin da egin)
Afaria: Lekua soberan (erreserba egin behar da)
Bazkaltzeko eguneko menua (8,5€) eta afaltzeko 30 €

*Pildain eta Txirrita jatetxeak itxita egongo dira Maritxu Kajoi egunean. Uxarte jatetxean, berriz, urriaren 1etik aurrera har daiteke lekua. Bestalde, goian dituzuen jatetxeetan lekua dago baina datuak egubakoitzean eguneratu ziren azkenengoz. Beraz, aldaketaren bat egon daiteke.

### Hauteskunde mahaietarako zozketa, aurrekontua eta gaixo dauden presoak berbagai bihar, osoko bilkuran

Abuztuko oporraldien osteko lehen osoko bilkura egingo dute bihar (18:00). Urriaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan mahaietan egongo diren herritarrak erabakitzeko zozketa publikoa egingo dute. Horrez gain, ekainaren 30ean 2012ko aurrekontuaren egoeraren berri ere emango dute. Bestalde, Bildu eta Aralar taldeek mozioa aurkeztuko dute gaixorik dauden presoen inguruan.

### Josu Erkoreka EAJko parlamentariak hitzaldia emango du eguenean batzokian, 19:00etan hasita

EAJk hainbat ekintza antolatu ditu Debagoienean datozen egunotarako, besteak beste, hitzaldiak, mahai-inguruak eta herritarren galdera zein erantzunetarako tartea. Arrasaten eguenean, hilak 27, hitzaldia eskainiko du Josu Erkoreka Espainiako Kongresuko EAJren parlamentariak. Batzokian izango da, 19:00etan. Ondoren, pintxo-potea egingo dute batzokian bertan. Jakitera eman dutenez, ateak zabalik daude edonorendako.

### Haur parkeetan zein paperontzietan hobekuntzak, eta Elorregi-Epele arteko bidegorria berbagai Tokikoan

Astero moduan, gaur Tokiko Gobernu batzarrean hainbat gai landuko dituzte. Besteak beste, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoak batzordeak haur parkeetan hobekuntzak egiteko proposamenaren txostena aztertuko du. Era berean, herriko zenbait lekutan egoera txarrean dauden paperontziak aldatzea ere onartuko dute. Bestalde, Hirigintza batzordeak Elorregi-Oñati eta Elorregi-Epele arteko bidegorri zatiaren proiektuaren esleipenaren berri eman behar dute.



JOKIN BEREZIARTUA

### Ludotekak kalera, ate irekietarako

Joan den eguenean Txatxilipurdiren ludoteketako hezitzaileek kaleak hartu zituzten *Txatxikalejira* deitu zuten ekimenean. Helburua zen ludoteken irekiera ospatu, egitasmo horren berrikuntzak azaldu eta kale erabilera bultzatzea. Geldialdi ezberdinak egin zituzten, jolasen bidez euren lana herriari erakusteko. Haur zein guraso, ederto ibili ziren.



UDAL ARTXIBOA

### Portaloian gasolindegia zegoenekoa

Portaloitik igarotzen zen garai batean Madrilerako bidea. Eta bertan, gasolindegi bat egon zen urte luzez, 1940ko hamarkada hasieratik 1970eko hamarkada amaierara arte. Gobernuak estanko eta gasolindegien kontsesioa ematen zien elkarte zein pertsona fisikoei, eta kasu hartan, *Hermandad de los mutilados* deitutakoari eman zitzaion. Elkarteko kide zen Emilio Altuna Mondragonek —ezkerretik lehena— hartu zuen orduan gasolindegiaren ardura, emaztearekin batera. Argazkia 1950ekoa da gutxi gorabehera.

# Atez atekoaren kontrako ahotsak aintzat har ditzaten aldarrikatuz

## Agerraldia egin zuten barikuan Arrasate Garbi eta Stop PaP-ek

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Arrasate Garbi eta Stop PaP plataformek prentsaurrekoa eskaini zuten egubakoitzean, hilak 21, Kultur Aten. Irailaren 6an udal ordezkariekin eginiko bilera baten berri eman zuten Mertxe Trojaolak (Arrasate Garbi) eta Oscar Garciak (Stop PaP).

**Bileraren emaitzak**

Prentsaurrekoan adierazi zutenez, atez ateko bilketaren aurka jasotako 6.686 sinadurek herritarren borondatea adierazten dutela esan zioten alkateari bileran. Iritzi hori aintzat har zezan eskatu zioten, baina alkateak laster hauteskundeak izango direla eta ikusiko dutela erabaki horiek isladarik izango duten erantzun ziela adierazi zuten.

Bestalde, bere garaian atez atekoaren gaineko azterketa ekonomikoa eskatu zutela adierazi zuten Trojaola eta Garciak prentsaurrekoan eta oraindik egin ez izana ere kritikatu zuten Arrasate Garbi eta Stop PaP-eko ordezkariek: "Bideragarritasun planik gabe eta zer nolako tasa kobratzeko asmoa duten jakin gabe erabaki al da sistema bat inposatzea?".

Bestalde, eurak ere "prebentzio, birziklapen eta konpostajearen alde" daudela gogorarazi nahi izan zuten: "Sistemarekin bakarrik ez gaude ados".

**Sinadurak, gora**

Oso larritzat jo zuten "6.686 arrasatearren ahotsa entzun gura ez izatea". "Sinadurak notarioarengana eraman behar dira, eta esandako kopuruak badauka akta notarial baten babesa. Eta poliki -poliki sinadura gehiago jasotzen ari gara. Arazoa da ezin ditugula notarioarengana eraman, diru kontuak tarteko. Itxaroten ari gara, sinadura zifra handitu eta guztiak batera aurkezteko".

**Ibarrera zabaldu guran**

Atez atekoak eskualdeko herri ezberdinei eragingo dienez, etorkizunean ibarrera zabaldu gura dute euren jarduna bi taldeek, indarrak batu eta plataforma bat sortuz: "Hasi gara beste eragile batzuekin harremanetan, baina ez dakigu aurrera irtengo den asmoa".



Garcia eta Trojaola, egubakoitzeko prentsaurrekoan. | ANDER MONEDERO

### Azkarragaurizar: "Udal honek hondakinen bilketa sistema aldatzeko beharra defendatzen du"

Stop PaP eta Arrasate Garbi plataformek aurkeztutako idatziari erantzun dio Arrasateko Udalak, eskutitz batean.

"Hondakinen nahasketan dago muina: hondakinak nahastu edo ez, selektiboki hondakinak kudeatzean edo ez, hortxe dago koska". Premisa horretatik abiatuta, arrazoi ezberdinak ematen ditu biltze sistema aldatzeko: "birziklapen tasa %30etik %80-85 igotzeko asmoa", horien artean. Edukiontzien sistemarekin emaitza "kaskarrak" lortzen direla eta modu "justuago" bat izateko sistema indibiduala izatea eta sortzen den hondakin kopuruagatik ordaintzearen beharra azpimarratzen da erantzunean. Eta bestalde, errauskailurik ez dela behar uste du Udalak.

Horrez gainera, adierazi du ez dagoela sistema txarrik erosotasunari dagokionez, "pertsonaren jokaera eta disposizioa izaten dira txarrak". Intimitate kontuen harira, erantzunean adierazi du hondakin biltzaile-selekzionatzaileaz gainera, ez duela uste inork ikuskaritza lanik egiteko asmoa izango duenik. Eta "Europako herri garatuenetan birziklapen maila altuenak atez ateko sistema dutenetan" ematen direla adierazten du Udalak. Amaitzeko, parte-hartze prozesuan esku hartzera gonbidatzen ditu bi plataformak, esaterako, inpaktu bisuala murrizteko gaia lantzeko. Gakoa hausnarketan dagoela dio.


# Gurasoentzako ikastaroa



## *Gurasotasuna "M"-z idazten: Maitasuna eta Mugak*

**2-12 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzako ikastaroa**

**EDUKIAK**
**1. saioa:** Autoritatea familian eta gizartean: autoritarismotik permisibitatera.
**2. saioa:** Zeintzuk dira guk dauzkagun eskubide eta betebeharrak? Eta gure seme-alabenak?
**3. saioa:** Kontsumismoaren eragina familia-antolamenduan eta seme-alaben osasunean
**4. saioa:** Maitasuna eta autoritatea generoei lotuta: proposamen integratzaile baten bila.
**5. saioa:** Maitasuna eta elkarbizitza: kalitatea eta kantitatearen eztabaida
**6. saioa:** Komunikazio asertiboa eta autokontrola ikasi, erakutsi ahal izateko

**Hasiera:** - Urria bukaeran.
- Astean behin ordu eta erdiko saio bat (guztira 6 saio).
- Ordutegia gehiengoak aukeratutakoa izango da (14:45-16:15 edota 18:00-19:30)
  • 2-6 urte asteartetan.
  • 6-12 urte asteartetan edo ostegunetan.

**Dinamizatzailea:** Erain

**Izen ematea:**
Urriaren 5a baino lehen.
Gizarte Zerbitzuetan edo BAZen.
Tel.: 943 25 20 07
e-posta: *prebentzio@arrasate-mondragon.net*

Antolatzailea:
ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Sukaldaritza begetarianoari buruzko ikastaroetako batean jardundako taldeetako bat. | BIZIKASI

# Bizikasik zenbait ikastaro antolatu ditu urrirako

## Mendekotasuna duten pertsonen zaintza, GPSaren erabilera eta sukaldaritza osasungarria, besteak beste

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA

Beste bost ikastaro antolatu ditu Bizikasik urrirako: mendekotasuna duten pertsona nagusien zaintza, makillajea, sukaldaritza osasungarria, elikagaien manipulatzaile agiria eta GPSaren erabilera eta ordenagailu ikastaroak antolatu ditu.

Mendekotasuna duten pertsona nagusien zaintzari dagokionez, urriaren 10ean, 17an eta 24an izango dira saioak, 18:00etatik 21:00etara, Miguel Altuna institutuan. Gazteleraz izango da ikastaroa eta Bizikasik eta Udalak antolatu dute. Plaza mugatuak direnez, plaza kopurua baino gehiagok izena emanez gero, zozketa egingo da. Izena emateko deitu 943 76 93 94 zenbakira edo idatzi *info@bizikasi.com* helbidera. Prezioa 25 euro da.

**Makillaje ikastaroa**

Makillaje ikastaroak bi saio izango ditu, urriaren 24an eta 31n, eta doako ikastaroa egongo da. 16:00etan edo 18:30ean izango dira saiook, Miguel Altunan, gazteleraz. Ikastaro hori ere Bizikasik eta Udalak antolatu dute elkarlanean, eta, plazak mugatuak direnez, plaza kopurua baino gehiagok izena emanez gero, zozketa egingo da.

Izena emateko deitu 943 76 93 94 telefono zenbakira edo, bestela, idatzi *info@bizikasi.com* helbidera.

**Elikagaiak nola manipulatu**

Urri amaieran emango dute elikagaien manipulatzaile agiria eskuratzeko ikastaroa. 16:00etatik 19:30era izango dira saioak, euskaraz eta gazteleraz. Langileek lehentasuna izango dute eta doakoa izango da, Hobetuzek lagundutakoa delako. Izena emateko deitu 943 76 93 94 zenbakira edo idatzi *info@bizikasi.com*-era.

**Sukaldaritza osasungarria**

Urriaren 29an eta 31n eta azaroaren 5ean eta 7an izango da sukaldaritza osasungarriari buruzko ikastaroa, 18:00etatik 20:30era. Bizikasik eta Udalak antolatu dute eta euskaraz izango dira saioak. Prezioa 30 euro da. Plazak mugatuak direnez, plaza kopurua baino gehiagok izena emanez gero, zozketa egingo da. Izena emateko deitu 943 76 93 94 zenbakira edo idatzi *info@bizikasi.com* helbidera.

**GPSa nola erabili**

Urriaren 15ean, 16an, 17an eta 18an GPSa erabiltzen irakatsiko dute. Saioak 18:00etatik 20:30era izango dira, Miguel Altunan, eta prezioa 20 euro da.

Ikastaroa hiru zatitan banatuta egongo da: lehen zatian, GPSari buruzko teoria, nola funtzionatzen duen eta haren koordinatu sistema eta koordenatuak irakatsiko dira. Zati laburra izango da, ordubete gehienez. Bigarren zatian honako hauek emango dira: GPSaren erabilera, GPS ereduak, kudeatzeko programak, Offline aplikazioak –Basecamp, CompeGPS, mapsource...–, *on line* aplikazioak –Google -Earth– eta web orriak –*Wikiloc*, *GPSies*...–. Hor oinarrizko lanak egingo dira: ibilbideak igo eta jaitsi, *waypoint*-ak erabili, ibilbide eta interesguneak markatu... Hirugarren zatia azkeneko egunean egingo da: *Geocaching* jolasa egingo dute, herriko kaleetan. Ordubete iraungo du eta horrekin amaituko da saioa. Ikastaroan Garmin etxeko GPSak erabiliko dira, gehien ezagutzen direnak direlako, baina norbek bere GPSa eramatea komeni da, klaseak azkarragoak izan daitezen eta ikasleak ikasitakoa zuzenean aplikatzera animatzeko. Horrez gain, nahi duenak USBa edo ordenagailu eramangarria eroan dezake, mapa, ibilbide, interesgune, eta antzekoak gordetzeko. Izena emateko deitu 943 76 93 94 zenbakira edo idatzi *info@bizikasi.com* helbidera.

**DATUA**

**5**

IKASTARO

Urrian bost ikastaro abiaraziko dituzte Udalak eta Bizikasik elkarlanean.

### Eskulan ikastaroa antolatu dute Angizoarren

Urriaren 3an hasiko da. Zaharberritzeak, birziklapena, marrazketa… landuko dituzte. Irakaslea Edurne Uribesalgo izango da eta eskolak eguaztenetan izango dira, 14:00etatik 16:30era, Angiozarko liburutegian. Prezioa 15 euro da hilean eta eskulana egiteko beharrezko materiala norberak jarri beharko du. Izena emateko azken eguna irailaren 28a da, Angiozarko liburutegian.

### Xabalote gaztelekuak zenbait ekintza prestatu ditu irailerako

Xabalote gaztelekuak dagoeneko prest du iraileko ekintzen egitaraua. Ohi bezala, pingponga, mahai jokoak, mahai futbola, ordenagailua, baloia eta pilotak, musika aparailua eta filmak dituzte han eskuragarri gazteek. Bestalde, honako ekintzak ere antolatu dituzte: hilaren 22an, donutsak egiten ikasteko sukaldaritza tailerra egongo da eta 29an, berriz, patata-tortilla lehiaketa egingo dute.

### Zabalik da merkatu eta merkatu txikiko tasak ordaintzeko epea

Merkatu eta merkatu txikiko tasen 2012ko hirugarren hiruhileko erreziboak ordaintzeko epea azaroaren 19an bukatuko da. Helbideratutako erreziboak baimendutako finantza erakundeetan eta zergapekoak agindutako kontu korrontean zordunduko dituzte azaroaren 19an. Helbideratu gabekoak, berriz, zergapekook esandako helbidera bidaliko dira eta gero Udaleko diru-bilketa zerbitzuan edo banketxean ordainduko dira.

# Agorrosingo ekintzak doan proba daitezke asteon

## Gaur, astelehena, hasiko dira ikasturte berriko jarduerak; 16 kirol jarduera ezberdin egongo dira

**M.B.** | BERGARA

Aurreko astean garbiketa dela eta itxita egon eta gero, gaur, astelehena, abiatuko dute Agorrosin Ekintza Gunean denboraldi berria, 16 kirol jarduera ezberdinekin. Guztira, astean 71 kirol ikastaro ordu eskainiko dira eta 1.806 plaza, iazko itxaron zerrendak murrizteko asmoz.

Kiroldegiko jarduerak ordutegi desberdinetan egin daitezkeenez, eskaera handieneko ordutegien zozketa egin da dagoeneko. Hori horrela, dagoeneko, 1.806 plazatik 922 bete dira. Hala, izen-emate epea oraindik zabalik dago.

**Zenbait berrikuntza**

Ohiko jarduerekin batera, berrikuntzak sartzeko ahalegin berezia egin dute Agorrosinen. Hori horrela, Oreka-desoreka, GAP eta Fit-box ikastaroak ere eskainiko dituzte aurten. Edonola ere, arrakasta gehien izan duten jarduerak, ohi bezala, igeriketa eskolak eta areto bizikleta izan dira. Hala eta guztiz ere, oraindik plazak daude jarduera horietan. Eskaintza guztia *www.agorrosin.net* webgunean kontsulta daiteke.



Emakume taldea Fit-box egiten. | GOIENA

**Jarduerak probatzeko aukera**

Gaur hasi eta eguaztenera arte, interesa duten herritarrek gustuko duten jarduera dohain probatzeko aukera izango dute. Hala, ikastaro hori dagokion orduan joanez gero, eta lekua baldin badago, jarduera probatzeko aukera izango du.

Informazio gehiagorako zein izena emateko, Agorrosin Ekintza Gunera jo daiteke edo 943 77 79 77 telefono zenbakira deitu.

**Unai Igartua** | Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkarteko kidea

# "Altxor bat topatu dugu: herriaren gogoa, laguntza eta geldirik ez egoteko grina"

- 'Sua' filma ikusgai izango da urriaren 3an Bergarako Zabalotegi aretoan
- 700 pertsona baino gehiagok parte hartu dute


'Sua' filma aurrera eraman duen elkarteko kide da Unai Igartua . | UNAI IGARTUA

ANDER MONEDERO | BERGARA

Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkarteak XVII. mendean inkisizioak Lapurdin egindako sarraskiari buruzko pelikula bat egitea pentsatu zuen 2004. urtean. Filma auzolanean egin dute, lagun artean grabatu dute eta ez dute inolako erakunde publikoren laguntzarik izan; eta zortzi urte eta 700 pertsona baino gehiagoren laguntzari esker, 2012ko ekainean plazaratu zuten pelikula. Urriaren 3an Bergaran proiektatuko dute eta, lan honi buruz gehiago jakiteko, Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkarteko kide Unai Igartuarekin hitz egin dugu.

**Zer da Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkartea?**

Hasieran lagunarteko jolas bat izan zen: Bizkaiko eta Gipuzkoako lagun batzuk Iparraldeko borda batera joan ginen, gure eskuetara bideokamera bat iritsi zen eta laburmetraia bat egitea pentsatu genuen. Orreagako gudan oinarritutako filma izango zen eta, jende asko behar genuenez, herriko jendeari laburmetraian parte hartzeko eskatu genion eta 100 pertsonak parte hartu zuten... Hondar ale bat zena izugarrizko mendi batean bilakatu zen!

***Eneko Aritza, Orreagako guda* laburmetraia estreinatzera ere iritsi zineten.**

Bai, Tolosako Leidor aretoan estreinatu genuen eta Durangoko azokan filmaren kopiak saldu genituen. Gero, herriz herri ibili ginen, laburmetraia nola egin genuen azalduz eta herria aktibatuz gero gauza handiak egin daitezkeela frogatuz.

**Laburmetraia bukatu eta pelikula bat egitea pentsatu zenuten.**

Laburmetraiaren grabaketan oso ondo pasatu genuen eta, hortik, pelikula bat egitea pentsatu. 2004. urtean, finantziazio apur bat lortzeko sortu genuen Eneko Aritzaren Lagunak taldea. Hor hasi zen *Sua* filmaren istorioa...

**Beraz, zortzi urteko lana da *Sua* pelikula.**

Bai, 2004an hasi ginen Lapurdiko inkisizioaren eta sorginen inguruan dokumentatzen eta hortik aurrera gelditu gabeko bidea izan da... 2005ean hasitako grabaketa lanak lau urte beranduago bukatu genituen, eta filmaren postprodukzioa egiten beste hiru urte pasatu ditugu.

**Ez zenuten proiektu erraza aukeratu: Euskal Herriko zazpi probintzietan grabatu duzue eta pelikulan 700 pertsona baino gehiagok parte hartu duzue.**

Oso zaila izan da dena ondo kudeatzea. Pelikulan ia 40 aktore protagonista daude eta inork ere ez du ezer kobratu... eta denak aste bukaera batean gelditzea oso zaila da. Gainera, Euskal Herriko klimatologiak ez du asko laguntzen, izan ere, pelikularen zati gehienak kanpoan grabatu ditugu. Nahiz eta lan handia izan, grabaketan oso ondo pasatu dugu.

> "Pelikulan ia 40 aktore protagonista daude eta inork ere ez du ezer kobratu"

**XVII. mendean eta Lapurdin girotutako lana da.**

Pier de Lancre inkisidoreak 600 pertsonatik gora torturatu eta hil zituen. Bere esanetan, Lapurdin deabrua guztiz sartuta zegoen eta garaiko arrantzaleen matxinadak ere aipatzen ditugu... Gertaera horretan oinarritu gara, baina ez da gertatutakoaren benetako kontakizuna, pelikulak fikzio asko du.

**Zinea era alternatiboan egin daitekeela erakutsi diozue euskal gizarteari.**

Guk egindako lana ezin da zinema komertzialarekin alderatu: proiektu honetan ez dugu talde profesionalik izan, herritarrek egindako proiektua da eta proiektua garatzen ari ginen bitartean ikasi dugu zinea egiten. Baina bidean altxor bat topatu dugu: herriaren gogoa, laguntza eta Euskal Herri guztian geldirik ez egoteko grina.

**Erakunde publikoen laguntzarik gabe horrelako proiektu bat egiteak meritu handia du.**

Guk ezin dugu hori baloratu, herritar xumeen laguntza izan dugu, euren borondatearekin lortu dugu hau aurrera eramatea. Bakoitzak ahal zuena egin du, baserria utzi, filmean parte hartu, grabaketa egunean bazkaria eraman... Noizean behin txosna bat jarri eta kontzertuak eginez diru apur bat lortu dugu. Baina berez, grabaketarako, aurrekontu txikia behar izan dugu, kostu handiagoa izan dute postprodukzioak eta banaketak.

**Postprodukzioa egiteko profesional baten laguntza izan duzue.**

Bai, Asier Izagirreren laguntza izan dugu, baina berak ez du ezer kobratu. Izagirrek meritu handia du, guk grabaketan egindako akats guztiak konpondu baititu!

> "Edozein lekutan proiektatzeko asmoa dugu: zine aretoetan, gaztetxeetan..."

**Filmaren banaketan gastu handia izan duzue.**

Bai, kartelak, pelikularen kopiak... hori izan da gastu gehien izan duen lana. Durangoko azokan kopiak saltzeko intentzioa dugu, baina oraindik ezin dugu guztiz konfirmatu.

**Orain pelikula mugitzeko garaia da...**

Bai, herriz herri pelikula zabaltzeko asmoa dugu, auzolanean sinisten dugu eta gizartea kulturaren esparruan horrelako gauzak egitera bultzatu nahi dugu. Pelikula edozein lekutan proiektatzeko asmoa dugu: zine aretoetan, gaztetxeetan... Auzolanarekin gauza ederrak egin daitezkeela erakutsi nahi dugu.

# Zabalik dago plazako dantzetarako izen-ematea

Hastapen mailan, lehen mailan eta dantza txokoan eman daiteke izena Jardunen eskutik

M.B. | BERGARA

Zabalik dago izen-ematea Jardun elkartearen *Herrixa dantzan* izeneko plazako dantzen ikastaroan. Urriaren 2tik ekainera bitartean izango dira eskolak, martitzenetan: 18:00etatik 19:30era, hastapen maila; 18:30etik 20:00etara, bigarren maila; eta 20:00etatik 21:30era, dantza txokoa.Ikastaroaren prezioa 17 euro da hilean –15 euro bazkideendako.

Izen-ematea dagoeneko zabalik dago Jardun elkartearen bulegoan, 943 76 36 61 telefono zenbakian eta *jardun@topagunea.com* helbidean.

**Jolasleku ibiltaria abian**

Era berean, jolasleku ibiltaria ekimena ere abiatu du dagoeneko Jardun euskara elkarteak. Datorren egubakoitzean, hilak 28, izango da lehen saioa, Matxiategin, 16:30etik 18:30eta; bigarrena urriaren 5ean izango da, Espoloian, 16:30etik 18:30era; eta hirugarrena, urriaren 19an, Irala kalean, 17:00etatik 19:00etara.


Irudian Jarduntxo. | GOIENA

3 urtetik hasi eta 12 urtera arteko neska-mutikoei zuzendu-ta dago eta askotariko ekintzak egiten dituzte; hala nola, sokasaltoan, zapi zein baloiarekin zenbait jolas, abestu, dantza egin...

## OHARRAK

**HAUTESKUNDETARAKO BULEGOA IREKI DU PSE-EE-K**

Posta bidez bozkatu nahi dutenendako zerbitzua jarri dute Casa del Pueblon (Bidekurutzeta 23), astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:0etara. Informazio gehiagorako deitu 943 76 55 23 zenbakira.

**POSTAZ BOZKATZEKO BULEGOA IREKI DU EAJ-K**

Legebiltzarrerako hauteskundetan botoa postaz emateko bulegoa jarri du EAJk, 11:30etik 12:30era eta 18:30etik 20:00etara. Kontsultetarako deitu 943 76 47 00 zenbakira.

**ADIMEN URRITASUNA BERBAGAI HILAREN 26AN**

Adimen urritasuna, zertan aldatu da, zertan aldatzen ari da izeneko hitzaldia egingo du Paul Zubillaga doktoreak hilaren 26an, eguaztena, 19:00etan, Irizar jauregian. Uliazpi zentroak antolatzen du.

**1960AN JAIOTAKOEK AFARIA EGINGO DUTE**

Urriaren 6an egingo dute, Azpeitxi jatetxean. Izena emateko 10 euro aurreratu behar dira Ariznoa tabernan eta Josefina estankoan.

**ZALOA FUERTESEN ARGAZKI ERAKUSKETA**

Aroztegi aretoan dago ikusgai urriaren 7ra arte, astegunetan, 18:00etatik 21:00etara; eta domeka eta jai egunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.



Bidebarriko Jon Igartua eta Sutondoko Iraia Urrutikoetxea, prestatuko plater batzuekin | MIREIA BIKUÑA

# Pertsona nagusientzako 'catering' zerbitzua

## Sutondo enpresak prestatuko ditu platerak eta Oñatiko Bidebarrik egingo du banaketa etxeetan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Lan aukera berriak sortzeko egitasmoaren barruan, etxez etxeko *catering* zerbitzuaren bideragarritasuna egin du MUko ikasle Xabier Orobengoak Udalarendako. Proiektu horren arabera, Gureak taldearen barruan *catering* arloan espezializatutako Sutondo enpresak prestatuko ditu platerak eta Oñatiko Bidebarri arduratuko da banaketaz. Bietako ordezkariak egon ziren aurreko astean egindako aurkezpenean. Hainbat herritarrek adi-adi entzun zituzten bien azalpenak. Sutondo enpresak prestatzen dituen platerak ezagutzeko aukera izan zuten: makarroiak, solomoa piperrekin, garbantzuak...

**Dietistak egindako menua**

Etxez etxeko *catering* zerbitzua pertsona nagusiendako eta menpekotasunen bat dutenendako izango da. 242 euroren truke hil osoko bazkari eta afariak egiteko aukera izango dute erabiltzaileek: bazkariak 4,40 euro (BEZ barne) eta afariak 3,96 euro, eta biak hartuz gero 7,81 euro.

Gainera, norberak erabakiko du zenbat egunetan behar duen zerbitzua, eta bazkaria edo afaria edo biak behar dituen. "Dietista batek egiten ditu menuak. Hori horrela, diabetesa edo tentsioarekin arazoak dituztenei menu pertsonalizatuak egingo dizkiegu", esan digu Iraia Urrutikoetxeak, Sutondoko kideak.

Bidebarri enpresakoek astean behin egingo dute banaketa: aste osorako janaria eroango dute. Erabiltzaileek hozkailuan gorde behar dituzte jakiak eta mikrouhin-labean berotzeko zulo bat egin behar dute plastikoan.

**Lehena, bigarrena eta postrea**

Sutondo enpresak 11 urte daramatza *catering* zerbitzuarekin lanean eta sukaldea Errenterian dauka. Dietista batek prestatzen ditu menuak: bost asterako menu ezberdinak. Hori horrela, bost astean ez dituzte platerak errepikatzen. Lehen platera, bigarrena eta postrea (fruta edo jogurta) dira prezioaren barruan sartzen direnak.

**Izena Gizarte Zerbitzuetan**

Udalak martxan jarriko duen etxez etxeko *catering* zerbitzua eskatu dute hainbat herritarrek dagoeneko. Aurrerantzean etxean janari prestatuak jaso gura dituztenek Gizarte Zerbitzuetan eman behar dute izena (943 03 77 00).

Xabier Orobengoak egindako bideragarritasun proiektuaren arabera, zerbitzua defizitarioa izan ez dadin 65 bezero behar dira, baina, aurreko astean egindako batzarrean esan zutenez, kopuru horretara heldu aurretik, dituzten erabiltzaileekin lanean hasiko dira. Euren asmoa da urri erdialdera hastea.

**Zerbitzu berria**

*Catering* zerbitzua berria da Oñatin. Sutondokoen asmoa da Debagoieneko beste herri batzuetara zabaltzea zerbitzua. "Gu enpresa pribatua gara, eta edonork kontrata gaitzake. Oñatiren kasuan, Udalarengana jo genuen gure zerbitzuaren berri emateko", esan digu Urrutikoetxeak.

**DATUA**

**242**

EURO

Hori da hil osoko bazkari eta afariengatik ordaindu beharrekoa; dena den, bazkaria edo afaria edo biak har daitezke.

**ESANAK**

**"Dietistak egindako menuak dira; norberaren beharretara egokitutakoak dira"**

IRAIA URRUTIKOETXEA | SUTONDO

# Gripearen kontrako txerto kanpaina auzoetan

M.B. | OÑATI

Irailaren 17an hasi zuen Osakidetzak gripearen kontrako txertoa hartzeko kanpaina –urriaren 31ra arte iraungo du txertatze kanpainak–. Oñatin anbulatorioan ipintzen dituzte, baina hango erizainak herriko bi auzotara joango dira hilaren 25ean: Zubillagara eta Olabarrietara, hain justu ere.

Bi auzootako elkarteetan egongo dira egun berean: Zubillagan 10:00etan eta Olabarrietan 11:30ean. Txertoa hartu gura dutenek Osakidetzako txartela erakutsi beharko dute.

**Arrisku taldeak**

Gripearen kontrako kanpainako txertoak anbulatorioan ipintzen dihardute. Aurten ere txertoa hartzeko dei egin diete 65 urte edo gehiago dituzten herritarrei, eta baita gaixotasun kronikoren bat dutenei ere. Haiek medikuarekin edo erizainarekin txanda hartu besterik ez dute txertoa hartu ahal izateko.

Arrisku talde horretatik kanpo egon arren txertoa hartu gura duten herritarrek ere badute txertoa hartzeko aukera, baina norberak eroan beharko du kontsultara.

# Proiektu berritzaileen erakusketa hilaren 25etik

M.B. | OÑATI

Hirugarren aldiz proiektu berritzaileen erakusketa egingo du Kimu Berrik. Unibertsitateko gazteek garatutako proiektuen panelak ikusgai egongo dira Enpresagintzan hilaren 25etik 27ra, fakultateko ordutegian.

**26 proiektu**

Proiektu berritzaileen erakusketak bi helburu nagusi ditu: Debagoieneko unibertsitateko gazteek garatutako proiektu berritzaileak aurkeztu eta erakustea; eta ekintzaileetasuna sustatzea, batez ere aisialdi, kirol eta gazteriaren arloetan. Guztira, 26 proiektu erakutsiko dituzte erakusketan. Gainera, hilaren 25ean Enpresagintzan *Sartup Pitching* lehiaketa egingo dute. Proiektuen sustatzaileek garatutako lanei buruzko hitzaldiak egingo dituzte, azalpen laburrekin.

**Kimu Berriren gainean**

Kimu Berri proiektuak gazteria, aisialdi eta kirol gaietan lehiakortasun gune bat sustatzea du helburu, eduki sortzaile eta teknologiko handiko enpresa-jarduerak sortzeko.

## Saguak kontrolatzeko zerbitzua

M.B. | OÑATI

Udalak saguak kontrolatzeko zerbitzua indartzea erabaki du. Herritarren artean pozoia banatzeari utzi zionetik, saguak zabaltzen ari diren kexuak jaso dituzte. Bestalde, konpostagailu komunitarioak jartzeko asmoa dauka Udalak, eta horietara saguak hurbiltzea saihestu gura dute. Hori horrela, ikuskapen tratamendu arruntak zortzitik hamarrera igoko dituzte. Horrez gain, shock-tratamenduak egingo dituzte urtean bitan, eta 24 orduko arreta zerbitzua kontratatuko dute.

## Hainbat udal tasa ordaintzeko epea zabalik dago

M.B. | OÑATI

Garaje, hilerri eta ibi iraunkorrari dagozkion udal tasak ordaintzeko borondatezko epea zabalik dago azaroaren 10era arte. Ordainketa helbideratuta dutenei banketxe edo aurrezki kutxa bidez kobratuko diete eta gainerakoek eskutan ordaindu beharko dute. Garaje tasa 3.832 jabek ordainduko dute. Horietatik 92k ibi iraunkorrari dagokion tasa ordainduko dute. Eta hilerriko erreziboak 1.338 izango dira.

Udalak, guztira, 96.000 euro jasoko ditu tasa horiengatik, iaz baino 3.000 gehiago.

## Zapiak eta Herri Eguneko bazkarirako txartelak salgai

Jaietako zapiak kultura etxeko sarreran daude salgai euro baten truke. Herri Eguneko bazkarirako txartelak, berriz, Arrano, Antton, Izarraitz eta Olakua tabernetan daude 19 eurotan –ez dute iazko prezioa igo–. Menua hauxe izango da: patatak errioxar erara, Oñatiko okela gisatua, herriko gazta eta irasagarra eta kafea eta kopa.

## Ageriko pintura lehiaketako lanak ikusgai kultura etxean

Ageriko pintuta lehiaketan parte hartu zutenen margolanak ikusgai egongo dira kultura etxeko erakusketa gelan, hilaren 25etik urriaren 11ra arte, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara. Bi mailatako irabazleak eta bigarren eta hirugarren lekuetan sailkatutakoak ikusi ahal izango dira.

ESKORIATZA

# Migrazio zerbitzua indartuko dute

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA

Ohiko osoko bilkura egin zuten eguenean Eskoriatzan. Jorratu zituzten gaien artean, migrazio zerbitzua indartzea izan zen bat. Urteak aurrera joan ahala, Udaletik uste dute migrazioaren gaia garrantzia hartzen joan dela eta etorkinei Eskoriatzan eskaintzen zaien zerbitzua berria izango ez den arren, erabaki dute migrazioa gizarte ongizate barruko konpetentzia bat izatea.

Orain arte egindako lan bera egingo dute aurrerantzean ere, baina antolaketa modua aldatuko dute.

**Azpiegiturak batzorde berria**

Batzorde berri bat ere sortuko dute: azpiegiturak batzorde informatzailea, hain zuzen. Beñat Herce alkateak esan zuen kontziente direla etorkizun baten lan handiak etorriko direla Bidegirekin sinatuko duten hitzarmen batengatik. Euren helburua da AP1 autopistak sortutako kalte eta lanei erantzuna ematea eta horrek ekarriko dituen lanak aurrera eramateko, komisio berezi bat sortuko dute. Orain arte, hirigintza batzordean jorratu da gai hori, baina aurrerantzean batzorde propioa izango du. "Batzorde berezi bat izango da denbora asko eramango duen gai puntual bati erantzuteko. Berezitasuna izango da auzo alkateak deituko ditugula bertan parte hartzera nahiz eta bozkatzeko ahalmena ez eduki. Baina garrantzitsua izango da euren ikuspuntua" dio Hercek.

**Besteak**

Eskoriatzako irabazi asmorik gabeko kultur elkarteei eta taldeei 2012an egiteko ekintzetarako diru laguntzak emateko oinarriak ere onartu zituzten eta aldaketa bakarra izango dute aurten. Aurreko urtean erakunde bakoitzak lortu ahal zuen diru laguntzaren muga 2.000 eurokoa zen eta aurten 1.000 eurora jaitsi dute, alkatearen esanetan diru laguntza horiek "banatuago" egoteko erakundeen artean.

Bestalde, izendapen berriak ere egin zituzten abuztuaren 1ean Igor Ezpeletak zinegotzi kargua hartu zuelako. Hainbat konpetentzia Ezpeletaren gain jarri dituzte orain eta hainbat ordezkaritza eta batzordetan aldaketak egin dituzte.



JASONE ORBEGOZO

ESKORIATZA

## San Juan kaleko jaiak, bikain

Joan zen asteburuan ospatu zituzten bi urtean behin egiten dituzten San Juan kaleko jaiak. Meza, txikiteoa eta Otzetak gertatutako bazkaria izan zituzten eta 55 lagun elkartu ziren. Ondoren dantzaldian primeran pasa zuten bertaratutakoek. Nagusienak Ines Alegria eta Ramon Uribeetxeberria izan ziren.

ARETXABALETA

## 'Euskal Herrian Murrizketarik EZ' lelopean, bizikleta martxa deitu du eguaztenerako Greba batzordeak

Aretxabaletako Greba batzordeak "Madrildik inposatu nahi dizkiguten murrizketen inguruan gure ezetzik borobilena plazaratzeko" eta "iruzurraren aurrean planto egiteko eta Euskal Herrian beste eredu baten alde egiteko", bizikleta martxa antolatu du eguaztenerako. 10:00etan Herriko plazan elkartuko dira herriari buelta osoa emateko ahoan txistuak eramanda herritarren kontzientzia pizteko. Arratsaldean, bizikleta berriro hartu eta Arrasaten egingo den mobilizaziora joateko deia egin dute 17:00etan Arrasateko plazan.

ARETXABALETA

## Zuhaitz Errastiren alde, martxa egingo dute Frantziara

Zuhaitz Errasti, Frantzian preso dagoen aretxabaletarra, epaituko dute bihar, martitzena Parisen eta martxa antolatu dute hara. Aretxabaletatik antolatu dute martxa eta horren helburua da Errastiri elkartasuna adieraztea.

ARETXABALETA

## San Migeletako herri bazkarirako txartelak salgai daude

Aretxabaletako Herrirak antolatuta, hilaren 29an egingo den bazkarirako txartelak salgai daude 17 euroan ondorengo tabernetan: Urbaltz, Arlutz, Orly eta Gurean. 450 pertsonendako lekua dago eta bazkal ostean dantzaldia egongo da.

ARETXABALETA

## Kuku Miku elkarteak antolatutako hitzaldia gaur Arkupen

Haurren hazkuntzan laguntzeko taldeak zer diren azaldu eta lanean hasteko hitzaldia antolatu du Kuku Mikuk. Gaur, astelehena, emango dute hitzaldia bi ordutan: 11:00ean eta 18:00ean, Arkupeko bigarren solairuan.

ESKORIATZA

## Argazki lehiaketako lanak erakusketan gaurtik Ibarraundin

Udako Argazkien Lehiaketako argazkiak ikusgai daude gaurtik Ibarraundi museoan urriaren 5era arte. 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Bertaratutakoek lanik gustukoenak bozkatzeko aukera izango dute.

Tinta beltza

Fotokopiak • Koadernatzeak
Fax zerbitzua • Bulegorako eta eskolarako materiala
Argazki inprimatze zerbitzua

Santakurtz 24, Lezama merkataritza zentroa Aretxabaleta
Tel.: / Faxa: 943 77 07 92 • tintabeltza@gmail.com

ARETXABALETA Lanbide Eskola

2012/2013 IKASTURTEA
IKASTAROAK DOHAINIK
LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRI BERRIAK

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ)
KATALOGO MODULAR *BERRIA*

| ZIURTAGIRI PROFESIONALAK | PRESTAKUNTZA MODULOAK | PRESTAKUNTZA UNITATEAK | Orduak |
|---|---|---|---|
| (FMEH0109) TXIRBI-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA | MF0089_2 Txirbil-harroketa bidezko prozesua | UF0876 Zehaztapen teknikoak txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan | 60 |
| | | UF0991 Prozesuen koste balioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan | 40 |
| | MF0090_2 Txirbil-harroketa bidez mekanizatzeko makinak eta sistemak prestatzea | UF0880 Fabrikazioen prozesu osagarriak txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan | 70 |
| | MF0091_2 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa | UF0881 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioen prozedurak | 80 |
| | | UF0883 Mekanizatutako txirbil-harroketa bidezko produktuen egiaztapena | 30 |
| (FMEC0110) SOLDADURA ELEKTRODO ESTALIEKIN ETA TIG | MF0099_2 Arku elektrikoarekin elektrodo estali bidezko soldadurak egitea | UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran | 60 |
| | | UF1622 Ebaketa prozesuak eta ertzen prestaketa | 70 |
| | | UF1623 Rutilozko elektrodo estaliekin karbono altzairuzko txapak eta profilak soldatzea | 90 |
| | | UF1624 Basiko elektrodo estaliekin karbono altzairuzko txapak eta profilak soldatzea | 90 |
| | | UF1625 Elektrodo estaliekin karbono altzairuak, altzairu herdoilgaitzak eta beste material batzuk egiturak soldatzea | 90 |
| | MF0100_2 Gas babeslepeko arkuarekin elektrodo ez-kontsumigarriaren bidezko soldadurak (TIG) egitea | UF1626 karbono altzairuen TIG soldaketa | 90 |
| (FMEC0210) SOLDADURA OXIGAS ETA SOLDADURA MIG/MAG | MF0098_2 Oxigas bidezko soldadurak eta proiekzio termikoak egitea | UF1672 Oxigas soldadura | 70 |
| (SSCS0108) ETXEAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA | MF0249_2 Etxean egiten den higienea eta osasun arreta | UF0119 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen ezaugarri eta higiene-osasun beharrak | 70 |
| | | UF0120 Etxeetan menpekotasun egoeran dauden pertsonen elikagaien administrazioa eta tratamendua | 50 |
| | | UF0121 Etxeetan menpekotasun egoeran dauden pertsonen ahalmen fisikoak hobetzea eta lehen sorospenak | 50 |
| (SSCS0208) ERAKUNDE SOZIALETAN DAUDEN MENPEKO PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA | MF1017_2 Erakundeetan, higiene -elikaduraren arretan esku hartzea. | Erakundeetan, higiene -elikaduraren arretan esku hartzea | 70 |

LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE) DOAN

| | | |
|---|---|---|
| ZIURTAGIRI PROFESIONALA: FMEC0210 | Soldadura oxigas eta soldadura MIG/MAG | 430 |
| ZIURTAGIRI PROFESIONALA: FMEH0109 | Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa | 280 |
| ZIURTAGIRI PROFESIONALA: TMVL0109 | Mantenimendu eragiketa osagarriak ibilgailu elektromekanikoetan | 270 |
| ZIURTAGIRI PROFESIONALA: SSCS0208 | Erakunde sozialetan dauden menpeko pertsonen arreta soziosanitarioa | 480 |

KATALOGO MODULARRETIK KANPO DOAN

| | |
|---|---|
| Altueran lan egitea | 20 |
| Garabietan lan egitea | 20 |
| Eskorgan lan egitea | 20 |
| Soldadoreen homologazioa | 60 |

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HOBETUZ Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua / Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa
Europako Gizarte Funtsa
lanbidez heziketa formación profesional

ETXEBARRI AUZOA Z/G 22 Pk.
20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA.COM
IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943
F. 943 770 955



Saritutako hiru txorimaloak eta euren egileak. | L.Z.

ELGETA

# Bitxorio taldearen txorimaloak jaso zuen zapatuan lehiaketako lehenengo saria

Baserritarren azokarekin batera egindako Elgetako baserrien erakusketak ere harrera oso ona izan zuen; herritar ugari hurbildu zen argazkiak ikustera

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Elgetako I. Txorimalo Lehiaketan bost taldek hartu dute parte aurten. Herriko plazaren erdian kokatu zituzten bost txorimaloak Turismo batzordeko kideek, eta goiz osoan zehar bertan egon ziren ikusgai. Handiak eta txikiak, tradizionalak eta modernoagoak... esan beharra dago denon gusturako modukoak izan zirela txorimaloak.

Azken erabakia, ordea, Maala guraso elkarteko bi ordezkarik izan zuten, eta eguerdi alderako epai argia eman zuten. Politena Bitxorio taldeak aurkeztutakoa izan zen —argazkian erdikoa—, eta 50 euroko saria eskuratu zuten egileek. Bigarren saria Txorimalia taldekoek —ezkerrean— eraman zuten; 30 euro poltsikoratu zituzten. Hirugarren saria, berriz, Txorionak taldearendako —eskuman— izan zen; 20 euroko saria jaso zuen gazte taldeak.

Antolatzaileak gustura agertu dira Elgetako I. Txorimalo Lehiaketak emandakoarekin, eta itxaropentsu daude hurrengo urteetara begira. Lehiaketan parte hartzeko gero eta talde gehiago animatuko direlakoan daude.

**Baserriak argazkitan**

Arrakasta handia izan zuen, halaber, Nerea Villak udaletxeko arkupean ipinitako argazki erakusketak. Herritar asko gerturatu zen herriko 60tik gora baserriren argazkiak batzen zituen erakusketa ikustera. Askorendako, bereziki nagusiendako, polita izan zen aspaldian ikusi bako baserriak argazkitan ikustea. Baserrien argazkiak, gainera, auzoka antolatuta aurkeztu zituen Villak. "Elgetan bederatzi auzo daude baserri desberdinez osatuak. Gehienak oraindik zutik daude, hala ere badira desagertuak edo desagertzeko zorian daudenak, gehienak Aixola eta Izuriaga auzoan (...). Erakusketa honen bidez oraindik mantentzen direnak ezagutzeko aukera ematen dizuet", azaltzen zuen egileak erakusketan ipinitako ohar batean. "Erakusketa ikusi ondoren anima zaitez, auzoetara joan eta baserri hauek bertatik bertara ezagutzera. Gure herriaren arkitektura historiko zaharrena bertan duzue", gaineratzen zuen.

Erakusketa, orain, Espaloia kafe antzokian egongo da ikusgai urriaren 7ra bitartean. Oraindik ikusi ez duenak edo berriz ikusi nahi duenak hortxe du aukera. Argazkien kopiak eskatzeko aukera ere badago.

ANTZUOLA

# Spinning eta pilates kirol jardueretan lekua dago oraindik

Dantzako klaseak ere hasi dira eta nahi duenarendako ateak zabalik daude gimnasioan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA
Udal gimnasioko spinning talde guztiak martxan daude; oraindik, lekua badago gainera klase guztietan. Pilateseko eskola-ordu guztiak ere abian dira eta oraindik lekua dago klase guztietan izena eman nahi duenarendako. "Pilates eskola batzuk hasi dira betetzen, beraz, apuntatzeko asmoa duenak ahal bezain laster egin beharko du", azaldu digu Xabi Azkarate udal gimnasioko arduradunak. "Baita mantentze gimnasietan eta 3. adineko gimnasia klaseetan ere", gaineratu digu.

Bestalde, azpimarratu dantzako klaseak hasi direla –aurtengo berrikuntzetako bat –eta martxan daudela izena eman nahi duenarendako. "Urritik aurrera, Goizeko ordutegi pack-a, eguerdiko ordutegi pack-a eta gimnasia abdominal hipopresiboak ipiniko ditugu martxan; izena eman daiteke", gaineratu digu.

**GRIPEA: TXERTOA HARTZEKO**

Urriaren 31 bitartean artatuko dituzte txertoa hartzera doazen herritarrak osasun zentroetan eta anbulatorioetan, aurrez txanda hartuta. Antzuolarren kasuan, Bergarako osasun etxeko administraziora deitu beharko dute 943 03 54 00 telefonora; eta ez Antzuolako erizainari zuzenean. Izan ere, Erizainak ez du-eta txandarik ematen.

ARAMAIO

# Liztor inbaditzailea agertu da Ibarran, Diputazioak jarritako tranpa batzuetan

Joan den eguenean atzeman zituzten; Gipuzkoa eta Bizkaian ere badaudenez, ez da harritzekoa

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Arabako Diputazioak aditzera eman du Aramaiora heldu dela liztor inbaditzailea. Hiru liztor aurkitu dituzte eta Aldundiko teknikariek egiaztatu dute *velutina* arrazakoak direla, hots, inbaditzaileak (*vespa velutina*). Iazko udazkenean ere agertu ziren; Azkoagan, esaterako.

Oraingoan Ibarra inguruan jarritako tranpa batzuetan aurkitu dituzte, baina Koldo Ajuria basozainak aditzera eman du ez dagoela kezkatzeko arrazoi handirik: "Garai honetan erleak ez dira ugaltzen eta aurten ez da oso kezkagarria. Ez dugu erlekumerik ikusi. Hori bai, datorren urterako kezkatzen hasteko moduan gaude". Gertaera ez da harritzekoa izan: "Espero genuen Arabara ere helduko zirela eta poztekoa da oraingoz ez dugula habiarik aurkitu. Gipuzkoan, adibidez, 120 habia inguru kontabilizatu dituzte". Aramaion erlauntzak dituzten bizilagunek aspaldi jaso zituzten tranpak. Hala ere, tranpa horiek espeziea errekonozitzeko jartzen dira eta ez hedapena ekiditeko.

**Intsektu erasotzailea**

Liztor inbaditzaileak erlauntzak dituzten ezti ekoizleei zuzenean eragiteaz gain –hemengoak jaten dituzte–, ekologia orokorrean du eragina, ez da-eta ahaztu behar erleak beharrezkoak direla loreen polinizaziorako.



*Vespa Velutina* delako liztor inbaditzailea, Asiatik datorrena. | GOIENA

LEINTZ GATZAGA

# Hauteskunde mahaian egoteko zozketa bihar

Ezohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak mahai horretarako kideak izendatzeko

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA
Bihar, irailak 25, ezohiko osoko bilkura egingo dute udalbatzako kideek (17:30). Azken orduko aldaketarik ez badago behintzat, puntu bakarreko bilkura izango da: hauteskunde mahaian egon beharko duten kideen izendapena. Hiru gatzagar egongo dira eskolan jarriko duten hauteskunde mahai horretan urriaren 21ean, baina hiru horiendako bi ordezko ere izendatuko dituzte bihar. Behin hautaketa eginda datozen jasoko dute etxean jakinarazpena herritar horiek. Ohiko osoko bilkura, ostera, urrian egingo du udalbatzak baina oraindik ez dute zehaztu eguna.

Bestalde, eguaztenerako, hilak 26, greba deialdia dute eginda sindikatuek, baina Gatzagako Udal langileek jakinarazi dute oraindik ez daukatela erabakita bat egingo duten edo ez deialdi horrekin.

**KZgunea zabalik gaur**

Gaur, astelehena, zabalik izango da Pilar kalean dagoen KZgunea (16:00-20:00). Aitor Madrid dinamizatzailea izango da bertan, eta herritarrei Interneten gainean dituzten kezkak argituko dizkie. Horrez gain, ikastaro motzak ere eskainiko ditu, sare sozialen gainekoak –Twitter, Facebook, Tuenti...– eta Googlek eskaintzen dituen lan tresnen gainekoak esaterako. Eta beste barik Interneten ibiltzeko aukera ere izango dute 16 urtetik gorakoek.

Ikastaroen gaineko argibide gehiago gura duenak hona kontaktua: *tutor.leintz-gatzaga@kzgunea.net* eta 943 02 36 65.

# IRAILEKO SARIEN IRABAZLEAK

## Sari nagusiaren irabazlea

# Sara Izuskitza Makatzaga
## (Bergara)




**OKI V19B-LED4 telebista**
- LCD monitorea, 19 hazbetekoa
- Bereizmena: 1366 x 768 pixel.
- HD ready
- HDMI eta USB sarrera bat
- LTD, bereizmen handikoa

EROSKI

## Sarreren irabazleak

**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**
**ikusteko gonbidapenak.**
- Mikel Txintxurreta Igartua (Oñati)
- Ramon Ugalde Arrieta (Elgeta)
- Isabel Sierra (Bergara)
- Jesus Belamendia Agirre (Elgeta)



Bisita egiteko azken eguna: Azaroak 30.
Pertsona bakoitzarendako bi gonbidapen.

eureka! zientzia museoa

## Atera etekina txartelari

goienakluba" 2012

AQUARIUM
Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99

ARGIA
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03

AVIA MECA
gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39

BEGIONDO
optika
Aretxabaleta, 943 79 98 21

GAHIR
fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41

ESKO SPORT
kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96

GAES
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55

GUZTIZ EDER
edertze zentroa
Oñati,
943 78 01 46.

IKER
sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48

LASTAI
haurtzaintza eta atseden gunea
Gasteiz, 945 35 85 59

LILURA
edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71

JAIXAK
denda
Bergara, 943 76 31 45

MULTIOPTICAS
optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75

NAREN
fisioterapia zentroa
Aretxabaleta,
943 08 21 89

RENAULT AUTOBERRI
kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72

TXURI URDIN
izotz jauregia
Donostia,
943 46 44 00

EUREKA!
zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78

IZENADUBA BASOA
parke tematikoa
Mungia, 94 674 00 61

Urteko kuota: **50 €.** | Tel.: **943 25 05 05**
e-posta: *kluba@goiena.com* | *goienakluba.com*

goienakluba"
Abantailaz betetako kluba!

# KIROLA

RALLYSPRINTA

# Tarsicio eta Peñaren Mitsubishi Evo IX-a azkarrena Aramaioko Rallysprintean

## Eguraldiak lagunduta, publikoak ikuskizun bikainaz gozatzeko aukera izan zuen

**ANDER MONEDERO** | ARAMAIO

Gasolina usainak eta eguraldiak dei egin zien zapatuan Euskal Herriko motorzaleei eta hauek ez zuten kalerik egin Aramaioko Rallysprintaren XI. edizioan. Izan ere, aparteko giroa egon zen Aramaioko Irubieta eta Andramariko bidegurutzearen artean dauden 7,8 kilometroetan.

Eguraldi onak ikusleak bakarrik ez, auto gidariak ere animatu zituen: askok zirkuitu lehorra izanda ohikoa baino gehiago estutu zuten eta, nahiz eta istripu larririk ez egon, txapa istripu asko izan ziren. Horren erakusle dira Iñaki Alberdiren Ford Scort MK2-ak edo Pablo Pelaezen Citroen AX Sport-ak hartutako kolpeak; bi gidariek ezin izan zuten lehenengo txanda bukatu. Baina istripu ikusgarriena Ibon Otaegiren BMW 325i-ak lehenengo mangan izan zuen: metarako 200 bat metrora, autoaren kontrola galdu, eta errepide ondoko zelai batean bukatu zuen. Zorte hobeagoa izan zuten Aitor Arnaiz eta Joanes Uriak, Renault 5 GT Turboan: hirugarren txandan, Arraga eta Gantzagako bidegurutzean bazterra jo zuten, baina helmugara iristea lortu zuten.

Baina Aramaioko XI. Rallysprintan istripu txikiak baino askoz gehiago izan zen. Frogaren irabazleak, Iban Tarsiciok, eta Joseba Zapirainek lehia bikaina izan baitzuten: lehenengo bi mangetan, Zapirainek gidatutako Peugeot 206 WRC-a, segundoen ehunekoengatik bada ere, Tarsicioren Mitsubishia baino azkarragoa izan zen. Azken txandan, ordea, Tarsiciok autoa estutu eta lau segundoko aldea atera zion Zapiraini.



Iban Tarsiciok gidatutako Mitsubishia izan zen Aramaioko rallyspritaren 23,4 kilometroak egiten azkarrena. | J.A.

Lehen postuen lehiaz gain, auto gidari askok ikuskizun ederra eskaini zuten, adibidez, Markos Landaren Opel Kadett GSIak eta Omer Artaloitiarren Ford Sierra Cosworthak. Bi pilotuen artean ko lehia bizian, Landa izan zen nagusi.

Ibilbidea ondo baino hobeto ezagutzen duen Inhar Amenabar aramaioarrak ezin izan zuen frogan parte hartu. R5 GT Turboarekin parte hartu behar zuen, baina azken orduko arazoengatik ezin izan zuen irten.

**Antolatzaileak, pozik**

Rallysprintaren bukaeran pozik agertu ziren Aramaioko Azpiko Racing taldekoak. Izan ere, lasterketa normaltasun osoarekin ospatu zen, ez zen istripu larririk izan eta froga osoan zehar publikoa behar bezala portatu zela esan zuten.




Aitor Arnaizek bazterra jo zuen hirugarren mangan. | A.M.




Ibon Otaegiren BMW 325i-ak meta ondoko zelai batean bukatu zuen. | A.M.

### XI. ARAMAIOKO RALLYSPRINTA

**SCRATCH SAILKAPENA**

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Iban Tarsicio | 15:52,1 |
| 2. | Joseba Zapirain | 15:56,1 |
| 3. | Gorka Antxustegi | 15:56,2 |
| 4. | Aingeru Castro | 15:57,1 |
| 5. | Joxe Labaka | 16:05,2 |
| 6. | Mattin Villares | 16:12,4 |
| 7. | Jesus Perez | 16:20,7 |
| 8. | Ander Arana | 16:24,4 |
| 9. | Jorge Rodriguez | 16:33,3 |
| 10. | Jon Zuazua | 16:42,9 |
| 11. | Omer Artaloitia | 16:45,0 |
| 12. | Markos Landa | 16:45,5 |
| 13. | Lucas Holke | 16:46,3 |
| 14. | Jokin Aierta | 16:58,4 |
| 15. | Aitor Hoyos | 16:59,8 |
| 16. | Ugaits Basaras | 17:00,5 |
| 17. | Andoni P. Villareal | 17:00,6 |
| 18. | Esteban Ibarrola | 17:05,4 |
| 19. | Mikel Intxausti | 17:06,8 |
| 20. | Felix Astorkia | 17:06,8 |
| 21. | Eneko Goierena | 17:07,1 |
| 22. | Gorka Oteiza | 17:09,4 |
| 23. | Iñaki Martitegi | 17:14,8 |
| 24. | Gorka Eizmendi | 17:15,2 |
| 25. | Aitor Saizar | 17:17,3 |
| 26. | Egoitz Koroso | 17:20,0 |
| 27. | Xabier Agirre | 17:21,3 |
| 28. | Ander Txakartegi | 17:28,1 |
| 29. | Jon Zaioetxeberria | 17:42,5 |
| 30. | Aner Orue | 17:43,9 |
| 31. | German Agreda | 17:44,4 |
| 32. | Garikoitz Goñi | 17:45,0 |
| 33. | Xabat Goikoetxea | 17:48,5 |
| 34. | Daniel Pavon | 17:49,2 |
| 35. | Iñigo Errasti | 17:57,5 |
| | ... | |
| 39. | Aitor Arnaiz | 19:07,1 |



Arizmendi baloiarekin, inguruan Iker Sanchez eta Julen Eraña dituela. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

# Itxura polita erakutsi du UDAk etxeko lehen partidua irabazita

## Touringi nagusitu zitzaion (2–1) Iker Sanchezek egindako bi golei esker

EMAITZA

ARETXABALETA
**2-1**
TOURING

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Aretxabaletak denboraldiko lehen partidua zuen atzo etxean, eta Albistegik zuzendutako taldeak itxura polita eman gura zuen zaleen aurrean. Eta halaxe, zaleek gustura jarraitu zuten partidua, gehiegi sufritu barik.

Indarrak parekatuta ibili ziren biak ala biak hasiera-hasieratik, eta Touringek kontuan hartzeko taldea duela erakutsi zuen. Lehenengo zatian etxekoak ez ziren oso fin ibili defentsa lanetan eta zortzigarren minutuan iritsi zen kanpokoen gola. Zuloa topatu zuen Alberto Nagorek eta sareetara bidali zuen baloia Iker atezainak ezer egiterik izan barik (0-1). UDA baina ez zen behera etorri gol horrekin eta 21. minutuan Iker Sanchezek sareratu zuen. Touringeko korner baten ostean eman zion hasiera Iker atezainak jokaldiari, Sanchezek bikain kontrolatu baloia, Mikel Salinas atezaina atzean utzi eta gola ailegatu zen (1-1). 34. minutuan penaltia eskatu zuten UDAkoek, hain zuzen, Sanchez lurrera botatzeagatik, baina epaileak ez zuen ikusi.

**Penaltia 49. minutuan**

Lehenengo zatian ez, baina bigarrena hasi orduko iritsi zen penalti hori, laugarren minutuan, hain zuzen, eskuarekin ukitzeagatik baloia. Eta Iker Sanchezek indartsu jaurtita sartu zuen gola (2-1). Eraña zelairatu zen ondoren Badilloren ordez eta honek bizitasuna eman zion zelai erdiari. Gora beherak izan zituzten gero etxekoek; aurrez gertatutako jokaldi politak egin zituzten lehenengo, baina ondoren beheralditxoa izan zuten. Bigarren garaipena lortu zuen UDAk eta zaleak sufritu barik etxeratu ziren.

OHOREZKO ERREGIONALA

### Gol zaparrada jasota galdu zuen Mondrak Trintxerpen (5-1)

Bigarren jardunaldia eta bigarren porrota Mondrarendako, oraingoan, gainera, gol mordoa jasota. Dagoeneko sailkapeneko zuloan dago eta puntuak eta konfiantza eskuratzen joateko irabazi beharra du.

OHOREZKO ERREGIONALA

### Punturik lortu gabe bueltatu zen Bergara Zubietatik (1-0)

Ostadar taldearen etxera joan zen zapatuan Bergara, eta esku hutsik itzuli. Gol bakarra sartu zioten, baina ezin izan zion buelta eman markagailuari, eta azkenean puntu barik itzuli behar etxera. Datorren zapatuan, Aurrera hartuko du etxean.

OHOREZKO ERREGIONALA

### Aloña Mendik bi gol jasota galdu zuen atzo Aurreraren aurka (2-0)

Aloñak ez zuen irabazterik izan atzo Aurreraren aurka, eta hasi berri den denboraldian oraindik ez du lortu garaipenik. Domekan UDA hartuko du etxean; ez da partidu samurra izango, baina garaipenaren bila aterako dira.


# AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



23.900 €-tik aurrera

> **FORD Kuga**
2012 | Diesela | 0 Km

MUGARRI
Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

- Ford Focus — 18.500 €
  2012 | Diesela | Km 0
- Ford Transit — 21.700 €
  2012 | Diesela | Km 0
- Ford Focus Tdci 110 — 12.500 €
  2011 | Diesela
- Citroën Picasso Td 92 Zp — 7.800 €
  2007
- Toyota Land Cruiser Td 3 Ate 125 Zp — 7.800 €
  2000 | Diesela
- Ford Fiesta Tdci 70 Zp — 6.800 €
  2007 | Diesela
- Ford Connect Tdci 90 Zp — 7.900 €
  2009 | Diesela
- Kia Sportage Td — 12.500 €
  2008 | Diesela
- Land Rover Td Freelander — 5.500 €
  2000 | Diesela
- Mercedes Vito Cdi 8 jarleku — 14.500 €
  2004 | Diesela



18.450 €

> **Renault Trafic Combi**
2011 | Diesela | 10218 | Txuria

RENAULT AUTOBERRI
San andres auzoa 8
ARRASATE • 943 71 24 72

**Furgonetetan aukera ezin hobea**

- Renault Clio — 9200 €
  2010 | Gasolina | 17.975 Km | Grisa
- Volkswagen Caddy — 10.500 €
  2010 | Diesela | 80.308 Km | Txuria
- Renault Grand Modus — 11.450 €
  2012 | Diesela | 0 Km | Txuria
- Renault Kangoo Combi — 11.000 €
  2010 | Diesela | 20.040 Km | Txuria
- Renault Kangoo Furgon — 5.950 €
  2008 | Diesela | 140.200 Km | Txuria
- Renault Latitude — 19.450 €
  2011 | Diesela | 149.31 Km | Txuria
- Dacia Logan Van — 12.750 €
  2011 | Diesela | 0 Km | Txuria
- Renault Megane Sedan — 7.550 €
  2008 | Gasolina | 58.909 Km | Gorria
- Renault Twingo — 9.550 €
  2012 | Gasolina | 0 Km | Banilla



29.000 €

> **CITROEN DS5 20HDi STYLE 160**
2012 | Diesela | 3.500 km | Urdin argia

CHAPIME
CITROËN
Debagoieneko kontzesionario ofiziala
San Andres auzoa 5
ARRASATE • 943 79 45 22

- Citroen C4 Aircross Exclusive 4 wd Hdi 150 zp — 31.500 €
  2012 | Diesela | 900 km | Zuri nakareztatua
- Citroen Berlingo Com. 1.6 HDI 110 SX Multispace — 13.800 €
  2010 | Diesela | 32.014 km | Urdin argia
- Citroen C3 C3 1.4HDi Attraction — 9.800 €
  2011 | Diesela | 15.500 km | Zuria
- Citroen C5 2.0 HDI Business — 14.900 €
  2011 | Diesela | 36.000 km | Gris argia
- Citroen DS4 1.6 eHDi Design STT — 19.500 €
  2011 | Diesela | 5.250 km | Urdin iluna
- Citroen DS4 1.6 eHDi CMP Style — 22.500 €
  2012 | Diesela | 750 km | Gris iluna
- Citroen Jumpy Combi HDI 120 5/9 plaza — 14.000 €
  2011 | Diesela | 40.975 km | Zuria
- Citroen Xsara 19 TD VTS 90 zp — 3.000 €
  1999 | Diesela | 210.000 km | Horia
- Peugeot 307 SW Hdl 110 zp — 4.000 €
  2004 | Diesela | 201.250 km | Beltza

Iragarkia jartzeko: **943 25 05 05**

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

SASKIBALOIA

# Euskal Kopako finalerdia jokatzeko txartelarekin hasi du denboraldia Aloñak

## Bazkide egiteko kanpaina martxan jarri dute

**ARANTZAZU EZKIBEL** | OÑATI

Aloña Mendiko Natra-Oñati saskibaloi taldeak aurpegi berriekin hasi du denboraldia. Liga datorren eguenean hasiko duten arren, aste bukaeran Euskal Ligako partiduak jokatu dituzte.

Partiduen aurretik, egubakoitzean, taldearen aurkezpena egin zuten Oñatiko plazan. Aurten Eneko Blancok hartu du taldearen gidaritza eta laguntzaile lanetan Aitor Ugarte izango du.



Sustraitxo gaztetxoei fruta banatzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Bazkide egiteko kanpaina abian da. | J.A.



Odriozola, Cavada eta Osa dira jokalari berriak. | J.A.

### Hiru jokalari berri

Iazko taldea oinarri hartuta hiru fitxaketa egin dituzte oñatiarrek taldea indartzeko: Josean Cavada donostiarra –2,05 metro; Xabier Osa zarauztarra –1,96 metro; eta Xabi Odriozola azkoitiarra –1,95 metro. "Josean eta Odrik barruko jokoa egingo dute, eta Osak base moduan jokatuko du", azaldu du Blanco entrenatzaileak. Azpeitiko Iraurgi taldetik datoz hirurak. Hala ere, Josean Cavada Bartzelonan ibilitako jokalaria da eta, besteak beste, Ricky Rubio saskibaloi jokalari ezagunaren taldekidea izandakoa.

### Bazkide kanpaina

Bazkide egiteko Aloña Mendiko lokaletik pasa beharko da martitzenetan edo egubakoitzetan, 19:00etatik 20:00etara. Urte guztiko abonua da: helduendako 30 euro eta gazte eta langabeendako 10 euro. Abonuarekin liga erregularreko partida guztiak eta bigarren faseko partiduak doan ikusi ahal izango dira. Gainera, hainbat abantaila izango dituzte: egiten diren zozketetan parte hartuko du bazkideak eta etxetik kanpoko partiduetara autobusean joateko aukera izango du. Bazkide ez direnek sarrera ordaindu beharko dute partiduak ikusteko; 2 euro nagusiek eta euro 1 gaztetxoek. Dagoeneko bazkide direnak ere lokaletik pasa beharko dira txartel berria jasotzera; iazko txartelak ez du balio.

### Euskal kopako finalerdiak

Euskal kopako bi partiduak irabazi ditu taldeak: EHUren aurka 61-69 eta Araberriren aurka 66-60. Urriaren 6an final-erdiak jokatuko dituzte Azpeitian.

**ENEKO BLANCO** | ENTRENATZAILEA

### "Zubikoara etortzen diren denak pozik irtetea izango da aurtengo helburua"



GOIENA

Eneko Blancok ilusioz hartu du Aloña Mendiren gidaritza. Taldeak lan txukuna egitea da helburua.

**Denboraldi berriari begira nola osatu duzue taldea?**

Aurten talde txukuna dugula uste dut. Iazko taldea oinarri hartuta hiru fitxaketa egin ditugu: Josean Cavada, donostiarra; Xabier Osa zarauztarra; eta Xabi Odriozola azkoitiarra. Taldeari laguntzera etorri dira eta uste dut lan handia egingo dutela.

**Non jokatuko dute?**

Josean eta Odrik barruko jokoa egingo dute eta Osak, ostera, base moduan jokatzen du.

**Dagoeneko EBA liga ezagutzen duzue. Zein izango da helburua?**

Helburua izango da partidu guztietan aurpegia ematea, baina batez ere etxeko partiduetan. Gustatuko litzaiguke Zubikoara etortzen diren denak pozik irtetea. Etxeko partidu denak irabaztea da helburua.

ZIKLISMOA

# Caja Ruraleko ziklistak izan ziren azkarrenak Oñatin

## 25. San Migel saria jokatu zuten zapatuan, Lehendakari sarirako erabakigarria izan zen proba

**A.E.** | OÑATI

Caja Ruraleko ziklistak jaun eta jabe izan ziren zapatuan Oñatin jokatu zen San Migel sarian. Olakuako helmugara iritsi ziren lehenengo hiru ziklistak Caja Ruralekoak izan ziren; hala, talde onenaren saria eroan zuten.

Goizeko 10:00etan hasi zuten 102 ziklistek 100 kilometroko proba. Oñatikoa denboraldiko azkena izaten da eta hori asko nabaritzen dute txirrindulariek. Hala, zapatuan, parte hartu zuten 102tatik 59 bakarrik sartu ziren helmugara. Gainerakoak bidetan geratu ziren.



Zapatuko probaren ondoren podiuma osatu zuten ziklistak. | ARANTZAZU EZKIBEL

### Helmugara ihes eginda

Etxeko lanak ondo eginda ekarri zituzten Caja Ruraleko gazteek. Proban buru belarri sartu ziren hasieratik eta euren nagusitasuna nabarmena izan zen. Elgetatik Bergararako bidean ihes egin eta Oñatiko Olakua auzoko helmugara bakar bakarrik iritsi zen Migel Angel Benito –2:28:58. Haren atzetik 13 laguneko tropeltxoa sartu zen, sei segundora. Helmugan bigarrena Dario Hernandez izan zen eta hirugarrena Ibai Salas.

Mendiko sailkapenari dagokionez, Seguros Bilbao taldeko Alexander Unzuetak irabazi zuen saria. Probaren ondoren, Artxubi tabernaren aurrealdean banatu zituzten sariak. Aloña Mendiko presidente Anton Inza eta Udaleko kirol zinegotzi Ainhoa Martinen eskutik jaso zituzten sariak txirrindulariek.

### Lehendakari saria

Zapatuko proba Lehendakari sarirako azken proba puntuagarria izan zen. Debabarrena taldeko Aitor Gonzalez iritsi zen Oñatira lehendakari maillotarekin, baina Oñatiko proba erabakigarria izan zen. Zapatuan Gonzalez atzean geratu zen; hala, NaturGas taldeko Imanol Estevezek maillota eta saria kendu zizkion. Debabarrena taldean dauden debagoiendarrek gogor egin dute lan euren taldekideak maillota irabazteko, baina azkenean ezin izan dute saria lortu. Zapatuan Eneko Lizarralde 43. postuan sartu zen eta Kanpanzar taldeko Iker Eskibel 44. tokian.

ARETO FUTBOLA

# Manuel Muñozen omenezko txapelketan Ateneo Labastida izan zen onena

- Labastida eta Kirol Sport gonbidatu zituzten
- Eskoriatzak zapatuan hasiko du liga, 18:00etan




Hiru taldeek elkarrekin atera zuten argazkia. | ARANTZAZU EZKIBEL

ARANTZAZU EZKIBEL | ESKORIATZA

Manuel Muñozen omenezko hirunako txapelketa jokatu zuten zapatuan Eskoriatzan. Etxeko taldea, Orkoieneko Kirol Sport eta Atenea Labastida ibili ziren nor baino nor gehiago.

Lehenengo partiduan Labastidak 4-0 irabazi zion Eskoriatzari. Bigarrenean Kirol Sport taldeak 4-1 irabazi zion Eskoriatzari. Azkeneko lehia, hortaz, erabakigarria izan zen.

**Lehia borrokatua**

Kirol Sport markagailuan aurretik ibili zen partidu guztian. Lehenengo zatian 1-0 irabazten hasi ziren nafarrak. Bigarrenean 2-1 aurreratu ziren, baina partidua bukatzeko minutu gutxi falta zirela markagailuari buelta eman zion Labastidako taldeak: 2-2, 3-2, 3-3 eta 3-4. Hala, Arabako federazioko presidentearen eskutik garaikurra jaso zuten.

**Bigarren omenezkoa**

Manuel Muñozen omenez egindako bigarren txapelketa izan zen zapatukoa. Azkeneko partiduaren aurretik Muñoz zenaren semeei oroigarri bana eman zien Eskoriatza kirol elkarteak. Txapelketa amaieran, berriz, sari banaketa ekitaldia egin zuten.

Narciso Pavo areto futbol saileko arduraduna pozik zegoen txapelketak izandako mailarekin. Kirol Sport eta Labastida 2.B mailan daude, Eskoriatza baino bi maila gorago. Liga zapatuan hasiko dute Debabarrena taldearen aurka, 18:00etan.

## Jantzi berriak erakutsi dituzte

Eskoriatza kirol elkarteak aurtengo denboraldian erabiliko dituen jantzi berriak aurkeztu ditu.

Saskibaloian hiru talde izango dituzte: nagusiak, gazteak eta kadeteak. Areto futbolean euskal ligako taldea, ohorezko ligako taldea eta gazteen mailakoa. Pilota sailean, bestalde, bost pilotari arituko dira lehian. Zuzendaritzako kideekin batera argazki erraldoia atera zuten Manuel Muñoz kiroldegiaren aurrealdean.



Eskoriatza K.E.ko jokalariak eta zuzendaritza. | FERNANDO RASO



Atzoko txapelketan lehiatu ziren arkulariak. | GORKA BIKUÑA

BASOKO ARKU TIROKETA

# Gipuzkoako arkulari onenak Arantzazun izan dira

A.E. | OÑATI

Atzo goizean basoko arku tiroketako IV. San Migel saria jokatu zuten Arantzazuko Zozopase inguruan. Lehiaketa, era berean, Gipuzkoako txapelketa ere bazen. 38 arkulari lehiatu ziren Txantxiku Arkulariak taldeak antolatutako txapelketan, guztiak euskal herritarrak, Huescatik etorritako bi izan ezik. Antolatzaileak gustura geratu dira emaitzarekin.

**Hainbat modalitate**

Hainbat arku mota daude eta, hain zuzen, mota horien arabera egin zuten sailkapena. Arku librean Ordizia taldeko Johnny Tamayo nagusitu zen; arku instintiboan Ilde Sanchez eta Ana Cerro Ordizia taldekoak nagusitu ziren; arku zuzen edo *longbow*-an Antonio Vidriales aretxabaletarra izan zen onena; arku biluzian, Iñaki Odriozola Txantxiku Arkulariak taldeko oñatiarra; eta arku mekanikoan, Ordizia taldeko Jaime Martinez.

Gainera, emakumezkoen arku instintiboan Irune Lacalle aretxabaletarra bigarrena izan zen eta Oihana Marzan angiozartarra hirugarrena. Arku biluzian, aldiz, Martin Letamendi eta Xanti Ugarte oñatiarrak 2. eta 3. sailkatu ziren, hurrenez hurren.

ESKUBALOIA

# Bergarak galdu egin zuen Gure Auzuneren aurkako lehia

Bergara K.E.ko eskubaloi taldeak Gure Auzune taldearen aurka jokatu zuen zapatuan denboraldiaurreko azken lehia, eta galdu egin zuen 26-27. Defentsan nahiko motel ibili ziren bergararrak. Behin denboraldiaurrea amaituta, datorren zapatuan liga hasiko dute; etxean izango da, 16:30etik aurrera.




JOSETXO ARANTZABAL

ATLETISMOA

## Arrasate-Oñati lasterketan izena emateko epea, zabalik

Urriaren 13an jokatuko duten Arrasate-Oñati herri lasterketan izena eman gura duenak *www.kirolprobak.com* atarian egin dezake. Urriaren 11ra arte eman ahalko da izena eta egunean bertan ez dute izen-ematerik onartuko. Izena emateko ordaindu beharrekoa da: alokairuzko txiparekin 15 euro; txip horia dutenek, ostera, 13 euro. Oñatitik Arrasatera autobusez joanez gero 2 euro gehiago ordaindu beharko dira. 11,6 kilometroko lasterketari Arrasateko Portaloian emango zaio hasiera, 17:00etan. Bost minutu lehenago patinatzaileak irtengo dira Portaloitik.

**Xabier Infante 'Artza'** | Aloña Mendi igeriketa saileko arduraduna

# "Elitean oso garrantzitsua da erretiroa noiz hartu jakitea; Phelps-ek asmatu egin duela uste dut"

- Xabier Infante 'Artza'-k Aloña Mendiko igeriketa saila kudeatzen du
- Guztira, 40 igerilari federatu dituzte eta maila eskolarrean 90 neska-mutiko

XABIER URTZELAI | OÑATI



Xabier Infante, joan den astean, Oñatiko igerilekuan. | MIREIA BIKUÑA

Xabier Infantek (Gasteiz, 1956) bizitza osoa darama igerilekuan sartuta. Gaztetan Judizmendiko igerilaria izan zen, eta ondoren entrenatzaile lanetan hasi zen, Gasteizen lehenengo, eta Oñatin gero. Gaztetako kirol curriculum txukuna du, bular estiloan Euskal Herriko txapelduna izan zen eta infantil mailan Espainiako Txapelketan hirugarren sailkatu zen. Orain, berriz, gertutik jarraitzen du gazteek igerilekuan egiten duten lana.

**Guraso asko ibiliko dira ikasturte berriaren aurrean seme-alabak nora bideratu erabakitzen. Zergatik aukeratu igeriketa?**

Egia esan, Oñatin nahiko lotuta dugu dena. Izugarrizko eskaintza dugu, eta jendearen erantzuna ere halakoxea da, oso positiboa. Eta zergatik aukeratu igeriketa? Bada, oso kirol osatua delako, gorputzeko atal guztiak lantzen direlako, psikomotrizitatea... Abantaila handiak ditu igerilekura etortzeak.

**Horrenbestez, Oñatin ez duzue harrobia lantzeko arazorik.**

Orain arte ez.

**Beste gauza bat da neska-mutikoak txapelketetan hasten direnean igeriketan jarraitu nahi izatea.**

Bada, hor ere ez dugu arazorik, neska-mutiko mordoa ditugulako klubean; oso talde polita dugu. Igerileku oso txikia dugu, hori bai, eta beti egoten da beteta.

**Momentu honetan bailaran txapelketetara joaten den klub bakarra zarete.**

Federatu mailan Oñatin bakarrik ditugu igerilariak, bai. Bergaran etenaldi moduko bat izan dute, eta eskola arteko igerilariekin ari dira.

**Zenbat igerilari dituzue txapelketetan esku hartzen?**

Euskal Herri mailan 27 igerilari izan ditugu lehian eta beste lau Espainiako Txapelketan izan dira. Guztira, 40 bat federatu ditugu. Eskola mailan, berriz, 90 neska-mutiko izango ditugu.

**Espainiako Txapelketan hainbat ordezkari izan dituzue.**

Bai, oso urte ona izan dela esango nuke. Jonek [Muxika] aurrerapauso handia egin duela esango nuke. Iaz ondo ibili zen, baina aurten Euskal Herri mailako txapeldun izan da, eta Espainiakoan, Sevillan, bere kategorian bigarren izan zen. Neguko txapelketaz batera udan ere ibili da, eta kalitate aldetik aurrerapausoa egin du. Bestetik, Ane [Sanz de Galdeano] Euskal Herri mailan beti ibili da aurreneko hiru postuetan, eta aurten Espainiako Txapelketan inoizko emaitza onena lortu du, maila absolutuan 25. postua. Hori aintzat hartzeko moduko marka da.

**Gogorra da igeriketa?**

Izatez, oso kirol gogorra da, eta ederra. Ikusgarria izaten da lasterketa hasi aurreko unean egoten den tentsioa. Adrenalina eta nerbioak topera egoten dira, nahiz eta munduko onena izan. Duela gutxi Phelps-i entzun nion lasterketa hasi aurreko hamar minutuak oso gogorrak direla.

> **"Euskal Herri mailan 27 igerilari izan ditugu lehian, eta lau Espainiakoan"**

> **"Oñatin oso eskaintza zabala dugu, eta baita eskaera handia ere"**

**Jarraitu dituzu Joko Olinpiarrak?**

Bai, noski.

**Eta zer iruditu zaizu?**

Igeriketan salto kualitatibo handia egon dela, eta ez dira Phelps edo Lochte bakarrik izan. Igerilari mordoa egon da, eta oso-oso onak. Azken urteotan aurrean ibili diren igerilariek baieztatu dute ze maila ona duten. Orokorrean oso maila ona egon da, baita emakumezkoetan ere.

**Mireia Belmonte izan da hemen albiste.**

Jakinekoa zen Mireia Belmontek oso maila ona duela, baina hitzordu garrantzitsuetan psikologikoki behera egiten zuen eta ez zituen nahi moduko emaitzak lortzen. 400 estilotan makal samar ikusi nuen, eta hori da haren modalitatea, baina gero, 200 metroko tximeleta-proban eta 800 metroko lasterketan izugarrizko lana egin zuen.

**Zelako garrantzitsua den entrenatzaile on baten lana... Kasu horretan, batez ere, arlo psikologikoa landu nahi denean.**

Inongo duda barik. Mireia Belmonte gazte mailatik hor-hor ibili da, munduko onenen artean. Baina, maila absolutuan daukan maila erakustea falta zitzaion, behera etorrita zegoen, makal samar, eta aurten lortu du.

> **"Joko Olinpiarretan salto kualitatibo handia egon da, orokorrean"**

> **"Phelps izan da orain arte onena, eta hala izaten jarraituko du"**

**Michael Phelps-ek agur esan du.**

Niretzako egin zezakeen gauzarik onena egin du. Kirolari profesional batendako oso-oso garrantzitsua da jakitea noiz esan behar duen agur, eta beste lau urtez jarraitzea, psikologikoki, oso gogorra izango zen.

**Batez ere maila horretan...**

Noski. Kontua ez da kirola egiten jarraitzea, baina bai maila horretako emaitzak lortzen jarraitzea, eta Phelps-en mailako izarrek halako markak behar dituzte. Erretiroa garaiz hartzea oso garrantzitsua da, garrantzitsuena. Orain arte onena izan da, eta hemendik aurrera ere halaxe jarraituko du.

**Badirudi izar berri bat jaio dela Txinan, Ye Shiwen.**

Bai eta ez. Haren lasterketak ikusita, crawl estiloan oso ona da, baina gainontzekoetan... Beste igerilari gazte batzuek sorpresa handiagoa eman digute... Bestalde, Txinatik datozen kirolariekin zalantzak izaten ditut...



Gurasoa seme-alabekin atseden hartzen. | KATCAT

# Denboraren kudeaketa berreskuratzea da erronka

Itziar Bartolomek oporraldien efektua pasa aurretik neurriak hartzeko dio

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Amaitu dira oporrak eta itzuli gara eguneroko gurpil zorora. "Denboraren polarizazio hori oso bortitza da, eta gainera desorekatuta dago", dio Bartolomek *Guraso.com* atarian egindako azken hausnarketan. Oporraldien efektua pasa aurretik zenbait neurri hartzeko gomendioa egiten du; "Galdetu zuen senari zer duzuen gustukoen? Zein gauza egingo zenituzkeen denbora izanez gero, eta noski, saiatu egiten". Bizitza honek denbora lapurtzen digula uste du Bartolomek, eta haurrengan ere eragina duela ohartarazten du. "Haurrek sarrien entzuten duten hitza "Ez dut denborarik!", "Goazen, berandu goaz!", "Azkar esan, presaka noa eta!"... direla ohartu eta saiatu denborarekiko duzun zure hizkera eta jarrera aldatzen. Jarrera presati horrekin, haurrari erakusten ari garena da denboraren kontrola ez dagoela gure esku, eta beti egiten digula ihes". Agendak ez betetzeko, gorputzari kasu egiteko, eta gutxiagorekin bizitzerik badugu lan orduak murrizteko gomendatzen du. "Ea horrela, (...) denbora faltarekin nagusiok bizi dugun gaitz bitxi hau gainditu, eta gure haurrei beste bizimodu lasaiago bat transmititzea lortzen dugun!", dio. *Denbora eta Bere Sinboloak* liburua ere gomendatzen du.

# Eskolara eramaten duten hamaiketakoa prestatzeko aholkuak

L.Z. | ARRASATE

Hasi da ikasturtea, eta bueltatu gara umeen goiz erdiko hamaiketakoa egunero prestatzeko zereginera. Pastel industrialak izan ohi dira aukera errazena, baina kontuan hartu behar dugu haurraren hazkundean osasungarriak diren elikagaiak aukeratu behar ditugula gurasook.

Antolatzea da kontua, eta umeen elikadura modu globalean aurreikustea. Gosaltzeko ogia, esneki bat eta fruta aukeratzen ditugun moduan, goiz erdiko mokadutxoak dieta horren osagarri izan beharko luke. Hala, adituek fruta freskoa —platanoa, mandarina...—, fruitu lehor naturalak —intxaurrak, hurra...—, ogi-makilatxoak edo ogitarteko txikiak gomendatzen dituzte. Ogitartekoa gazta freskoarekin eta urdaiazpikoarekin osatu dezakegu.

Garrantzitsua da haurrek egunean bospasei otordu egitea. Ordu luzaz mokadurik egin gabe dagoen haurrak errendimendu maila —fisikoa zein intelektuala— txikiagoa izango du, eta aldartean nabarituko zaio.

**Merienda ere onuragarria**

Gogoratu, bestalde, merienda egitea oso garrantzitsua dela, eta ura izango dela beti edari egokiena. Mugimendu askoko arratsaldea aurreikusten badugu energiadun merienda aukeratuko dugu umearendako; ogitartekoa edo fruta. Aldiz, arratsalde lasaia aurreikusten badugu pare bat pieza fruta edo jogurt bat nahikoa izango dira.



Gazte talde bat fruta kontsumitzera gonbidatzen. | LAMOCHILA.ESPECTACULAR.COM

## Oinetako desegokiek luzarora malformazioak sor ditzakete; ondo aukeratu behar dira

L.Z. | ARRASATE

Estetika, moda edo prezioa hartu ohi ditugu kontuan seme-alabei oinetakoak erosterakoan, baina podologoek bestelako gomendioak egiten dizkigute. Gehiago baloratzen dute zapatak oina ez estutzea, eta erasoa zein funtzionala izatea. Takoi altuak baztertzeko diote, eta tenis -oinetakoez ez abusatzeko. Azkenik, malformaziorik edo arazorik sumatuz gero podologoaren kontsultara joateko gomendatzen dute.

**Oinetakoak nola aukeratu**

Gutxienez bizpahiru oinetako pare eduki behar dira, eta garrantzitsua da txandaka erabiltzea. Ohikoa da anaia-arreba nagusien oinetakoak erabiltzea, eta nagusiki zapata pare berdina erabiltzea, baina ez dira ohitura egokiak.

Adituek diote oinetakoak arratsaldez erosi behar direla, oinak handituen daudenean. Oinetakoak probatu egin behar dira, eta erabili ohi diren galtzerdiekin gainera. Oin-punta zabala eta gogorra duten oinetakoak aukeratu behar direla diote, behatzak eroso egon daitezen. Komeni da ere oinetakoak arinak eta bigunak izatea. Gomendatzen dute beti bi oinetakoak probatzeko, eta minutu batzuk erabiltzeko. Gero, ziurtatu ez dutela oinean larruturik edo gorritasunik eragin.

Oinak oinetakoak sartzeko tresnarik gabe sartu behar du oinetakoan. Hatz lodiak arazorik gabe sartu beharko luke orpoaren eta oinetakoaren artean. Azkenik, pasa eskua oinetakoaren barruko aldetik oinetakoaren josturen egoera eta akabera egokia dela ziurtatzeko.

## Nabarmen garestitu da ikasturte hasiera aurten

L.Z. | ARRASATE

Hasi da ikasturte berria eta inoizko garestiena izan dela irakurri eta entzun dugu hainbat komunikabideetan. Bestelako albisteak ere eman ditu eskolarako itzulera honek: tupperrak hainbat ikastetxetan, unibertsitate gela bat gainezka Valentzian, Berriozaren autobus zerbitzua kendu dutela... Gurean ere kexu dira hezkuntza komunitateko hainbat eragile nahiz eta Eusko Jaurlaritzak behin eta berriz errepikatzen duen gurean ez dela murrizketarik aplikatu. Baikara elkarteak zonaldekako bilerak egiten dihardu, eta egoera kezkagarria dela eman dute jakitera.

**Murrizketak**

Jangelako menua 0,60 zentimo garestitu dute ikasturte hasiera honetan. Horrek, ikasturtean 114 euro gehiago suposatzen ditu ohiko erabiltzaileendako.

Testu liburuen mailegu sisteman ere ez dira aurreikusitako neurriak bete. Gainera, BEZ zergaren igoera dela-eta eskola materialak gora egin du, baita zenbait matrikula tasak ere, gehienbat unibertsitatean.

Ratioek ere gora egin dute. Lehen Hezkuntzan banaketa ez da lehen moduan taldea 25 ikaslera iritsitakoan automatikoki egiten. Orain 26-27 ikaslera ere iristen dira talde batzuk. Bigarren Hezkuntzan 30 ikasleko taldeak ere ba omen daude.

Behar bereziko haurren hezitzaileak edo errefortzu linguistikoko irakasleak, berriz, iaz baino 80 bat gutxiago dira EAEn nahiz eta haur kopuruak gora egin duen ikasturte honetan.

Garraioan, berriz, batu egin dituzte zenbait zerbitzu. Hala, zenbait kasutan haurrek buelta handiagoa eman behar izaten dute autobusean eskolara iritsi aurretik autobus bakar batek egiten baitu lehen bi edo hiruren artean egiten zuten ibilbidea.

Donostiako zenbait ikastetxetik jakinarazi dute, bestalde, kendu egin dizkietela eskolaz kanpoko jarduerek eragiten duten jende mugimendua ikuskatzeko zeuden atezainak, eta Guraso elkarteek jaso dute abisua; aurten dirulaguntzek %10 egingo dute behera.

Ikusteko dago ikasturteak zer emango duen, baita Alderdi Popularrak onartu gura duen Hezkuntza Lege Organiko berriak zer ekarriko duen. Bizpahiru aste barru jakingo dugu gehiago.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**
guraso.com

# KULTURA




NCC taldeko abeslari Gonzalo eta ikusleak. | JOSETXO ARANTZABAL

# Kooltur Asteburuak ikusleak xaxatzeko balio izan du

- Lobo Electriko eta NCC taldeak igo ziren taulara egubakoitz gauean
- Zapatuan McOnak eta Iheskide bizkaitarren txanda izan zen

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARRASATE

*Kooltur Ostegunak* ekimenaren ikasturte berrirako motorrak berotze aldera *Kooltur Asteburua* egin dute. Asteburu bihurria eta indartsua izan da. Bi gau zoro.

Kooltur ekintza taldeak eta Arrasateko gaztetxeko asanbladak lau talde gonbidatu zituzten egubakoitz eta zapatuko kontzertuetarako.

### Aspaldiko lagunak

Aspaldiko lagun zaharrekin hasi zuten asteburua. Gaztetxeko oholtza gainera Lobo Electrico taldea igo zen lehenengo. Esan behar da, gainera, atseden luze bat hartzekoak direla tolosarrak. Hala, oroitzapen onarekin utzi zituzten zaleak.

Ohikoa den bezala Santi abeslariak *frontman* ikusgarria dela erakutsi zuen. Ikusleak xaxatu zituen hasieratik, euren inplikazioa bilatu nahian. Lobo electriko taldeak rocka egiten du, rocka zentzu zabalenean ulerturik. *Artefactos Magicos* bigarren diskoko abestiak jo zituzten lehenengo. Estilo askotako abestiek disko irekia dela erakusten dute. Ondoren, entzuleen gozamenerako, lehenengo diskoko abesti klasikoak jo zituzten; besteak beste, *Caballo sonico*.

Lobo Electriko taldean ez da ohikoa bertsioak entzutea; bada, egubakoitzean The Stooges taldearen bertsio bat jo zuten. Eta kontzertuarekin amaitzeko *¿Has visto ya al lobo eléctrico?* abesti klasikoa jo zuten.

### Bi taldeen arteko konplizitatea

**Elorrio.** Neska gazte eta euskalduna, Durangaldean haurrak zaintzeko prest, esperientziarekin. Yanire. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 657 -77 54 37.

**Elorrio.** Irailetik aurrera, arratsaldetan, umeak zaintzeko prest (Elorrixon). Esperientzia handiarekin. Informazio gehiagorako deitu 688-64 06 04.

**Elorrio.** Adineko pertsonak paseatzera ateratzeko prest. Goiz zein arratsaldetan. Interesa baduzu, deitu telefono zenbaki honetara: 688-64 06 04.

**Elorrio.** Haur hezkuntza eta Hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte euskalduna, arratsaldez haurrak zaintzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! Interesa baduzu, deitu: 688-64 06 04.

**Zumaia.** 36 urteko gitarrista berbena edo beste proiektutan edo taldetan jotzeko prest .... Abestea ere posible izango nuke... Esperientzaduna... Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 666-27 40 55.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Gitarra eskolak Oñatin.** Gitarra eskolak jaso nahi nituzke, Oñatin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 74 87 51

**Ingelesa.** Ingeles filologia daukan pertsona behar da Advance azterketa prestatzen laguntzeko. Deitu telefono honetara: 628 80 03 44

**Oñati.** DBH 4. mailako eskolak emango dizkidan norbait behar dut, kurtsoan zehar laguntzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 627 91 23 21

### 502. EMAN

**Arbizu.** LH, DBH, batxilergoa eta helduentzako taldeak. Izena emateko deitu 676- 09 72 48 telefonora edo idatzi inglesarbizu@gmail.com helbidera.

**Bergara.** Ingelesko eskolak ematen ditut Bergaran . Maila guztiak. Talde txikietan. Azterketak prestatzeko: cambridge eta heo. Baita enpresarako eskolak ere. Goizez, eguerdian edo arratsaldean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618-91 32 89.

**Bergara.** Neska Lehen Hezkuntzan eta DBHn eskola partikularrak emateko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 77 40 26

**Durangaldea.** Psikologo euskaldunak ikasketa teknikoak eskaintzen ditu. Tel.: 679-38 23 69.

**Durangaldea.** Alemaniera klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle truke eta azterketen prestaketa. HEO. Tel.: 670-79 33 12.

**Elorrio.** Lehen hezkuntzako edozein kurtsora zuzenduta, arratsaldez klase partikularrak emateko prest. Hezkuntza berezia eta Haur hezkuntza ikasketak ditut eginak. Interesa baduzu jarri harremanetan nirekin: 688 -64 06 04.

**Oñati.** Irakasle eta psikopedagogoak eskola partikularrak ematen ditut: klase pertsonalizatuak (euskara indartzeak, ulermen arazoak, eta abar), bakarka edo talde txikietan. Kontsulta ezazu konpromisorik gabe. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685-76 83 16 / 943-78 07 49.

**Tolosa.** Lehen hezkuntzako eta haur hezkuntzako irakasle ikasketak dituen esperientziadun neska arduratsua klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko prest agertzen da. Interesa baduzu, deitu 620-00 8 925 telefono zenbakira.

**Durangaldea.** Neska gaztea, ingeniaria eta durangarra, klase partikularrak emateko prest, LH, DBH edota Batxilergoko ikasleei. Edozein ikasgaitan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 635-20 50 12.

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Behorra eta moxala salgai.** Behorra eta bere 4 hilabeteko moxala salgai. Deitu 15:00 etatik 18:00 etara. Tel.: 679-23 47 46.

**Gorbeiako ardi txakur umeak salgai.** Gorbeiako ardi txakur kumeak salgai. Uztailaren 1ean jaiota. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 690 -20 55 36. Mikel

### 703. EMAN

**Irailean jaiotako katakume poli-politak.** Irailean jaiotako katakume poli-politak familia berri baten bila dabiltza. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 626-12 57 47.

**Katakumak opari.** Lau katakuma beltz-beltzak oparitzen dira. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606-70 91 18

### 704. BESTELAKOAK

**Txakurra galdu Arrasaten.** Abuztuaren 13an Bedona inguruan, Arrasate, artzai txakur zuria galdu zen. Oso alaia eta beti jolasteko gogoz. Lepoko marroixka dauka. Ikusi baduzue mesedez deitu 665 71 44 76 edo 653 70 33 44 telefon zenbakietara.

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Abadiño.** Lursaila salgai Matienan (AbadiÒo), Arzubia kalean, 2.000 m2, erreka ondoan eta bide ertzean. Aproposa ortua hartzeko. Hainbat fruitu arbolaz hornitua. Matienatik hiru minitutara oinez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 658 -75 65 12.

**Almirante trajea.** Lehen jaunartzeko almirante trajea salgai. Neurria: 10. Zapatak izan ezik gainontzeko guztia. Behin erabilitakoa, 150 €. Deitu telefono honetara: 618 00 08 28

**Altzariak salgai.** Altzariak salgai: ohearen estruktura eta bi mahaitxo. Diseinu modernoa. Neurriak 1,50m x 1,90m. Berri -berria dago (urte bete). Prezioa 450euro (bere salneurria dendan 1.800euro), koltxoia. Neurriak 1,50m x 1,90m. Prezioa euro, ikasteko mahai zuria. Berri -berria dago. Prezioa 50euro, umeen logelarako bost kaxoidun sinfonierra. Prezioa 85euro, Banak markako egurrezko apalak. Prezioa 150euro, Banak markako mahai baxua. Prezioa 65euro. Tel.: 610-41 55 11.

**Apple Macbook Pro salgai.** 15 hazbeteko apple Macbook Pro (Mid 2010) ordenagailu eramangarria salgai. Core i7 prosezagailua, 8gb-eko ram memoriaduna, mac os x lion sistema eragilearekin. Egoera ezinhobea 1.000 euro. Deitu: 605-98 37 06.

**Aramaio.** Zabola auzoan 10.119,34 metro koadroko bi lursail salgai, etxebizitzak egiteko aukerarekin; proiektu, lizentzia eta guzti. 629-51 39 22/ 636-49 46 89.

**Armairua eta ohea salgai.** Haritzezko armairua eta ohea salgai, 1.000 euroan. Negoziagarriak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600 -64 90 96.

**Aulkirako patinetea.** Bigarren umea eramateko patinete unibertsala salgai. Bumprimer etxekoa. Ia erabili gabea. 45 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 663 04 53 99

**Bernedo.** Lursail eraikigarria Urturin salgai dago, Bernedon. Gasteizetik 40km-tara dago, eta Izkiko golfetik 3minututara baino ez. 308m2 eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk ditu; baita golfeko hotela ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665 -75 78 07 (Ana)

**Biolinak.** Hasiberriendako bi biolin salgai Debagoienean. Negoziatzeko. Deitu 643 76 79 64 telefonora.

**Chico markako karrotxoa salgai.** Chico markako karrotxoa salgai. Prezioa 50euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610-41 55 11.

**Furgonetako abanzea salgai.** Furgonetako sebring modeloko abanzea salgai. Guztiz zarratzen da. Neurriak: 370x310 alt 210. 17,40ko pisua. Barruko gela daroa (200x170) eta lurra. aretxalarra@yahoo.es

**Furgonetarentzat ohea bihurtzen den altzaria** . VW T4 furgonetarentzat ohea bihurtzen den altzaria salgai. Bi arkoi dira eta gauzak gordetzeko edukera handia dute. Koltxoiak barne. 667 95 73 16.

**Haurrak bizikletan eramateko aulkia salgai.** Erosoa eta merkea. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 -17 43 67 (Javier)

**Izozkailua.** Egoera onean dagoen izozkailua (arkoia) salgai. Fagor markakoa. Sakonera 65zm, altuera 90zm eta zabalera 1,50zm. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94-681 37 84 (gauez).

**Mutilendako trajea.** Prakak, jaka eta txalekoa. Beltza. 40 neurrikoa. Maritxu Kajoirako aproposa. Deitu 21:30etatik aurrera: 630 71 92 67

**Piano elektrikoa salgai.** Yamaha Clavinova CLP 150 piano elektrikoa salgai. Kontaktua: 650-17 22 85 edo stratokaster@gmail.com

**Lowepro Primus AW.** Lowepro motxila salgai.Mendira joateko egokia eta erosoa. Reflex argazki kamera tele-objektiboarekin, beste bi objektibo sartzen dira. Gehigarri eta arroparako leku ugari. : 667 95 73 16.

**Sehaska eta haurren aldalekua.** 0-2 urtera arteko minia eta sehaska salgai. Stokke sleepi zuria. 2010eko uztailekoa, egoera oso onean eta gutxi erabilita. 350 euro. Haurren aldagailu zuria (stokke) 150 euro. 648-20 37 75.

**Silver cross kapota salgai.** Berri-berria. Prezioa 650euro (bere prezioa 1.500euro da). 610-41 55 11.

**Xurgagailua.** Akaroen aurkakoa eta kontsumo baxukoa. Gutxi erabilitakoa. 659 62 02 49

**Yamaha Clavinova pianoa.** Yamaha Clavinova piano elektronikoa salgai. Piano ikasketetako oso egokia. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzen dira, edo ikusi eta probatu daiteke. Interesatuek deitu 20:30etatik aurrera. Prezio negoziagarria. 653 73 78 58

### 802. EROSI

**Birkien aulkitxoa.** Birkiendako aulkitxoa erosiko nuke. 663 04 53 99

**Bugaboo patinetea.** Bugaboo etxeko patinetea erosiko nuke. 663 04 53 99 .

**Estetika tresnak.** erosteko prest. Kamilak eta abar. Deitu 619 87 95 57 telefonora.

**Negutegi txikia erosi nahi dugu.** Bigarren eskuko negutegi txikia erosi nahi dugu, 4x12 gutxienez. Txikiagoa ere izan daiteke. Tel.: 695-50 83 55.

**Zilarra erosten dut.** Zilarrezko gauzak erosten ditut: txanponak, etxeko kuberteria eta abar. 657-70 43 16. numipega@gmail.com.

### 803. EMAN

**CDak.** CD pila bat dauzkat emateko. Arrasaten. Ez dira jatorrizkoak. Denetariko estilotakoak. Interesa izanez gero deitu zenbaki honetara: 695785249 (Aitor)

### 806. GALDU

**Bizikleta Bergaran.** Irailaren 3an desagertu da bizikleta. Lapierre 400 modeloa, zuria. 677 63 42 55

**Patinete larrosa.** Abuztuan Aretxabaletako Dagda taberna inguruan patineta larrosa galdu genuen. Nora izena eta telefono zenbaki bat dauzka idatzita. 669 19 57 17 edo 679 49 40 27

### 807. AURKITU

Betaurrekoak Orixol inguruan. Betaurreko pare bat bere poltsan eta zinta beltz eta guzti aurkitu dut Orixol eta Leziaga tartean. 656 72 03 65

### 808. BESTELAKOAK

**Bidali zure ordenagailua Perura.** Hondatuta, zaharra edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainabereren bitartez bidaliko dugu Perura. 655-71 76 66.

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Autoan elkarrekin.** Astelehenetik ostiralera Durangotik Elorriora joateko kotxea konpartitu nahi dut. Elorrion goizeko 08:00etarako egon behar naiz. Gastuak erdibana. Tel.: 633-01 68 32. Javier

# Mapentzako aplikazio ikusgarri berriarekin, eskuragarri dago iOS 6

Beren beregi diseinatutako mapa eta GPS sistema dakar iPhone eta iPaderako sistema eragilearen azken bertsioak, doako deskargan

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

iPhone 5a aurkeztu zutenean iragarri zuten moduan, dagoeneko eskuragarri dago iOSen bertsio berria, seigarrena. Eguaztenean ipini zuten eskuragarri eguneraketa berria iPhone 3GS/4/4S/5, iPod Touch, iPad 2 eta iPad berrietarako. Applek beren beregi diseinatutako mapa eta nabigazio sistema berria da 200 eguneraketa horietatik nabarmenena.



Maps aplikazioa, bi iPhone eta iPad baten. | APPLE.COM

**Agur Google Maps-eri**

iOSen mapen aplikazioak orain arte Google Maps erabili du, baina aurrerantzean Applen bertan diseinatutako mapak eta GPS nabigatzailea izango ditu defektuz. Ahots bidezko GPS nabigazioa (Siri zerbitziarekin integratua, orain gazteleraz ere badagoena) eta 3-Dn grafikoak ikusteko aukera ere ematen du mapa aplikazio berriak. Guztiz hautsi bide dute Googlerekin, Youtuberako aplikazio berezirik ere ez dakar-eta bertsio berriak, nahiz eta azken hori App Storetik deskarga daitekeen.

**Sare sozialak**

Aurreko eguneraketak Twitterrekin erabateko bateratzea bazekarren, bertsio honetan Facebook egokitu dute iOSera eta erabatekoa da integrazioa loturak, argazkiak eta eguneraketak egin ahal izateko.

Aplikazio berririk ere badakar sistema berriak, nagusiena, *Passbook* izenekoa, baina, oraingoz, erabilgarritasun txikia daukana. Sarrera, txartel eta abonuak gordetzeko aplikazioa da, baina banatzaile eta sustatzaile nagusiak zerbitzura batu barik, ezerezean gera liteke Appleren apustu berri hori. Oraingoz, sustatzaile gutxi batzuk besterik ez zaie batu.

Bestetik, telefono deietan zenbait berrikuntza ere badaude: esate baterako, dei bat erantzun ezin denean, automatikoki mezu bat bidaltzeko aukera. Azkenik, Safari nabigatzailean ere erosotasunerako zenbait hobekuntza dakartza iOS 6k.

# Mugikorretarako sistema erraz eta oinarrizko baten dabil lanean Mozilla, Firefox OS izena duena

**J.B.** | ARRASATE

Funtsezko beharrak aseko dituen sistema eragile baten dabil lanean Mozila. Dagoeneko eman dituzte lehen aurrerapen batzuk eta diseinuan eta erabileran oso arina den sistema ikus daiteke makina bat bideotan sarean. Edozein mugikor estandarretan erabil daitekeen sistema eragilea izango dela aurreratu dute, baina, betiere, erabiltzeko erraztasuna lehenetsita. Kontaktuen zerrenda, haiei erraz deitzeko lotura, nabigatzailea eta aplikazioen denda agertzen dira hasiera pantailan, eta sinpletasuna da nagusi. Erabiltzaile arruntaren beharretara egokitutako sistema diseinatu gura izan dute, beste sistema asko bezala, baina, guztiaren atzean, Appleren eta Googleren arteko lehian RIM edota Nokiak halabeharrez utzi behar izandako tokia hartzea legoke. Erabiltzaile kopuru handi batek ez du etengabeko eguneraketak dakartzan merkatua jarraitzen, eta oinarrizko prestazioekin nahikoa dute. Firefoxen sistema eragileak egitura finko eta estandarra ekarriko luke, epe luzerako ezarpenekin eta erabiltzeko erraza eta librea dena aplikazioei dagokienez, hain zuzen ere.



Firefox sistema eragilea, Nexus One mugikorrean. | LEANUXEROS.COM

# Pinterest emakumeentzat eta Instagram gazteentzat

**J.B.** | ARRASATE

Ez dira Facebook eta Twitter gehien hazten diren sare sozialak; haien aurretik, hazkundeari dagokionez, behintzat, Pinterest, Tumblr eta Instagram sareak daude, guztiak irudien partekatzean oinarritutako sare sozialak. AEBetako Pew ikerketa guneak modako sareen erabiltzaileen profilak atera ditu argitara. 1.000 erabiltzaile helduri egindako jarraipen batetik ondorioztatu dute Pinterest erabiltzaileen %12k erabiltzen dutela, baina emakumezko erabiltzaileen artean %19k erabiltzen dute argazkiak sailkatzeko sare soziala. Instagrami dagokionez, gazteenek erabiltzen dute, gehienbat, 18 eta 29 urte bitartekoen artean, %27k. Tumblr da gutxien erabiltzen dena, erabiltzaileen %5ek soilik erabiltzen dute.

Sare sozial nagusiek, gutxiago hazi bai, baina nagusi izaten jarraitzen dute. Hala, Facebook %66k erabiltzen dute, LinkedIn %20k eta Twitter %16k. Erabiltzaileen multzo bi proposatzen ditu ikerketak: sortzaileak eta pilatzaileak.

# Nagusitza lortu gura du Microsoftek datorren urtean

**J.B.** | ARRASATE

Udazkenean konpainiaren geroaren giltzarri izango diren eskaintzekin etorriko da Microsoft. Horietatik nagusiena Windows 8 sistema izango da, Steve Ballmer Microsofteko kudeatzaile nagusiaren berbetan, "epikoa" izango dena eta "bere garaian Windows 95a izan zena baino gehiago" izango dela sistema eragile berriak ekarriko duena. Halaxe berretsi du behin eta berriz esanez Xbox kontsolarekin lortutako emaitzak gainontzeko alorretara zabaldu gura dituztela eta ikerketa eta berrikuntzan nagusi bilakatu, baita Apple-en aurrean ere. Ballmerrek esan du datorren urtean 400 milioi ordenagailu eramangarri salduko direla munduan eta hura izango dela Microsoften merkatu nagusia. Mugikorren merkatua ere ez ei dute alde batera utzi gura eta Lumia 920 modeloan daukate ipinita Microsoftekoek fede osoa. Windows Phone 8 sistema eragile berriarekin etorriko da hori ere.

# Begi-kontaktuak 'troll' jokaera apal dezakeela aztertu dute

**J.B.** | ARRASATE

Oldarkor eta iraingarriak diren iruzkinak egiten dituzten erabiltzaileei esaten zaie *troll* eta sareko foro gehienetan ugaldu egiten dira puntu batetik aurrera. Internetekin lotutako fenomeno oso aztertua da psikologoen artean eta azken teoria batek dio begi-kontakturik ezak dakarrela *troll*-en indarkeria horrenbeste haztea.

Israelgo Haifako unibertsitatean egin dute proba, foro baten modu anonimoan eta webcam bitartez iruzkinak egiten jarri dituzte erabiltzaileak eta frogatu dute begi-kontaktua egon den kasuetan iruzkinak askoz ere apalagoak eta begirunezkoak izaten direla. Ikerlarien arabera oinarrian legoke begiek hurkoaren sentimenduak ulertu ahal izateko informazio asko ematen dutela eta hostilitatea gutxitu oso modu nabarmenean, enpatia eta komunikazioa erraztuz. Arrotzak ziren kasuetan ere gauza bera gertatzen dela ikusi dute.

## Profiletarako diseinu berriak atera ditu Twitterrek, irudi gehiago sartzen lagata

Argazkien atalean berrikuntzak eginda, diseinua aldatzen jarraitzen du Twitterrek. Profil baten hasierako irudi moduan argazki bat sar dezakete aurrerantzean erabiltzaileek, berdin-berdin, web bitartez edo aplikazio berezietan argazkia txertatuta. Txioen denbora-lerroaren gainean agertuko da argazki berria. *Twitter.com*-en ere hondoko argazkia aldatzeko aukerak hor jarraitzen du, eta, aldaketak amaitzeko, aldatu egin dute argazkien sorta agertzen den lerroa. Argazki horien miniaturak datozen atalak aurrerantzean pantailaren ezkerreko aldean ageri dira, txioa idazteko botoiaren alboan.

## Behin-behineko konponbidea eskaini du Microsoftek Poison Ivy birusari aurre egiteko

Segurtasun akatsa konpondu badute ere, zuloa ez dago guztiz itxita. Alarma guztiak piztu zituen aurreko astean Microsoftek Poison Ivy birusa zela-eta. Bada, eguena ezkero, horri aurre egiteko eguneraketa bat dago eskuragarri, baina konponbide hori aldi baterako besterik ez da baliagarria izango. Birus horrek segurtasuna hautsi eta erabiltzaileen datuak hartzen ditu. Microsoft Explorer nabigatzailearen bitartez kutsatzen da eta zenbait erakunde ofizialek dagoeneko gomendatu dute probisionalki, behintzat, nabigatzaile alternatiboak erabiltzeko.

## Google 'on line' publizitatearen alor guztien jabe egingo dela iragarri du ikerketa batek

eMarketer etxearen ikerketa batek dio Interneteko publizitate ia guztiaz jabetuko dela Google gutxira, harenak baitira bilaketa bidez txertatutako iragarkiak, eta baita gailu mugikorretan aplikazio bidez txertatutakoak ere. Bannerren eta elementu grafikoen bitartez egindako publizitatean lehiakide bakarra, oraingoz, Facebook da, baina sare sozialak bere plataformatik haratago ezin du bestelako publizitaterik txertatu. Gaur egun Youtube da Googleri publizitate bitartez diru sarrera handienak ematen dizkion zerbitzua eta estrategiaren barruan oso zeregin garrantzitsua du bideo plataforma horrek.

## TELE-BEGI



OIHAN VEGA

# Izan ala ez izan... Horra hor gakoa

José Bretón eta bere 'desagertutako' haurren kasua telebistan ikusten dudanean odolak irakiten dit.

Ez kasua bera ikaragarria delako. Ustez erahildako bi haurtxoen zoritxarrarekin egiten den zirko mediatiko higuingarriarengatik baizik. Zenbat sufrituko ote du bere seme-alabak galdu dituen ama batek? Eta zenbat min pairatu beharko du emakume gaixo horrek bere zorigaitzarekin gainontzeko guztiak entretenitzen garela ohartzen denean? Odol usainaren atzetik dabilen publiko morbosoa asetzeko jaurtitzen dizkigute telebista kateek euren amua, José eta Ruth txikiak Erromako zirkoko gladiadoreak bailitzan.

Baina noski, eta hona hemen honen guztiaren gakoa: antzerki mediatiko nazkagarri horren presioarengatik izango ez balitz, poliziak laugarren txosten bat aurkeztuko luke aurkitutako hezurrak haurtxoenak direla egiaztatzeko? Edo komunikabideetan irten behar izan da kasua poliziak bere lana ondo egin dezan? Zirkoaren erruz, ala zirkoari esker?

## ASTEA GOIENAN

### GOIENA TELEBISTA

#### ASTELEHENA 24



**Rallysprinta**

Aramaioko rallysprinta eta Natra-Oñatiren aurkezpena ikusgai izango dira *Harmailatik* saioan. | 21:27

**12:25** Magazinea
**13:10** Zorion Agurrak
**13:15** Onein
**13:43** Tertulia
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Zorion Agurrak
**15:13** Erreportajea
**15:43** Erreportajea
**16:13** Erreportajea
**16:43** Zorion Agurrak
**16:48** Berriak
**17:08** Eguraldia
**17:11** Onein
**17:43** Goierri Creation Center
**18:08** Esatea libre
**19:23** Ekogune
**19:53** Berriak
**20:13** Eguraldia
**20:16** Magazinea
**21:01** Berriak
**21:21** Eguraldia
**21:27** Harmailatik
**22:12** Magazinea
**22:57** Harmailatik
**23:42** Berriak

#### MARTITZENA 25



**Josu Zabala**

MUko errektoreak Aretxabaletako eta ikasturte berriko erronkei buruz jardungo da *Harira* saioan. | 21:33

**12:30** Magazinea
**13:15** Zorion Agurrak
**13:20** Harmailatik
**14:05** Erreportajea
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Harmailatik
**15:53** Onein
**16:21** Goierri Creation Center
**16:44** Berriak
**17:04** Eguraldia
**17:07** Erreportajea
**17:37** Bizitegia
**18:07** Harmailatik
**18:52** Laino arteko plana
**19:20** Erreportajea
**19:46** Zorion Agurrak
**19:51** Berriak
**20:11** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Berriak
**21:20** Eguraldia
**21:23** Musikaz Gain
**21:33** Harira
**22:03** Erreportajea
**22:33** Musikaz Gain
**22:44** Magazinea
**23:29** Berriak
**23:49** Eguraldia

#### EGUAZTENA 26




**Greba orokorra**

Irailaren 26rako euskal gehiengo sindikalak deitutako greba orokorraren jarraipena egingo dugu . | 14:48

**12:30** Magazinea
**13:15** Zorion Agurrak
**13:20** Harira
**13:53** Musikaz Gain
**14:03** Harmailatik
**14:48** Berriak
**15:03** Eguraldia
**15:06** Erreportajea
**15:36** Onein
**16:06** Goierri Creation Center
**16:41** Berriak
**16:56** Eguraldia
**16:59** Harmailatik
**17:44** Zorion Agurrak
**17:49** Musikaz Gain
**18:00** Laino arteko plana
**18:30** Harira
**19:03** Erreportajea
**19:33** Zorion Agurrak
**19:38** Musikaz Gain
**19:48** Berriak
**20:03** Eguraldia
**20:06** Tertulia
**21:06** Lehiaketa
**21:16** Berriak
**21:36** Eguraldia
**21:41** Laino arteko plana
**22:11** Bertso saioa
**23:46** Berriak
**23:51** Eguraldia

#### EGUENA 27



**'Planik bai?'**

Aste bukaerarako kultura hitzordu guztien errepasoa Arantzazu Ezkibel kazetariaren eskutik. | 19:08

**12:30** Harira
**13:00** Zorion Agurrak
**13:05** Tertulia
**13:35** Erreportajea
**14:05** Onein
**14:28** Musikaz Gain
**14:38** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Erreportajea
**15:34** Goierri Creation Center
**16:04** Musikaz Gain
**16:15** Erreportajea
**16:45** Berriak
**17:05** Eguraldia
**17:08** Bertso saioa
**18:43** Onein
**19:08** Planik bai?
**19:28** Ekogune
**19:58** Berriak
**20:18** Eguraldia
**20:20** Magazinea
**21:05** Planik bai?
**21:25** Berriak
**21:45** Eguraldia
**21:48** Erreportajea
**22:14** Walker
**22:44** Planik bai?
**23:04** Magazinea
**23:49** Berriak

#### EGUBAKOITZA 28



**'AsteOn' saioa**

Arritxu Barruso kazetariak, besteak beste, esnea egiteko Chufamix tresnaren berri emango du. | 21:32

**12:30** Planik bai?
**12:50** Magazinea
**13:35** Zorion Agurrak
**13:40** Onein
**14:06** Laino arteko plana
**14:36** Musikaz Gain
**14:46** Berriak
**15:06** Eguraldia
**15:09** Planik bai?
**15:29** Bizitegia
**15:59** Erreportajea
**16:25** Ekogune
**16:55** Berriak
**17:15** Eguraldia
**17:18** Planik bai?
**17:38** Ekogune
**18:08** Harira
**18:41** Walker
**19:11** Laino arteko plana
**19:41** Zorion Agurrak
**19:45** Berriak
**20:05** Eguraldia
**20:08** Planik bai?
**20:28** Harira
**20:59** Berriak
**21:19** Eguraldia
**21:22** Musikaz Gain
**21:32** AsteON
**22:07** Erreportajea
**22:37** Berriak

### ARRASATE IRRATIA

#### Donostiako 60. Zinemaldian egongo gara

Martxan da Donostian Zinemaldiaren 60. edizioa, eta Imanol Gallegorekin bertan egongo gara azken albisteak komentatzeko. Film, sari eta aktoreei buruzko dena jakin nahi baduzu, sintonizatu Arrasate Irratia 107.7an. Zinemaldia barrutik, zure etxetik mugitu gabe.

#### Ointxe! Arrasate saskibaloi taldearen aurkezpena

Kirolari dagokionean asteburuan gertatutakoen berri emango dugu astean zehar. Eta Arrasateko taldeei eskaintzen diegun tartean, oraingoan saskibaloiaren txanda izango da. MU taldeko entrenatzaile Josu Larrategirekin egongo gara denboraldiko aurreikuspena egiteko.

#### 'Mantxut mantxut?', helduentzako liburua zozketatuko dugu

Argia eta Zazpiak Batman argitaletxeek kaleratu berri duten *Mantxut mantxut*? liburua zozketatuko dugu. Helduei zuzenduriko liburu dibertigarri eta ausart honek kaleko hitz berriak ikasteko aukera paregabea eskainiko dizu. Beraz, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *goiena@irratia.com* helbidera.

## TELE-ALBISTEAK

# 'AsteOn' saioaren denboraldi berria egubakoitzean

Arritxu Barrusok gidatutako saioa bueltan da, gaurkotasuneko gaiak lantzen jarraitzeko



Izugarrizko harrera izan duen Chufamix gailua. | GOIENA

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Egubakoitzean hasiko da Arritxu Barrusok gidatuko saioaren denboraldi berria Goiena telebistan. Denboraldi berriko lehenengo saioan ideia berritzaile bat aurkeztuko digu Barrusok: Chufamix tresna. Etxean esnea egiteko balio duen gailua da eta aurreko astean aurkeztu zuen Itziar Bartolomek Arrasateko baserritarren azokan. Lehenengo egunetik izugarrizko arrakasta izan du eta egubakoitzeko saioan lehen eskutik ezagutuko dugu.

MUko Diseinu eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza ikasle izandako Nahia Belloso iruindararen gradu bukaerako proiektua ere ezagutuko dugu. Bellosok, Baltistan fundazioaren laguntzarekin, komun lehorra eta sukaldea garatu ditu Pakistaneko eskualde horretan.

**Debagoiendarron iritzia**

Aurreko denboraldian bezala, kalera irtengo gara gaurkotasunari buruzko gaien inguruan debagoiendarren iritzia jaso eta plazaratzeko.

# Rallysprinta, Natra-Oñati, futbola eta gehiago 'Harmailatik' saioan

Asteburuan gertatutakoari helduko dio 'Harmailatik' saioan Xabier Urtzelaik

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Aramaion zapatuan ospatutako rallysprintaren errepasoa egingo du gaurko saioan Xabier Urtzelaik. Bertako irudiak ikusi eta parte-hartzaileen adierazpenak entzuteko aukera izango duzue.

Futbolari dagokionez, atzo Aretxabaletak Errenteriako Touring taldearen aurka jokatu zuen partiduaren laburpena egingo du, eta partida ostean jasotako protagonisten iritzien berri eman. Horrez gain, Mondra, Aloña eta Bergara taldeek izandako asteburuak ere aztertuko ditu.

**Natra-Oñatiren fitxaketak**

Egubakoitzean, Oñatiko plazan Natra-Oñatik egindako aurkezpenean egon zen Harmailatik-saioko lantaldea. Bertan, aurten egindako fitxaketak ezagutzeko aukera izan zuten eta saio honetan aurkeztuko dituzte: LEB 2 mailan dagoen Azpeitiako Lan Mobel Iraurgi taldetik etorri diren Xabier Osa, Xabier Odriozola eta Josean Cavada, hain zuzen ere.

Amaitzeko, Bergarako eskubaloi taldeak asteburuan jokatu duen lagunarteko partidaren berri eskainiko digute gaur, 21:30etik aurrera.

# ZORION AGURRAK



ARRASATE
**Beñat Hernandez Iturbe**
Irailaren 29an, 3 urte! Zorionak, maitea, etxeko mutil handia eta urte askotarako. Oso ongi pasatu zure egunean. Muxu potolo handi bat etxeko guztien partetik.



BERGARA
**Maider Moral eta Maite Nabaskues**
Zorionak gure poxpoliñei! Maiderrek 29an, 9 urte eta Maitek 25ean, 19 urte. Egun zoriontsua pasatu, familia guztiaren partetik. Muxu handi bat biontzat. Prexioxak!



ANTZUOLA
**Mikel Jauregi Larrañaga**
Irailaren 29an urtemuga dela-eta, zorionak eta muxuak maite zaituzten denen partetik eta urte askoan bete ditzazula.



ESKORIATZA
**Naroa Cabeza Jorge**
Irailaren 28an, 2 urte. Familiaren partetik muxu handi bat eta ondo pasatu eguna.



ARRASATE
**Aitor Urtubi**
Irailaren 28an, 29 urte. Zorionak, figura! Ondo pasatu zure eguna. Muxu handia. Zure ama, aitxa eta bestiak.



ARETXABALETA
**Izaro Hernandez Urzelai**
Zorionak, Izaro! Irailaren 28an sei urte beteko dituzu. Muxu potolo bat etxekoen partetik, bereziki amatxo, aitatxo, Gari eta Oihan!



ESKORIATZA
**Maren Markaide Alegria**
Irailaren 27an, 10 urte. Zorionak eta muxu potolo bat etxeko danen partetik! Pila-pila patata tortilla!



ARETXABALETA
**Oskitx Lagunilla Agirre**
Irailaren 27an, 7 urte. Un, deux, trois,... Zazpi urte bete dituzu! Zorionak etxeko guztien, eta bereziki, Aitzol, aitatxo eta amatxon partetik. Guztiok batera ospatuko dugu zure urtebetetze eguna; ia merienda goxo-goxoa prestatzen diguzun. Urte askotarako!



ARETXABALETA
**Joanes eta Maier Agirre**
Irailaren 27an, 4 urte. Zorionak, bikote! Heldu da azkenean eguna ee! Patxo handi-handi bat etxeko guztion partetik eta ondo-ondo pasatu eguna. Mua!



ARAMAIO
**Eki Balantzategi Fdz. de Arroiabe**
Irailaren 27an, 9 urte. Zorionak, maittia. Atzo jaixo zitzelakuen, 9 urte bete dituzu. Ondo pasatu eta segi jator-jator. Asko gura zaugu. Xanti, Uxue eta Nuria.



OÑATI
**Oier Igartua Urteaga**
Irailaren 26an, 5 urte. Zorionak eta oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxuak zure bosgarren urtebetetzean. Txokolate goxoa prestatu. Zorionak, artista! Antzuolako zure lagun diren Lore, Peru, Bego eta Arkaitzen partetik ere.



ARRASATE
**Beñat Gamito**
Irailaren 25ean, 9 urte. Zorionak etxekoen partetik! Halako sinpatiko jarraitu!



OÑATI
**Olaia Gonzalez Obeso**
Irailaren 26an, 4 urte. Zorionak, printsesa! Señoritatxo bat indda zauz jada. Zure eguna ondo-ondo pasatu daizula! Patxo potolo-potolo bat familixa danaren partetik.



BERGARA
**Martin Lete Dávila**
Irailaren 25ean, 10 urte. Zorionak, txapeldun! 10 zenbakira iritsi zara! Ondo pasatu zure eguna. Besarkada eta patxo handi bat etxekoen partetik, bereziki Oier, Eder eta Ane.



BERGARA
**Aitana Mendiaraz Paya**
Irailaren 24an, 2 urte. Zorionak, Aitana, eta muxu handi bat etxeko danen partetik. Ondo pasatu eguna.



ARRASATE
**Alain Rincon Madinabeitia**
Irailaren 24an, 4 urte. Zorionak, pottolo! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo handi bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
**Unax Urtubi**
Irailaren 23an, 3 urte. Zorionak, Unax! Oso ondo pasatu eguna Moñoño! Patxo handia familixaren partetik!



OÑATI
**Izar Ugarte Muñoz**
Irailaren 23an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu handi bat etxeko guztien paretetik, bereziki zure ahizpatxo Helene.



ANTZUOLA
**Garazi Aranburu Segurola**
Iirailaren 23an, Garazik urtebete! Zorionak Hegoi, amatxo eta aitatxoren partetik.



BERGARA
**Uxue Montalvo Ruiz de Egino**
Irailaren 23an, 4 urte. Zorionak, Uxue! Zer nola ari zaren hazten! Merienda goxo-goxoa prestatuko dugu ospatzeko! Patxo handi bat Peru, aitatxo eta amatxoren partetik.



ARRASATE
**Maddi Etxagibel Ruidiaz**
Irailaren 22an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat denon partetik.



OÑATI
**Eñaut Beitia Maisterrena**
Irailaren 22an, urtebete. Zorionak, txikitxo! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzian! Mila muxu familixaren eta, batez be, amatxo eta aitatxoren partetik!



OÑATI
**Adrian Gonzalez Obeso**
Irailaren 22an, 7 urte. Zorionak, pitxin! Ze handi egin zaren! Zazpi urte egitera zoiaz eta atzo jaixo zitzela emuten dau. Ondo ondo pasatu zure egunian eta muxu potolo-potoloa familixa danaren partetik!



BERGARA
**Martin Alzola Altzerreka**
Irailaren 22an, 3 urte. Zorionak, Martin! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu handi bat familixa guztiaren partetik!



ARETXABALETA
**Monika Beltran de Heredia**
Irailaren 22an, 8 urte. Zorionak, *Marimo*! Etxeko sorgintxuak dagoeneko zortzi urte! Patxo handi bat!



ARAMAIO
**Laida eta Agustin Berasaluze**
Irailaren 21ean, Laidak 6 urte eta aitxitxe Agustinek, 61 urte beteko dituzte. Zorionak eta ederto pasatu egune! Marrubizko muxuak biontzat, familiakoen partetik!



OÑATI
**Eider Larrea Ugarte**
Irailaren 21ean, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik.



ARRASATE
**Aitzol Rodriguez Saldaña**
Irailaren 21ean, 5 urte. Zorionak, bitxito! Oso ondo pasatu zure egunean! Muxu handi bat etxekoen partetik! Mua!



ARRASATE
**Ane Fernandez Alonso**
Irailaren 20an, 4 urte. Zorionak, gure poxpolintxok lau urtetxo! Familixakuen eta bereziki lehengusu Beñat eta le- hengusina Marenen partetik, ondo pasatu eta marrubizko lau patxo. Muxutxuek, printzesa!



BERGARA
**Saioa Leturia Gabilondo**
Irailaren 24an, 8 urte. Zorionak, pitturri! Ondo-ondo pasatu eguna etxekoen partetik!



OÑATI
**Oihan Irizar Urkia**
Irailaren 18an, 3 urte. Zorionak, *prexioso*! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxekuen partetik!



OÑATI
**Ainara Azkoitia**
Irailaren 18an, 32 urte. Zorionak, amatxo! Astearteán bat geitzeagatik kontura, baina batez ere hain alai eta umoretsu, zure alboan zoriontsu egiten gaituzulako. Txokolatezko muxu pilia zure hiru altxorren partetik.



ARRASATE
**Fani Martin Bañuelos**
Irailaren 18an, 21 urte. Zorionak, Fani. Ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat denon partetik, batez ere Oxelek.



OÑATI
**Oxel Blazquez Plazaola**
Irailaren 17an, 6 urte. Zorionak, Oxel, zure familixako danon, eta batez be, zure anai Unairen partetik! Ondo pasatu zure merendolan. Txokolatezko muxu asko. Mua!



ARRASATE
**Irati Rodriguez Sanzberro**
Irailaren 17an, 4 urte! Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure egunean eta patxo handi bat familiakoen partetik. Mua!



ARRASATE
**Igone eta Rafi**
Irailaren 14an, Igonek 30 eta Rafik 31 urte bete zituzten. Zorionak eta egun ona pasatu, familiaren aldetik..

## JAIOTAKOAK



### Julen Bolibar Sanchez

Bergara. 3,940 kilo. Irailaren 17a. Gurasoak: Naiara eta Gorka. Argazkian, Sehaskan.



### Nahia Agirre Carrillo

Bergara. 3,290 kilo. Irailaren 12a. Gurasoak: Ainhoa eta Gaizka. Argazkian, amarekin.



### Unai Irizar Perez de Arenaza.

Arrasate. 3,990 kilo. Irailaren 18a. Gurasoak: Alaitz eta Markel. Argazkian, Sehaskan.




### Hugo eta Gorka Cabaña Saldaña

Eskoriatza. 2,900 eta 2,600 kilo. Irailaren 14a. Gurasoak: Olaia eta Toni. Argazkian, Hugo eta Gorka jaioberriak.



### Maren Gimenez Garcia

Arrasate. 3,400 kilo. Irailaren 19a. Gurasoak: Dalia eta Jesus. Argazkian, Aitarekin.



### Miren Fernandes Soares

Oñati. 3,030 kilo. Irailaren 21a. Gurasoak: Sancho eta sonia. Argazkian, Aitarekin.

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## DENBORA-PASA

### HITZ GEZIDUNAK




LUMA

### BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.





### SOLUZIOAK



Hieroglifikoa: Iaz herrian (Ia-z(h)erri-n).

### SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 8 | | | 1 | | 2 | | 3 |
| | | | | 2 | 8 | | | |
| | 2 | | | 6 | | 5 | 4 | 8 |
| 3 | | | | 4 | | 8 | | 7 |
| | 9 | 8 | | 7 | | | | |
| 7 | | | | | | | | |
| 6 | | | | 8 | | | | |
| | | 7 | 2 | | | | | 5 |
| 8 | | 2 | 5 | | 7 | 4 | 9 | |

### HIZKI SALDA

Topa itzazu motozikletako bost atal.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| T | R | I | U | M | A | U | Z | D |
| Z | I | L | I | N | D | R | O | A |
| A | J | O | P | B | N | K | O | N |
| X | B | A | T | E | R | I | A | B |
| B | E | T | I | M | A | L | P | O |
| O | A | R | A | A | A | A | K | R |
| F | T | H | K | E | K | L | N | O |
| K | O | R | T | E | U | K | I | L |
| B | A | L | A | S | T | A | N | E |

### HIEROGLIFIKOA

Aspaldian ikusi duzu Mitxel?



## AI, ENE!

### Errepideko auto beldurgarriena



Zirkulazio basatira ohituta ez bazaude, zenbait hiritan gidatzea ez da erosoa izaten. Auto honekin seguru errespetatuko zaituztela.
**www.nopuedocreer.com**

## AHOBERO

### "Bi aita homosexualek hezia izatea baino okerragorik ez zait bururatzen"

RUPERT EVERETT | AKTOREA

Everettek aspaldi onartu zuen publikoki bere homosexualitatea, eta horregatik deigarria egiten da bere ahotik esaldi hau entzutea. Iritzi guztiak errespetagarriak izan daitezke; baina ez al litzateke okerragoa izango, esaterako, gurasoak drogazaleak izatea?
**Sunday Times**

## EGURALDIA



Max. 24º
Min. 15º

Astelehen goizean fronte batek lurraldea zeharkatuko du eta giro euritsua espero dugu.
**euskalmet.net**


ASTELEHENEKOA
# goiena"
2012-09-24


## HAMARREKOA

**Aitor Mazo** Bihar estreinatuko da Zinemaldian aktore bilbotarrak Patxo Telleriarekin zuzendutako bigarren pelikula, *Bypass* komedia erromantikoa. Ibilbide luze eta emankorrean, beste urrats bat. | TXOMIN MADINA

# "Kulturak, kirolarekin alderatuta, ez du aurrera egin"

**1. Gain-gainean da *Bypass*-en estreinaldia. Nola daude animoak?**
Goi-goian. Irrikan gaude jendeak ikusi eta nola hartzen duen jakiteko. Bigarren pelikula dugu, aurrekoarekin alderatuta ezberdina. Hark harrera ona izan zuen; honek ez dakigu. Zinemaldian estreinatzeak ilusio berezia egiten du gainera.

**2. Bizi dugun garaiotarako inoiz baino beharrezkoagoak al dira komedia erromantikoak?**
Bai, baina egun komedia pila bat dago egoera dela-eta eta agian pentsamendu sakonagoko pelikulak egiteko garaia ere bada. Gainera, ez dut esan gura gure komedia sakona ez denik.

**3. Bi pelikula, biak Patxo Telleriarekin zuzenduta.**
Pelikula pare bat eginda, norberak bere ideiak izaten ditu: politagoa da adostasunera heltzea hain ideia ezberdinak izanda. Hortik lan ona ateratzen dela uste dut.

**4. Zenbat ate jo behar izan dituzue pelikula aurrera ateratzeko?**
Horiek ekoizlearen ukabilkadak dira; gu alde artistikoaz arduratu gara: jo ditugun ateak gure buruari izan dira, gure asmatzeko gaitasunari. Hunkitzeko eta barre eragiteko jotzen ditugu gure barruko ateak.

**5. Euskal aktore gazte ugari agertzen da Bypass-en. Nola datoz belaunaldi berriak?**
Aktore oso onak daude; belaunaldia salbatuta dago baina ez dakit ez dagoen aktore larregi hain lan gutxirako.



AGM

### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

### "Antzokiak itxi beharrean, zabaldu"

"Hainbeste gauza eskatuko nituzke, makila hautsi egingo litzateke! Gauza bat eskatzekotan, eskatuko nuke antzokiak, itxi beharrean zabal daitezela berriro. Dena itxi izan den momentu bat bizi izan dugu, eta kulturaren susperraldia eskatuko nuke: jendea berriz kulturaz interesatzea. Baita kulturak BEZik ez izatea ere".

**6. Asko aldatu al zaizu lanbidearen ikuspegia gaztea zinenetik?**
Bai; hasieran egunerokoarekin bizi ginen, ez genuen pentsatzen pelikularik egingo genuenik ere. Baina egia da kulturak, esaterako kirolarekin alderatuta, ez duela aurrera egin; oraindik ez dugu sinesten gure buruan.

**7. Irakurri dugunez, nahiago omen duzu alaba aktorea izatea, enpresa ikasketak egitea baino?**
Nahi dudana da bera pozik bizi izatea, berak ikusiko du zer egiten duen. Baina uste dut lana badaukazu, lan ona dela, polita; baita gogorra ere.

**8. Pirata maltzurra, eskrupulo gabeko abokatua... Sarri ikusi zaitugu gaiztoarena egiten.**
Apur bat denetarik egin dut. Nik uste dut pertsonaia onak ondo egiten ditudala, txarrak baino hobeto. Beharbada gutxiago ikusten dira onarena egiten dudan pelikulak; baina egin, egiten ditut.

**9. Bilbo eta Madril artean bizitzeak badu abantailarik?**
Ez gehiegi: asko uzten duzu erdian. Guk sarea botatzen dugu arrainak dauden tokian, eta niretzat gehienbat Madrilen dago lana. Ez nire gogoagatik, baina Euskal Herritik at lan egitea tokatu zait askotan.

**10. Aktore moduan, ze amets duzu betetzeko?**
Denetarik, hasi barik nago-eta! Ez nago erretiroan pentsatzen; gauzak egin nahi ditut, gauzak asmatu... Lehen egunean bezala nago.

## BIHARAMUNA

IXIDOR SOLUPE ZULAIKA



### Esan eta egin=IZAN

Badatoz hauteskundeak, bereziak gainera. Baina inork ez du ukatuko hauteskunde garaiotan, politikariek esaten digutena betetzen ez dutenaren sentsazioa izan dugula noiz edo noiz. Nick Clegg Erresuma Batuko lehen ministro ordezkoak barkamena eskatu du hauteskundeetan emandako hitza ez betetzeagatik. Hemen ordea…

Lopez Ajuria Enean sartu zenean, Eusko Jaurlaritzak 642 milioi euro zorra zuen (BPGren % 1,0 a); aurtengo ekainaren 30ean 5.543 euro zen zorra(BPGren %8,3a). Hau da, hiru urtetan 4.901milioi euro zorpetu gaituzte!. Eta zertan? Galdera ederra.

Egoerari aurre egiteko, Lopezen Gobernuko Carlos Agirre Ekonomia sailburuak gaiaren inguruko edozein zalantza desagerrarazi du. Egoera ekonomikoaren bilakaera ikusiz eta hobera egingo duen susmorik ezean, datorren gobernua murrizketa berriak egitera behartuta egongo dela dio Agirrek.

Aurrez egin ez duen guztiarekin eta aurrekontu berriarekin egin beharko lukeena ez esateko, Lopezek erresena egin du: aurrekontuak egin ez eta hauteskundeak deitu.

Esan eta eginaz gain, duda berria sortu digu Lopezek: egin ez dutenarena, egin dutela esan ez diezaiegun.



Hipermerkatuak
EROSKI
zurekin
Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30
www.grupoeroski.es